

**HARKAITZ CANO**

# **Neguko zirkua**

**SS** narratiba  
**Susa**

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2005 Harkaitz Cano

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2005eko apirila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

La terra només gira perquè jo sóc aquí  
i jo sóc un PALLASSO qui agonitza.

JOAN SALVAT-PAPASSEIT

# Eskularruak mara-mara

Erotu egin gintuen denok. Erotu egin zuen atezaina, eta makillatzailea eta zuzendaria eta... Kamerinoa hankaz gora zegoen. «Jendea zain zagon, Cassandra, noiz pentsatzen dun ateratzea?». Eta berak, eskuak gerrian, suspirio batean: «Apokalipsiaren Zalduntsa eszenatokira eskularrurik gabe atera? Inoiz ez!»

AMBER L. NEWTON, *Drag lust lasts long*

Eskularru batek besteari: hotza besterik ez zagok gure esku.

TRISTAN TZARA

**Neguko** egun hotza. Eskularruekin ibiltzeko horietakoa. Baina gero barruetan beroegi egoten da, jendeak ez du erdibiderik eta eskua joaten zaio termostatoarekin. Egunduek hala eskatzen duelako, edo besterik gabe, gezurren zale zarelako gezurretan ari bazara, hatz artea izerditan hasiko ez bazaizu, ez duzu eskularruak kendu eta patrikan gorde beste aukerarik. Patrika bakoitzean eskularru bat, aparatosoak baitira eskularru hauek. Nire amak erabili ohi du hitz hori: *aparatosoa*.

Hori baino lehenago, manoplak izan ziren. Nork janzten ditu gaur egun manoplak, eskuetako lo-zaku zurrun horiek? Duela hogeit hamar urte ume guztiok janzten genituen, eskuak itsas-zakurren hegalean gisan antzaldatzen zizkiguten manopla gogaikarriak. Beharbada eboluzio natural bat izan da: oroitzen ez garen arren, umetan hatzak ere elkarri itsatsita geneuzkan eta hatzak hazi eta banandu ahala bihurtu zaizkigu eskuzorroak eskularru, ez baitut etxean manopla zaharrik inon atzeman. Eboluzionatu ala hil.

Garai batean nahikoa zen hori: egunkari orrialdeetan bildutako boxeoko eskularru gorriak, gorri hori gerezietan bakarrik ezagutzen zuen gazte xaloaren eskuetan, entrenatzailearen opari.

Rita Hayworth *Gilda* filmean eskularru luze hura erantzten, platanuari azala erantztea ere zilegi ez zenean.

Glenn Gould hatzak moztutako eskularruekin pianoa jotzen.

Erantzi eta jarri, eskularru aparatosoak, behin eta berriro, trenera igotzean, trenetik jais-tean, lanera sartu eta kafetxetik irtetean.

Eskularruak kentzea ez zait egiazki ariketa neketsua suertatzen, hatz luze eta politikak ditut. Dudan zaldi aurpegia konpentsatzeko erabiltzen ditut askotan eskuak, kontrapisu bezala: hara, esaten diot munduari, zaldi aurpegia daukat baina begira ze esku politikak. Eta eskuak inguratzzen ditut matrailezurrera edo begiak igurzten ditut eskuekin edo kopetari duda-muda urduriz mozorroturiko laztan edo zimiko konplaziente bat egiten diot, nahi gabe balitz bezala. Baina estudiantuta daukat dena eta eskuak aurpegiaren parte bihurtzeko estrategia besterik ez da. Eta eskuak aurpegiaren zati dira, zinez, belarriak diren hein berean eta eskubide berdinarekin, begira bestela idazleen argazkiei.

Goizean Nikolas Lekuonaren erakusketa batean izan ginen Gasteizen. Elkar ukitzear dauden hatzak ageri ziren irudi haren indarraz hitz egin genuen. Michelangelo Buonarrotik pintatutako hatz haiek ekarri zizkiguten gogora. Hatzak elkarrengana luzatzen, eskuak elkarri heldu nahian, baina elkar ukitzera iritsi gabe. Eskuak ongi marraztea ze zaila den, eta nola artista gehienek egiten dituzten saioak eta ariketak eskuak eta

hatzak behar bezala marrazteko. Zuk pelikula bat aipatu zenuen, koadroko irudia amaitzeko eskuak bakarrik falta zitzaizkion pintore baten istorioa. Ez ginen izenburuaz gogoratzen, harritzeko. Gero izenburu batekin akordatu ginen, *Six million symphony*, baina ez ginen zuzendariaren izenarekin gogoratu, eta gainera, hori ez zen guk esaten genuen eskuen filma, beste bat baizik. Bere eskuek milioi bat dolar balio zutela esaten zuten zirujau hari buruzkoa. Amerikarrek badute obsesio hori, milioi bat dolarren kontuarena. Egin kontu aldizkarietako azaletan zirujau honen eskuen argazkiak ateratzen dituztela, arrakasta handiko medikua da, baina gero babak eltzetik ateratzeko orduan bere eskuak ez dira aitari buruan duen tumorea kendu eta ebakuntza behar bezala egiteko gai, eta aita, judutarra, hil egiten da. Judutarra izan ez balitz ere berdin-berdin hilko zen, hori egia da. Baina zirujauak aita judutarra zuelako hitz egin genuen Hollywoodeko urrezko urteez eta urte horietan judutarrek izan zuten garrantziaz, oraindik ere duten indarraz, etxera bidean.

Gure azken egunak ziren elkarrekin. Parisera nindoan hurrengo egunean, bolada luze baterako.

Ezustean, Parisera baino lehen tanatoriora joan behar izan nuen arratsaldean, zoritxarrez. Tia Celia zerraldoan, jendea inguruan negarrez. Bilobek sufritu zuten gehien. Negarretik barrera jauzi egitea hain zaila ere ez zela esan zuen norbaitek. Eta nik pentsatu nuen arrazoi zuela, baldin eta Bob Beamon bazara. Celiari loreak gustatzen zitzaizkion, esan zuen beste norbaitek. Baina ze lore, oihartzun batek. Orain lore denak soberan ditu, erantzun zioten txokotik. Hor barruan hotz mantentzen dituzte gorpuak, erantsi zuen kristala haur bihurri baten eran hatzaz zikinduz, goiko auzotik isilik geratzeko etorri ez zenak. Zortzi gradutan zehazki, garagardoa bezala, zehaztu zuen herriko tabernariak. Garai batean alkoholarekin igurzten genituen, etxeko ohean, bota du judutar itxura daukan eta hiltzen hurrengoa izango dela susmatzen duenak, sintesi ahalmen ikaragarritz, eta esandakoa azpimarratzeko bezala, dzanga egin zion anisari.



Judutarrek ez dute ilerik tindatzen maite duten norbait hiltzen zaienean, esan du gero. Judutar itxura du eta judutarren kontuak kontatzen ditu. Judutarra ote da benaz?

Autobusa hartu behar nuen etxera bueltatzeko. Urrundik bistaratu nuen, eta lasterka iritsi nintzen. Gutxiengatik ez zidan ihes egin. Ordaindu, korridorearen azken buruan zegoen eserlekuan eseri eta jakako patrikan sartu nuen eskua.

Eskularru bat falta zitzaidan, korrika saioan eroria, nonbait.

Ze erraz galtzen diren eskularru aparatosoak eta bufandak. Prenda isilegiak dira, elurra bezala erortzen direlako lurrera, mara-mara edo mallo-mallo. Urteroko kontua zen. Joan zen urtean ere beste eskularru bat galdu nuen. Beharbada biak ziren esku ezkerrekoak eta izorrai: orduan eskularru pare berria erosi beharko nuen. Hala ez balitz, prest nengoen bi eskularru diferenterekin ibiltzeko, arriskatu egingo nintzen, eskularruak hatzetan eta ibili elur baltzetan!, bai horixe. Nortasun zeinu gutxiegi ditugu besteen-gandik bereizten gaituztenak eta huraxe zate-

keen nortasun zeinu bat, eskularruen asimetria, beste edozein ezaugarri bezain baliagarri. Erranak erran, amari ez zion graziarik egingo, berriro ere, hamaikagarrenez, berak oparitutako eskularru aparatoso bat galdu nuela jakiteak.

Otu zitzaidan azkarregi egin nuela tanatorio-tik autobus geltokirako bidea, eta hildakoarekiko halako begirune falta bezala uler zitekeela tanatorio-tik urrundu nahi zuen lasterketa saio hura; korrika joan izan ez banintz ez nuela eskularrurik galduko, eta errespetu hutsagatik hobe nuela autobus hari joaten utzi, beste batzuek ez baitzuten gehiago autobusik galtzeko aukerarik ere izanen, eta begirunea zor niela haiei.

Errudun sentitu nintzen nire portaeraz autobusa bazterrauzoetako pabilioi artean zihoan ahala.

Baina gero otu zitzaidan baita ere, hildakoek ez dutela gehienetan beste mundurako batere gogorik izaten, eta eskutik tira egiten zidan us-tean tira egingo ziola akaso tia Celiak patrikan nuen eskularru hari, azken momentuan, gorputza utzi eta beste zerbait bihurtzen ari zen bitartean, auskalo norako bidean -elizarakoan ez

behintzat, autobus geltokiaren kontrako norantz dago-eta eliza-.

Jendeak painuelu zuriak eraman ohi zituen lehen geltokietara, bidaiariak agurtzeko. Painuelu garbiak, bistan da, painuelu zuri batzuk, sudur tutuak askatzeko erabiltzen zituztenetik apartekoak, painuelu arruntak ez bezala patrika berezietan gordeak: agurraren patrikan, bihotzaren parean. Baina pentsatzen jarriz gero, tren geltokietan painueluak astintzea baino agur esateko era politagoa zen inoren eskularruari tira egitea, hatzetatik xuabe, ume jaioberriek egiten diguten eran, ia konturatu ere egin gabe.

Soilik gero, eskularru aparatosoa galdu zue-nean, mara-mara. Orduan ohartzen zen norbera zendu berriak egin zion azken agur hunkigarri horretaz.

Memelokeria irudituko zaizue akaso, baina horrela pasa nintzen eskularruaren galerak sortzen zidan arranguratik, eskularruaren galerak sortu zidan poz txikira.

Erremediorik ez duten gauzak egon badauden arren, azken hari bat bada, elkarrengana lotzen gaituena. Eta bestalde, gaur egun, arinkeria

barkaezinez berba egiten dugu: gezurra den jakinaren gainean, edozer gauza goersten dugu erremedioaren kategoriara.

Estu besarkatu ninduzun kale-ertzean, ahotik lurruna zerizula. Niri ez zeridan lurrunik ahotik, bitxia; garai batean ispiluak jartzen zituzten hil berrien aho parean, ispiluak lurruntzen ez baziren soilik ematen zuten hildakotzat arnasarik hartzen ez zuena. Zertan pentsatzen nuen galdetu zenidan, eta ezertan ez, erantzun nizun, beste askotan bezala.

Kalean hiru pilotekin malabarak egiten zebilen gizon hark piloten ordezkularruak airean ibiliko balitu nire fortuna osoa hari eman eta bere oinetara belaunikatuko nintzatekeela ari nintzen pentsatzen, arte forma gorenagorik ez zitzaidala otutzen.

Nekeza behar duela hain gauza aparatosoenkin malabarak egitea.

Baina nola esango nizun hori? Nahiko barre-garriak dira gauza horiek hildako baten beilatik bueltan eskularru bakarrarekin etxera zatozenean, baita idatziz paratzeko ere.

# Argentinar lotsatia

Ez zen sekula etxera igotzen. Berak tinbreari behetik sakatzen zionean, amak hiltegirako antxumeari legez begiratu eta azken orraztua, *un dernier coup de peigne*, ematen zidan, azken orraztua emateak ez zuela merezi pentsatuko balu bezala.

Zerbait irakurtzen nuen bere begietan, ongi ulertzen ez nuena. Urte batzuen buruan jabetu nintzen, gutxi asko, begirada haren esanahiaz: «Finean, zertarako urakan baten erdira doana orraztu?».

Korrika jaisten nintzen. Ezkaratzera iritsi baino lehen, gerrikoa askatu eta beherantz tira egiten nien prakei, erronbodun galtzerdi gorrotagarri haiek ezkutatzeko. Eta han zegoen bera.

Askotan galdetzen nion nire buruari, nola ote zitekeen aitak beti hiru-lau eguneko bizar latz hura izatea eta ez sekula bizar luzeagoa, eta ezta sekula bizarra leun, lurrindu eta egin berri ere. Bizarra puntu horretaraino ernamuindu eta hortik aurrera gehiago hazi izan ez bailitzaion.

Bizarra beti halaxe izatea bere aurpegiari eskaintzen zion arretaren ondorio zela deliberatu nuen, baina harritzekoa zen. Itxurarekiko balizko kezka hura ez zetorren bere artilezko jertse zirtzilduarekin, bere utzikeriarekin, bere zarpailkeria orobatekoarekin bat.

Ez nekien zertan lan egiten zuen ere. Ez nuen sekula jakin kontatzen zizkidanak benetakoak ziren ala ez.

Behin, Parisko lente fabrikatzaile batekin tratuak izan zituen, *lupa-edalontzia* deitzen zuena asmatu eta aberastuko zen esperantzan. Txoratzten zegoen bere burutazioarekin. Ez zuen sasoi hartan beste gairik izaten. Ideia burugabea zen, inondik ere: aumentodun kristalez osatu edalontziak fabrikatu nahi zituen, bertan isuritako ardoa -edo zena zelakoa- berez isuritakoa baino askoz ere gehiago zen itxura ematea zen helburua, ez dakit oso ondo zertarako; alkohola edaten zutenek gutxiago edan eta lehen edaten zuten isurkin kopuru bera edaten zutela uste izatea zen asmoa, hori bai, baina ez dut sekula jakin izan lorpen horren azken helburua edale neurrigabeen osasuna zaintzea, ala kontenpla-

ziorik gabeko zio komertziala -gutxiago zerbitu, berdina kobratu- ote zen.

Beste behin, goizeko seietan Parisko *arrondissement* guztiak banan-banan inguratuz hiria alderik alde motorrez zeharkatu bide zuen, ke-hodia aldatuta zeukan motor burrunbatsu batean, propio ahalik eta zarata gehien atereaz. Baina ez afizioz edo inor izorratzeagatik. Estatistika lan bat egiten ari zelako baizik. Pagatu egiten zidatek gainera, erantsi zuen gero, irribarrez.

Udaletxearen enkargua omen motor ibilaldi hura, trafiko saila hiriko zaratari buruz egiten ari zen ikerketen kariatara.

Nire atzetik lau babalore zetozean, auto baten barruan, nor bere libretatxoarekin, pasatzen nintzen kale bakoitzeko leihoetara begira: zenbat argi piztu eta zenbat jende esnatzen nuen zenbatu behar zitean, pentsa!

Gero barre egiten zuen, kar-kar.

Egun hartan ere, amak gogo txarrez orraztu eta arrapaladan jaitsi nintzen atarira, ohi nuenez. Ama sumatu nuen errezelen artetik begira, kezkatu, aitak gorantz begiratu zuenean. Eta lau gizon irudikatu nituen Peugeot batean kukututa,

sonbrailuekin eta bakoitza bere libretatxo eskuan, udalarentzat ama paristarren kezkei buruzko estatistika baterako ikerketa egiten zebiltzanak, kezkatutako amak leihoetako errezelen atzean atzemateko eta koadernoan ama arduratu bakoitzeko gurutzetxo bana jartzeko ordainduko zietenak.

Egun hura ez dut sekula ahaztuko.

Aitak parkeen diseinuari buruzko zerbait esan zuen. Parke bat diseinatzen ari zela arkitekto batekin elkarlanean -tira, zuzendu zuen gero: arkitekto-arkitektoa ere ez duk, idazlea duk berez-; Luxenburgoko lorategiak ederragotzeko egitasmoa zela, udaletxeari saldu eta dirutza egingo omen zuten egitasmo harekin. Luxenburgoko lorategiak ederragotu! Okurritzea ere.

Gero esplikatu dio parkearena, lehenbizi argazki bat aterako diagu, e, Andre?

Notre Dame de Lorette karrikako argazki-dendara hurbildu ginen. Dendako erakusleihoa, neurri guztietako ezkontza argazkiz eta jaunartze eguneko potretaz josita zegoen.

Sartu ginenean, argazkilaria bikote gazte bat artatzen ari zen. Ate-zintzarriaren txilin-hotsare-



kin batera begirada altxa zuen dendari txaleko-  
dunak aitaren piura doi begiztatu eta eztarri ka-  
rranka desatsegin batekin betaurrekoak behera-  
tu ostean, berriro bere zereginetan murgildu  
zen.

*Bonjour*, esan zuen aitak.

Inork ez zion erantzun.

Bikote gazteak, ezkontzako argazkiei emana  
ziren bere so arretatsua.

Potreta erakusleihoan paratzen utziz gero,  
deskontua izateko aukera duzue. Bon... zer deri-  
tzozue?

Elkarri begiratu zioten, aldi berean harro eta  
lotsati.

Gure potreta erakusleihoan? Denen bistara?

Ez dut uste inolako lotsakizuna denik. Ede-  
rrak dituzue argazkiak. Ederki zaudete biok ala  
biok. Galde bestela zure senarrari.

Jakina, jakina... Arrazoi du, laztana...

Senarra marra lodiko pana zakarrez jantzita  
zegoen. Gizon apala zirudien eta eskuekin lan  
egiten zuen, zerrautsa ere bazuen bere oin-zolen  
pean itsatsita. Ez zen akaso dirua eskas izango

zuenetarik, baina ez zituen zilarrak oparitzeko ere izango.

Deskontu bat deskontu bat da, laztana...

Ongi da. Ipin dezatela erakusleihoan.

Argazkilariak irribarre egin zuen. Gero bikotearen eztei argazkietarik handiena hartu eta erakusleihoaren erdi-erdian paratu zuen.

Zor zena ordaindu eta alde egin zuen bikoteak, gainerako eztei argazkiak besapean hartuta. Senarrak zeharka begiratu zion argazkilariak Notre Dame de Lorette karrikako argazki-denda ttipi hartako erakusleihoan ezarri berri zuen argazkiari, bere burua bertan ezagutzea arras kostako balitzaio bezala. Lepoa egingo nuke bietarik inork, ez emazteak eta ez senarrak, ez zutela kale hura hilabete luzetan zeharkatuko, zeharbidetu luzeagoak hautatuko zituztela aurrerantzean haien eztei argazkiarekin tupust ez egitearren.

Gure txanda zen.

Semeak eta biok argazkia atera nahi genuke.

Desgogora atera zigun Eiffel dorrearen kartoizko hondo faltsuaren gainean potreta. Nik irribarre egin nezan saiatu zen argazkilaria hasieran, baina berehala etsi zuen.

Egun biren buruan ekarriko dituzte laborategitik.

Gurea ere erakusleihoan paratuko duzu?

Erakusleihoan, jauna?

Ez ulertuarena egin zuen txalekodunak.

Zer, aita-seeek ez al dute akaso ezkonberriek adina luzitzen? Ez diguzu guri deskonturik eginen, ala? Ez al gara aski fotogeniko ala zer gibelarraio?

Esan diot, jauna: egun bi barru ekarriko dituzte argazkiak laborategitik...

Aita berehala sumintzen zen. Bere jertse zirtzilduaren mahukari heldu eta tira egin nion, handik lehenbailehen alde egin nahi nuen.

Alferrik. Aitak paparretik heldu zion, kontuarretik ateratzeraino ia. Airean erabili zuen argazkilaria, panpina deslai bat bezala. Gizonak ez zuen inolaz ere hain oldartze bat-batekorik espero. Erabat ustekabeen harrapatu zuen.

Paratuko dugu, jauna! Paratuko dugu erakusleihoan! Egingo diot deskontua! Ez dago horrela jarri beharrik!

Aitak, bere jaka adabakiz josiaren mahuka astindu eta kalerako bidea hartu zuen, txilin-

hotsa erabat estali zuen danbateko batekin. Bere atzetik irten nintzen, korrika. Ezkonberriek irribarre egiten ziguten erakusleihoko erretratutik.

Montmartren ere bazeudek erretratistak! Ika-tzarekin egingo zigutek potreta... Ikusiko duk ze ederki, alde ederra!

Berehala igarri nion: egun hark ez zuen akabu onik izango.

Aitarekin lotsa eta estuasuna pasatzea zer zen aspaldi ikasi nuen, eskolara bidean nindoan batean, merkatuaren parean karga-deskargan geldirik zegoen hozkailu-kamioi batean sartzen ikusi eta labana batekin bertan harategi-gakoe-kin zintzilik jarritako txekor larrutu bati ezkutuan puska kentzen ikusi nuen egunean. Baina dena ez zen hori. Bere istorio ez-sinesteko haiek zeuden. Bere ogibide ulergaitz eta pentsaezinak. Gaueko ordu txikietan motorraren burrundarekin zenbat jende esnatzen zen zenbatzea. Parkeak ederragotzea. Bere gezurrak, pentsatzen dut gaur. Bere gezur ederrak.

Hara Luxenburgorako gure proiektua, seme: tango bat dantzatzea zer den erakutsiko zieagu

paristarrei. Zer iruditzen zaik? Hauek, *huevo-darrik* ere ez zekitek dantza kontuez!

Aitak porlan freskoa bota berri zegoen espaloizati bat seinalatu zuen: ni besoetan hartu eta harantz desbideratu zen, kumea besoetan daraman hartz bat bezala, ni airean eramateak ematen zion abiaduraren baldarrarekin, zapatak porlan freskotan hondoratu eta porlan bigunaren gainean halamoduzko dantza bat trazatuz.

Jendarme batek eta obran zebiltzan bi gizonek aise eta gogoz egurtuko zuten aita, ni han egon izan ez banintz. Dokumentazioa eskatu ziotenean, harro atera zuen aitak Argentinako pasaporteak.

Txe, semeari Juliok eta biok Luxenburgoko lorategietarako dugun asmoa erakusten ari nintzaion... Umeari ilusioa pizteko ezin al du aita batek deus egin, ala?

Erotzat hartzen zuten. Gupida sortzen zuen. Edo errukia. Edo biak batera, beharbada. Ikus nezakeen obreroen begi beltzen eta jendarmearen begi urdinen artean niretzat aurreikusten zuten umezurztegiaren argazkia.

Ikusi duk zer egin dudan, ezta seme? Ikusi duk? Porlanetan utzi diat nire sinadura, tango bat! Hartara, tangoa dantzatzeko ez jakin arren, edonork nire zapatek utzitako oinatzen gainean salto egitea aski likek nire pausoak jarraitze hutsarekin gura gabe ere tangoa dantzatzeko! Ulertzen duk? Ez al duk jeniala? Hara, planoak erakutsiko diat...

Saint Michel bulebarrean emakume zangoluzeko batekin flirt luzea saiatu eta haren telefonoa nire eskuan apuntatu ostean -axotak ez zuen bere azalean idazten- akordatu zen berriro *planoak*. Enbalatzeko paper zimurtuan egindako marrazki koipetsu bat zen.

Hara, seme, kontua duk tangoaren pausoak dibujatzea: emakumezkoarenak gorritz, eta gizonzkoarenak zuriz. Ikusten? Hemen zagok dena! Dantza egiten duen Frantzia bat beti izanen duk zoriontsu, ulertzen? Ez ni bereziki frantximant zalea naizelako, baina tira! Norbaitek erakutsi beharko ziek!

Amarekin bueltatu behar ote zuen galdetu nion, esperantza askorik gabe.

Serio jarri zen. Gero alibi luze bat aletu zuen, hura hamaika bider entzuna ez banu bezala.

Maitemintzen haizenean, neskari begietara begiratzen diok eta begietan ikusten duk bera, ulertzen? Neska hor zagok, oin bien gainean, hi paseatzen ibil haiteke harekin, *huevoón*... Baina gero, begietara begiratzen diok eta han ikusten duk bera, gorputz osoa ikusten diok begietan, ulertzen? Begietara begiratu eta bera han zagok, dantzan, bere begien barruan! Hirutasun santua bezala duk, bitasun santua bai behintzat: oin bien gainean ikusten duk, baina aldi berean bere begietan... Baina iristen duk momentu bat begietatik alde egiten duena maite duan pertsonak, ulertzen? Hire amarekin hori gertatu zitzaidan: ezkutatu egin huen, ihes egin zian amak bere begietatik. Begiratzen nioan eta hire ama ez huen jada bere begien barruan bizi oso-osorik, irribarretsu eta ipurtarin, garai batean bezala.

Ezer ez ulertu izanaren aurpegia jarri nuelako agian, edo ahotik lurruna zeridalako agian, aitak, besapean zeraman jaka hartu eta bota egin zidan, ezustean. Ia erori zitzaidan aitaren jaka lu-

rrera, doi-doi hartu nuen eskuetan tabako kira-tsa zerion jaka pisu hura. Harrituta begiratu nion.

Zer sentitu duk? Jaka bat, ezta? Jaka bat eta haren usaina? Baina ez duk besarkada bat, ezta? Ez duk gauza bera. Ez duk izan hire aita besarkatzea bezala... Jaka hutsik zagok, ala? Bada horixe sentitzen diat nik hire ama besarkatzen dudanean.

Cirque d'Hiver-en boxeo konbatea zen ospatzekoa. Han ahitu genuen arratsa. Cirque d'Hiverren zen aitaren lagun bizarduna ere, Julio, aitaren hitzetan *ia-ia arkitektoa* zen hura. Luxemburgoko parkea ederragotzearen ideia berarekin konpartitzen ei zuen, Luxemburgokoa lorategi sobera serioa zela-eta, ados ziren biak tangoaren pausoak zoruan dibujatu eta jendea dantzan jarri behar zen kontu harekin.

*¡Mirá que compañía tan rebuena! ¡El argentino tímido!*

Aitak esaten zuenez, ezagutzen zuen argentinarrak lotsati bakarra zen Julio. Otu zitzaidan ni ere izan nintekeela argentinarrak lotsatia. Tamalez, ez nintzen argentinarra.



Julio bizardun hark patrikako erloju deigarri bat zeukan. Aldian behin hari begiratu eta erlojuaren estalkia ixtearekin batera bere begiak ere erlojuan gordetzen zituela zirudien. Garaia zen benetan: buru oso baten koska ateratzen zion aitari. Juliok ordaindu zituen trago guztiak, baina erdiak baino gutxiago edan zituen berak, egia osoa esan behar bada. Niretzat gaztaina sorta bat ere erosi zion kale saltzaile bati. Juliok ez zidan gupidaz begiratzen, ezta errukiz ere, haren begietan ez zen so egiten zidanero umezurztegi-rik irudikatzen. Nire aurpegiak zerbait alaia adieraziko balio bezala begiratzen zidan. Le chien qui fume bistroan agurtu genuen. Beste garagardo pare bat hartu zituen aitak arratsalde hartako konbatearen iruzkina bakarka kalakatzen zuen bitartean.

Boxeatzaile bat nauk, farola baten pean!  
Ikusten duk, Andre? Denok gaituk boxeatzaile bakartiak farola bakartien pean! Sartzak hori kaskezurrean!

Balantzaka zihoan harrezkero.

Bere lagun hura, Julio zelako hura, ia-ia arkitektoa zena, idazlea zela errepikatu zidan, idaz-

le handia zela oso. Egunen batean irakurriko nituela bere liburuak.

Hala ere... Bere literaturak eta *pavada* horiek guztiek baino zilar gehiago emango zioke Juliori Luxenburgoko parkeko tangoaren ideiak, etzakela pentsa.

Harro eta ozen egin zuen aldarria. Benetan sinesten ote zuen aitak esaten zuena?

Baina ez egin kasurik hire aitari. Hik karrera bat ikasi behar duk. Adibidez hemen, seme: *À la Sorbonne... À la Sorbonne!*

Marx anaien film bat ematen zuten latindar auzoko zinema batean, zaldi karrerei buruzko bat, hara joan nahi nuen nik. Baina aitari bost axola zitzaion zinema: Sorbonneri buruz hitz egiteko seta sartu zitzaion. Eta aita setatzen zenean, ez zegoen zereginik. Etxera aurretik, Sorbonne aurrean geratu eta tenplu greziar bati bezala begiratu zion.

Hara hor, seme... *La Sorbonne!* Ez al duk ederra?

Nik etxe erraldoia baino ez nuen ikusten. Harritzko jauregixka, Parisen beste ehunka baziren

halakoak. Ez nekien zer zen *la Sorbonne*, baina aitak ni hara joatea nahi zuen, garbi zegoen hori.

Hor ikasiko duk egunen batean, seme. Hor ikasiko duk hik, *huevoón!*

Eta une hartan, nostalgia, malenkonia, tango begirada jarri zitzaion, nik nostalgia, malenkonia, tango begiradak eta *huevoada* haiek guztiak zer ziren oraindik ez banekien ere.

Orduan esan zuen sekula ahaztuko ez dudan esaldi hura. Aita batek bere semeari zer uzten dion oso ondo ez dakienean, bere ondare genetikoko eskasa eta bere maniak eta bere keinuak eta bere asma edo epilepsiarako aurredisposizioa, bere biblioteca uzten diete batzuei, ezertarako balio ez duen pasaporte maiztu bat, eta etxeak, eta lur-sail zabalak terratenienteek, edo zorrak, edo zenbait arazorekin gehiegi kezkatzeko desabantaila eta beste arazo batzuekin gutxiegi arduratzeko abantaila; edo bizitza filosofia bat, seme txikiak altzoan hartu eta moralaz hitz erdi bat edo beste esaten dieten guraso moralista haien kasuan, edo ofizio bat agian, pragmatikoenek; arotz saga erraldoiak badira, haiek euren gurasoengandik ikasi eta seme-alabei era-

kusten diete ogibidea belaunaldiz belaunaldi. Edo, beharbada, gaizki enfokatzan dugu kontu hau: guraso bat silueta bat baino ez da, eta seme-alabak dira gurasoek utzitako siluetan eta zuloetan sartzen direnak, ohartuta edo ohartu gabe, aurpegian gero eta aitaren antz handiagoa duela jabetzen den semeak aitaren silueta hartzen du ezarian-ezarian, halako traizio bat bezala bizi du patu saihetsezin hori, etsita murgiltzen da aitak utzitako uberan, haren erantzukizunak begietan lehertzen zaizkio hoteletako ispiluetan bere aurpegiari so egitean, ihes egin nahi duenean ere, aitak utzitako lorratzean eta mamuetan hartzen du semeak haragi azkenean. Ez dauka beste erremediorik.

Ez dakit.

Kontua da, niri aitak ez zidala ofiziorik erakutsi. Ez zidan bibliotekarik utzi. Bere hizketarako modua erabat baztertzen saiatu naiz urte luzetan, gazteleraz ere apenas mintzo naizen. Niri aitak une hura utzi zidan, batez ere: Luxenburgoko lorategiak *ederragotzearen* erokeria hura eta silueta bat, Sorbonnera begira biok Kanada-

ko baso elurtuei edo Erromako gladiadoreen borroka bati begira bageunde bezala.

Urte asko dira aita ikusi ez dudala. Eta gaur, egunkarian Julio Cortazarren hileta arratsaldean dela irakurri dudanean, Montparnasserako metroa hartu ez hartu nago: bizirik badago, aitak entierroan beharko du, Julioaren hilobiko porlan freskoaren gainean tango bat dantzatzuz.

### *La Sorbonne.*

Hor ikasiko duk egunen batean, seme.

Eta ni hantxe, ezer ulertu gabe, zinema aretora sartzen ari ziren ama-seme eta aita-alabei begira, inbidiaz eta hotzak amorratzen.

Zaldi karrerak zineman? Eramango haut nik igandean hipodromora, motel! Zaldiak hipodromoan ikusi behar dituk!

Eta batez ere, gero esan zuena, anti-ondare deklarazio hura, bere eskuekin landutako eltze eta ontziak, apurtuko zaizkion beldur, lehen aldiz bere eskuetatik aparte, labe batera sartzen dituen buztinlari hasiberriaren kezka aurpegi berberarekin esan zuen hura, ez hain hordi bat-batean, argi izpi bat begietan zuela, nire ama ez zen emakume bat piztu izan balitzaio bezala ni-

nietan, helburu garrantzitsu bati begira bezala: ea lortzen dugun zu ni bezalako ez izatea, Andre.

Ea lortzen dugun zu ni bezalako ez izatea. Ideia eder bezain ezinezkoak.

Noiz sartu nintzen ni aitaren siluetan? Noiz lotu nintzaion bere patetismoari eta zahartzeko habailari? Egun hartan, Cirque d'Hiver eta Le chien qui fume atzean utzi ondoren, beti bezala berandu etxeratzean, aitak axotaz besoan apuntatu zidan tinta azulezko flirt-telefono zenbakia amak xaboi-urarekin igurzten zidan bitartean, beharbada?

Metroan jaka kendu eta *clochard* bati eman diot. Gero, futbol atezainaren posturan jarri naiz, hankak zabalik eta enborra makur, eskuekin belaur gainetik prakei tira eginez, nire erronbodun galtzerdiak agerian uzteko batere beldurrik gabe oraingoan. Harrituta begiratzen digute metroko bidaiariek.

Botaidak jaka, mesedez! *Tirez!*

*La Sorbonne* parean genuela geratu ginen egun hartan aitak bere jaka airean jaurti eta besoetan hartu nueneko une hura berreskuratu

nahi dut. Jaka hutsa besarkatu nahi dut, mamu besarkada huts hura oroitu, aitag ama besarkatzean sentitzen omen zuena.

Jussieu geltokiaren parean metroko atea ireki direnean, *clochardak* hanka egin du korrika nire jaka eta guzti: besapean jaka den ustean daraman hori nire aitaren azken besarkada dela batere jakin gabe.

Luzea izango da negua. Luzeagoa are, neguaren barruan ezkututzen den negua.

# Batere valsik gabe amaituko da narrazio hau ere

Ez diegu keinuei duten garrantzia ematen. Akats larria, batzuetan, gure ondasun guztia keinu bat izan daitekeenean. Txakur txikirik ere ez. Hitz bat ere ez, keinu bat baino.

Zer, esango banizu, berak zugan utzi duen arrastoa ez dela esaldi gogoangarri bat, ez dela ibai ertzeko urak eguzkipean jarritako amuarrain baten bizkarrak bezala distira egiten zuen egunez emandako osteratxo burgesnahi ederra. Ez duela barre ez negarrik, ez portaera gaitzesgarri edo goresgarririk zugan pizten bere gomutak; zer, esango banizu, berak zugan utzi duen arrasto bakarra keinu bat dela. Gaur ere, urte asko pasa direnean, zuk jakin gabe egiten duzun berari ikasitako zerbait. Berarekiko sinpatiaz, beragana hurbiltzeagatik eta berarekin bat izateagatik nahi gabe lapurtu zenion keinu bat, konturatu gabe errepikatzen duzuna. Zuk jakin gabe be-



tikitzen duzun bere mugimendu single hori. Berak kutsatua eta zure bidez beste neskatila batzuek ikasiko dizutena, munduak bere izena galtzen duen egun hartarainoxe.

Agian hori besterik ez zara: desagertutako pertsona baten keinua katalizatzen duen hari eroalea, keinuen esentzia galdara batetik bestera daraman alanbikeko hodi mehea.

Ez naiz espantu heroikoez ari, ez eta historia-  
ren nondik norakoak aldatzen dituzten keinuez ere; ez dira enperadore erromatarrek hatz lodia goratuz edo beheratuz egiten zituzten haiek gogoan ditudanak.

Gauza bat segurua da: ez diegu keinuei duten garrantzia ematen. Ez dugu alditxarra pasarazi diogun hark azkazalei hozka egiteak duen traszendentzia ulertzen, ez dugu disgustua eman diogun neskatilaren begirada lurrerantz eroriaren ilusio suntsitua bere benetako neurrian atzematen.

Ez soilik herriko kale nagusiaren farolapean pasa den -eta lerro hau bukatzerako jada iluntasunean desagertu den- mozkoraren alderokako ibilera da amiltze eta erortze aukera gertagarri

baten zantzua. Ez soilik paperezko haizagailuari eragin eta lepoa panparroi gorantz begira duen nobleziako emakume adinean sartuaren indioi-lartasuna zaio bere morroiari mespretxuaren ikur, makurtu eta makurrarazleen arteko abezedario gestual bateko ikur. Ez soilik oinez ikasi berri duen umeari eskua eta magalak eskaintzen dizkion amaren irribarre hori zaio definitibo; ez da suminduraz beteta egurrezko mahaia kolpatu eta mahai gaineko botila eta tabernaren erroak nahiz tabernariaren ahots kordak tenk jartzen dituen esku zarta nabarmenegi horren kontua bakarrik. Ekar ditzagun kantara eta paragrafora haurtzaroan lo egin genuen ohe hark utzi digun saihetseko mina eskuaz igurtzi eta arintzeko keina, maite genuen neska geureganatzearen imintzio burlatiak egiten genituenetik geratu zai- gun sorbalda mugimendu airos eta dantzaria- narrazio honek dantza bat, vals bat, parke zabal eta hutsetan dantzatutako partitura bat behar du izan barruan, zerbaiterako balioko badu, gogorarazi iezadazu hori mesedez amaitu orduko dantzarik ez badut lerrootara ekarri-.

Hau keinu baten istorioa baita. Keinu hautatu, ikasi, inkontziente, nahigabeko, guratako, ondoan jartzen zaizkion izenondo guztiak ukatzen dituen keinu baten istorioa.

Kanela usaina zegoen kalean. Ez kanela-hautsarena, kanela adarrarena baizik. Ezberdina da.

Oso ezberdina.

Kanela-hautsak bertan goxo geratzeko gonbidapena dakar, haizeak hauts horiek barreiatzeko aukera, eta hauts horiek sudur-mintzetan barrera sartzeko arriskua. Kanela-hautsak beste hauts mota batzuk, beste hondar batzuk, oihal zatiak bezala harrotu eta desplazatzen diren basamortuetako axal belo sotilak ekartzen ditu gogora. Kanela adarraren usainak ez.

Kanela adarrak tentsioa ekartzen du gogora, zubiak, lana egiteko prest diren gihar tenteak, igandero negurako txotxak biltzen dituen haurra, konpondu gabeko -eta ondorioz, oraindik izorratu gabeko- asuntoak. Tenk dauden gauzak, lehorregi eta idorregi akaso bai, zurrun bai, baina hala ere bizirik.

Turkiatik ekarritako esentzia eta usainak zituena *épicerie* haren errua izango zen akaso, baina kanela usaina zegoen Chocimska karrikan. Horrela hasi behar nuke nolabait hastekotan, istorio hau kontatzeak merezi duela deliberatu dudanez gero.

Chocimska karrikan bazen beti *Kurier Warszawski* egunkaria saltzen zuen mutiko bat kantoiari jarrita; Minkiewiczek sonbrailu-denda bat zeukan, Kotkowskik okindegia zeukan, eta gero, gero *épicerie* turkiarra, eta geroago, begiak ixten zenituen eta ez zegoen jakiterik zer beste saltoki eta ze beste atari geratzen ziren kalearen amaieran. Nik bederen, nire agurrak hiru horien-gana mugatzen nituen, bere izena ere ez nekien *Kurier* saltzaileari prentsa erosi, sastre-lokarria lepoaren inguruan zuen Minkiewicz jostun txalekoduna urrunetik agurtu eta Kotkowski andreari bere alaba bihurriei buruz galdetzera.

Kanela adarraren zurruntasun bera zuen kale hartan barrena ikusi nuen lehen aldiz. Gurutzatu ginenean hari estekatuta geratu zitzaidan soa. Presaka zihoan, sonbrailuari esku batekin helduz. Ez nuen bere aurpegia nire soaren bridatik

askatu. Haren begirada harrapatzen saiatu nintzen, ea laztana, ea, begiratu hona, egidazu oparitxo hori eta gaur zoriontsu izango naiz. Amua ikusi zuten haren niniek, eta lepoa niganantz jiratu beharrean, bere eskuinerantz jiratu zuen parean fortunatu zitzaion Kotkowski okindegiko opilei begira geratuz. Keinu hori hautatu zuen. Baina gutxi falta izan zitzaion. Amua amu zela konturatu izan ez balitz, nirea izango zen une hartantxe.

Askotan gurutzatu ginen geroztik. Nik disimulurik gabe begiratzen nion, oinez ibiltzeari utzi gabe soaren elipse osoan, lepoa ezkerretera jiratu kalean gora, espaloitik nindoala, ezkerretera eta ezkerreterago, harik eta nire atzean nuena begi ertzarekin ere ikusterik izan ez eta berriro ere aurrera begiratu beste aukerarik ez nuen arte. Ze lastima, burua hirurehun eta hirurogei gradutan ezin biratu izana, pentsatzen nuen halakoetan, nire begien ahalmen urria laburretsita. Eta nik nirea ezkerretera jiratu orduko, berak, kalean behera zetorrenak, eskuinera bere lepoa, parean fortunatzen zitzaiona Kotkowskiren okindegi, Minkiewiczzen sonbrailu-denda edo zena ze-

lakoa izanik ere, erakusleihen hartan bere burua eta nire isla ez, baizik eta sonbrailuak eta opilak begiratuko balitu bezala. Nik hori sinestea nahi, gajo hark.

Zenbat egunetan ez ote zen errepikatuko lepoen joko hura. Ezkerrera nire begirada bere xerka kalean gora, amutik ihes eskumako erakusleihora beti berea, kalean behera.

Hiru bat hilabeteren buruan, inguratu egin nintzaion: sonbrailu-dendako erakusleihoari begira suertatu zen egun hartan.

Kanelazkoak egiten ditizten Minkiewiczenean kapeluak, ez zain iruditzen?

Bere soak osoki kosk egin zion estreinakoz nire begiradaren amuari. Ez ulertuarena egin ere ez zuen egin. Kanelarena *épicerie* turkiarretik etorritako kontua zela esan ere ez zuen esan. Soa eman zidan opari, kanela-adarraren usainean doi bildua.

Alma izena zuen eta atrilista aritzen zen Operan. Piano-jotzaileari partiturak pasatzen zizkion, honek eskuak tekletatik altxa beharrik izan ez

zezan. Ez zidan erantzun hori ofizio bat ote zen galdetu nionean. Gainera, barregarriagoa iruditu zitzaion nirea, idazle izan nahi nuela, alegia. Ea zer uste nuen, idazle izateko Adria kabaretean horditu eta Zodiac kafetxean kafea hartzea aski zela pentsatzen ote nuen. Kontua da, egun hartatik aurrera elkarrekin ibiltzen hasi ginela Vistula ertzean, eta nire lepoak ezkerretara jiratuz jarraitu zuela berari begiratzeko -nire ezkerrean oinez ibiltzea gustatzen zitzaion, mania hura zeukan- eta bere lepoak eskumara jiratzen jarraitzen bazuen ere, oraingoan ez zuen kanelazko kapeluetara edo Panama estiloko opiletara begiratzeko egiten, bera ere nigana jiratzen baitzen jada; ni jarri nintzen bere eskuin aldean, sonbrailu-denda eta opilen ordezkoko bihurtu nintzaion, kalearen zokorik ilunenera ailegatutakotan bere muxuak jasotzen zituen sonbrailu ibiltari neroni -badakit ez nukeela sekula hain samur jarri behar, baina maiteminduta nengoen, zer egingo zaio-.

Bere keinua berbera zela alegia, baina oraingoan, niri begiratzeko jiratzen zen. Norantza berean gindoazen biok oinez.

Varsoviatik landa aldera aldendu ginen igande batez, zelai batean askaria egiteko asmotan. Mantela belarretan zabaldu orduko koska mugikor batzuk sumatu genituen belar umelean, oihalaren azpian bihurri. Barraskilo mukitsuak.

Haien oskoletako espiralen ederrari begira gozatu ginen. Gero, bere hatz zuri luzeak -atrilita batenak ziren, hura ofizio izan edo ez- igurtzi zituen elkarren kontra, barraskiloek utzitako muki likitsagatik ez balitz kriskitin egingo luke ten eran. Sudurrera eraman zituen hatzak, lingir da hura usaintzeko. Nazka aurpegia jarri zuen eta niri ezinegona gehitu zitzaidan, prakak estuegi sentitu nituen gerrian.

Operako entseiu gelara eraman ninduen hurrena, bera nire begietara are desiragarriago egiten zuen ausarkeria ezusteko batez. Zurezko atrilen bat erori zen lurrera elkar biluzten genuelarik. Eskua nire galtzen erdiko patrikan sartu orduko itsutu zitzaidan garuna; aise igarri zuen berak, nire hasperen txiliotxo entzun eta bere alkandoraren eskumuturra heze sumatzean.



Heze eta bero bere eskumuturreko azala ere: izan ere, soineko hura hain zen arin, paperezkoa baitzirudien. Irribarre egin zidan, gozo.

Barraskiloak baino azkarragoa haiz.

Gero hatzak eraman zituen sudur-mintzeta-  
ra, eta hazia jakinminez usaindu zuelarik, irriba-  
rre egin zuen, hatzak hazi likitsagatik ez balitz  
kriskitin egingo luketen eran igurtziz.

Keinu bat besterik ez, gogoratzekoa.

Idazle izateko ametsak ahaztu ez banituen ere, bulegari hasi nintzen aroztegi handi bateko bu-  
roan.

Almari nire lehen ipuina erakutsi nionean, bihurriegi iritzi zion eta bera dantzara sekula ez eraman izana leporatu zidan. Bazuen gai batetik bestera jauzi egiteko gaitasun hura, orrialdea ziztuan pasatzekoa. Egin kontu horretan lan egi-  
ten zuela: partitura orriak dotore pasatzen.

Urteberri egunean, esan nion. Dantzatzen ez nekiela otu zitzaidan orduan, nire lehen ipuina etxeko sukaldeko beheko suari ematen nion bi-  
tarteetan.

Ipuinen eta ipuin ahaleginen koadernoan erretzen ari zela, ama sartu zen sukaldera.

Amak: Zer ari haiz erretzen?

Nik, nire kabutarako: lastoa. Beste zerbait esan nuen, baina.

Dantzan erakutsiko didazu, ama?

Amak eginahalak egin zituen, baina ez zuen ezertarako balio izan: etxeko sukaldean dantza egitea eta Urteberri egunean Zodiac kafetegian dantza egitea ez ziren gauza bera. Elkarren kontrako bi dantza mota zirela ere esango nuke, pentsa.

Almak gehiago mugitu behar genuela esaten zidan, eta ni ez nintzen sukaldeko neurrietatik haratago mugitzen, espazio aski libre izan arren Zodiac kafetegiko pista erraldoian. Sukaldeko dantzaria esaten zaion hori nintzen ni, ez inolaz ere saloikoa.

## Bulegoan nagusia genuen alu samarra.

Aparteko gela bat zuen beretzat, baina gainerako hirurok (kontuak eramaten zituen Slowacki gizon nagusia, askotariko mandatuak egi-

ten zituen Jozef gaztea, nire kidakoa zena, eta ni neu) lan egiten genuen gelatxoan uzten zuen beti hark bere jaka, horretarako propio jarritako pertxero bat zuen eta. Bere bulegoan sobera leku zuen nahi izanez gero zutikako gakoa bertan jartzeko, baina ez: gurean jarri zuen pertxero hura, eta jaka ere, hantxe zintzilikatzen zuen. Geroago ohartu nintzenez, pertxero hura lurralde konkistatu berrian jarritako masta bat zen: masta hartan jarritako jaka zen bere bandera. Hartara, edozein unetan sartzen zen gurera nagusia, gure lanerako martxa eta gure aldartea zelatatu eta berak agindutakoak artez eta zuzen betetzen ari ote ginen ikuskatzera.

Barruan al da? galdetzen zuen bere hirurogeietan sartuta egonagatik oraindik nagusiari beldur zion Slowacki jaunak, berandu iristen zenetan, ahapeka.

Harrigarria ere bazen Slowacki jaunak nagusiari zion beldurra. Haller jeneralarekin ibilia zen 1919an, Errusiako boltxebikeen kontra borrokan, baina halaxe zen: izua zion. Gerran kondekortua izan zen, baina horrek ez zion inoren errespetua merezi izan. Ez zion dominak nagusiari

aurre egiteko kemenik ere eman. Gerran bizirau-  
teko gai izateak, ez du esan nahi derrigor gerra-  
tik kanpo bizirauteko gaitasuna duzunik.

Baina pertxeroaz ari nintzen.

Izan ere, ez baitzen beharrezkoa nagusia gu-  
rean izatea ere. Bere jaka gogaikarri hark ezin  
hobeto ordezkatzan zuen haren presentzia. Zuti-  
kako pertxeroa boterearen sinbolo zen, azkar  
eta tentuz lan egiteko oroi-zentzagarri bat. Or-  
duan arrastorik ez banuen ere, handik eta urte-  
beteko epean uste baino pertxero gehiago eza-  
gutu behar nituen.

Slowacki jaunak gerrari buruz esandakoak  
neuzkan gogoan.

Gerra, bolbora eta legamia nahasten ziren  
lekua zela esaten zuen. Kartzelak bihitegi eta  
bihitegiak kartzela bihurtzen ziren garaia.

Bolboraren zain geundela, hogei zaku bidali  
zizkigutean behin. Zakuak ireki eta kanoiak kar-  
gatzen hasi orduko ohartu gintuan legamia zela  
hura, okerreko kargamendua bidali zigutela.

Gure bolbora okindegi industrial batera bidalia izango zitean, hala pentsatu genian.

Orduan nagusia sartu zen bere jaka luzea pertxeroan zintzilikatzera. Slowackik gerrari buruz hitz egiteari utzi eta kontaduria koadernoan ireki zuen, zenbaki zerrendak hatz erakusleaz errepasatzen hasiz.

Alemaniak Polonia inbaditu zuela jakin genuenean, punta zorrotzeko pertxero bat sartu ziguten bihotzaren erdian, eta Alemaniak, bertan zintzilik jarri zizkigun bere kapelua eta gabardina beltza.

Etixeratzean, leiho ondoan topatu nuen ama, negarrez, gutun bat eskuetan zuela.

Ez zegoen argiegia izan beharrik gutun hark zer zioen jakiteko.

Ai, seme, seme!

Ez zioen hori gutunak, jakina.

Nagusiak, aberriak nire premia omen zuelako lanetik libre geratu nintzen egunean, gutunazal bat eman zidan, diruz beteta.

Poloniak behar zaitu. Zorte on, seme, esan zidan.

Pertxeroak ere badu bihotzik, pentsatu nuen. Ez nuen hori usteko amak nagusiaren gutunazalazabaldu zuenean esan zuena garaiz jakin izan banu, ez horixe.

Hilkutxaren prezioa dago hemen, justu! Ai, seme, seme!

Slowacki jaunak ere esan zidan zerbait: hain zaharra ez banintz.

Hori, besterik ez. Hain zaharra ez banintz. Gero hatza eraman zuen begi ertzera, hainbeste kontaduria egin zituen hatz punta belztu hura behingoagatik malkoen tintontzian bustitzeko esperantzan. Ez zuen lortu, eta begiek bere barne tristuraren maila ematen ez zutelako areago atsekabetu zen. Hatz lehorrari begira geratu zen, tarte luzez, hatz erakuslean amu bat sartu zaion arrantzalearen bisajearekin, minduta baino gehiago, lotsatuta.

Jozefek ez zuen ezer esan. Bart gauaz geroztik falta zen bere etxetik.

Azti ibili zen Jozefen ama: udaletxera jaitsi zen goizean goiz, soldaduak bere semearen bila joan zitezene baino lehen etxetik falta zela eta non zegoen ez zekiela gaztigatzera.

Udaletxeko idazkariak, problemak, beti problemak, marmarka, soldaduen erroldaz arduratzen zen sarjentuari pasa zion abisua.

Ondo dakizu zuk non den zure semea!

Esan ez dizut bada ezetz! Etxean denok gaude kezkatuta!

Ez zen Jozef armadarako adinean egonik etxetik falta zen bakarra, ezta hurrik eman ere.

Errukiturik, aulki bat eskaini zion udaletxeko idazkariak Jozefen amari.

Desertzioa gogor zigortuta dago, andrea. Bazenekien?

Herritik kilometro gutxira atzeman zuten Jozef, zaldiz tiratutako gurdi batean ezkutatuta, esne marmitaz inguratuta.

Simaur gurdi batean ezkutatu izan balitz ez zuten berehala harrapatuko, esan zidan amak.

Ni hala nago, simaurrez leporaino. Eta hala ere harrapatu naute.

Negarrez hasi zen osterera ere ama.

Ez nuen Alma agurtu nahi, baina bera etorri zitzaidan geltokira.

Laster izango gara elkarrekin, laztana.

Bai, zizpuru batean nik, federik gabe.

Kanela adar bat oparitu zidan.

Kapeluan jartzeko.

Edo belarrian, arotzek arkatza bezala, ezta?

Bai, hori. Belarrian.

Listu kolpea sentitu nuen eztarrian. Trena txistuka hasi zen. Almak trenari jarraitu zion, aterki zuri batekin -hau gezurra da, ez zeraman aterki zuririk, baina ze polita zatekeen horrela gertatu izan balitz- lepoa trenerantz, eskuine-rantz jiratuta, nasa oinetan amildegi bihurtu zitzaien arte.

Egunero idatziko dizut!

Zuek erretagoardia zarete, egon lasai!, adoretu gintuzten lehen egunean. Erretagoardia zena aste gutxiren buruan bihurtu zen, ordea, lehen lerro. Xakean txarrak izan, gure jeneralak. Zor-



tea izan nuen, ordea: pneumonia latz samar bat harrapatu izana. Sendatu eta berehala ihes egin nuen ospitaletik. Ihes eginda nengoen bitartean, gutun trukaketa sarria izan genuen Almak eta biok. Nire burua plazeraren atakaraino neronek itsutuarazi behar nuelarik, hazi likitsa hatzekin bildu eta sudurrera eramaten nuen berak behin egin zuenez, kriskitin-keinu hark Almaren gomuta piztuko zidalakoan. Urtebeteren ostean elkartu ginen berriz.

Zerbait esan behar dizut. Beste norbait ezagutu dut.

Alemaniar bat. Nahi banuen emango genuela paseo bat. Paseo bat. Zer balio du paseo batek alemaniar baten ondoan? Jarri elkarren parean, jarri balantza batean: alemaniarra, paseoa. Egiten du balantzarik akaso? Trabarik jartzen du? Zalantzarik egiten du menturaz balantzak? Durduzaz egiten al du batere? Bai zera! Aise irabazten du alemaniarrek: alemaniarren pisua beharantz jausten da, berun, eta paseoaren plater-txoak gorantz egiten du, galtzaile. Gorantz egiten du eta hala ere galtzaile da paseoa: justizia poetiko suerte bat. Deusetarako balio ez duen

justizia ziztrin hori, intelektual beso erkinek asmatua, neska-lagunak lapurtu zizkieten marinel beso-tatuatu sendoekiko euren herra erredimitzeko. Justizia poetikoa, hala deitzen diote.

Paseo bat gutxi zela: asteburu bat eskatunon. Alemaniar baten ondoan, asteburu bat ere ez zen gauza handia. Baina paseo bat baino gehiago bazen, gutxienez.

Gerra ez da amaitu... Nora joango gara? Ezin-go dugu Varsoviatik atera.

Nik aukeratuko nuela nora. Deuseztatutako leku batera joango ginen. «Nire bihotzaren hondora» esan nezakeen, baina hain melenga ere ez nintzen.

Zaude lasai, ez gaitu inork ikusiko.

Alemaniarrek interes urrikoa zelako baztertu zuten harrobi baten ingurura eramaneuen, bizikletaz. Zerbaiteko balio behar du barraskiloen bideak ezagutzeak, esaneon. Baina berak ez zidan erantzun. Ez zuen irribarrerik egin. Maitasunaren esperantza konplizitatean hasten den jakitun, ez zidan konplizitaterik oparitu nahi. Agian ez zen barraskiloekin gogoratu ere egiten, edo ez gogoratzen saiatzen zen.

Eta hala ere, maite ninduela esan zidan larrutan egin ondoren. Azken aldia izango zela esan zidan bezalaxe. Baina ez zen azken aldia izan. Geroxeago berriro piztu zitzaigun grina eta berriro egin genuen larrutan.

Varsoviara itzuli behar dut.

Zer esan diozu berari?

Hansi?

Izorratu beharra zagok: Hans, pentsatu nuen, gainera izen hori izan behar zuen. Hemendik aurrera Hans izeneko denak gorrotatu beharko al ditut? Berdin emazte-lapur alemaniar edo hari-laukote konpositore trebeak izan? Berdin kafe-txeetako zerbitzari edo etxeko horma pintatzaile noble Hans izena izatearen bekatua soilik zutenak gorrotatu behar al nituen?

Gaixorik dudan izeko bat bisitatu behar nuela esan diot.

Gaixorik dauden izekoak. Horiek paseoak eta asteburuak baino gehiago balio dute! Horiek, are, alemaniarrek baino gehiago balio dute. Izeko Ezezagunari egindako monumentua gaur inauguratzen dugu eta kar-kar, errezela neronek

kendu behar nioke marmol zati horri, pentsatu nuen, idazle batek bezala, gero eta gehiago.

Bizikleta hartu eta hirirantz itzultzeko ordua zen. Zubi txikitu baten parera heldu ginelarik, bizikletatik jaitsarazi nuen. Gero, bizikleta hartu eta ibaira bota nuen. Bizikleta, erran nahi baita.

Baina... Zer ari zara!

Ez gaude urruti, oinez joango gara, trenbidearen ondotik. Txikitan ez zinen inoiz jolasten, trenbideko errailen gainean oinez?

Ez.

Gogoratuko zara behintzat, nola etorri zinen estaziora ni agurtzera, frontera abiatu nintzeanean, aterki zuri batekin?

Ze aterki zuri?

Hitz egiteko era bat zen, neska.

Denbora irabazi nahi nuen. Poliki eta oinez dastatu berarekin pasako nuen une bakoitza. Azken une bakoitza. Unibertsoaren eskala nire aldera ekartzeko era bat zen bizikleta ibaira botatzea. Denbora moteldu nahi nuen, nire eskue-tara ekarri.

Almak asteburu osoan ireki ere egin ez zuen poltsatxo bat zekarren aldean. Pentsatu nuen:

hor zekartzak honek Varsoviara heldu orduko jantziko dituen arropak, barraskilo usainik gabe-ko arropa birjina eta aratzak. Nik uste bezain argia bada, litekeena da poltsa horretan bere balizko izekok oparitutako zerbait ere izatea, itzuleran bere alemaniarrari zintzo erakutsiko dion oparia.

Hara, Hans maitea, hara, zer eman digun izekok gure etxerako! Lore koloretsuz ornatutako zeramikazko kutxatxo bat!

Zer daukazu poltsa horretan?, galdetu nion. Ez zidan erantzun.

Isiltasuna ere erantzun bat da, pentsatu nuen.

Isiltasuna ez da erantzun bat, esan nion. Isilik jarraitu zuen.

Isilik abiatu ginen, elkarren ondoan, trenbide mortuan barrena oinez. Aurreratu egin nintzen ni geroxeago, bera nire ondora etorriko zelakoan. Baina ez zen inguratu. Atzetik jarraitu zidan oinez. Horrek mindu egin ninduen. Ibai ondoan oinez ibiltzen ginenean bezala, nire ondoan nahi nuen bera, azken aldiz.

Jakin behar genuen, orduan, gerra garaian, haiek nahi duten eran eta orduan ibiltzen direla trenak, baina ez genekien. Bera Hans izeneko alemaniar batekin ezkontzear egonagatik, nik gudarostea mihiaren puntaz dastatu izanagatik, ume hankagorri batzuk besterik ez ginen.

Laburbilduz: egunsentia urratu gabe, eta barruak urratuta gu, elkarri segika. Ni aurretik, bera atzetik, trenbidearen ertz-ertzetik oinez. Ez zen nire parera etorri, ez ziok amuari berriz helduko, pentsatu nuen.

Despedida eguna zen eta bagenekien.

Trenaren txistua entzun genuenean, denbora justua izan genuen trenbidetik apartatzeko. Mugimendu erreflexu batez, kanela adarraren kaleko hartan bezala, ezkerrerantz jiratu nuen burua atzera begiratzeko, Almaren bila.

Berak, eskumarantz begiratu zuen, ordea, trena atzean sumatzean. Batek daki zergatik. Kontua da beti hala egiten zuela ezagutu nuen egunetik. Nire kontrako bidetik etorri eta lotsatuta kanelazko kapeluen bila, hasiera hartan bezala herabe, edo, arratseko muxuen bila, Vistula ertzean elkarrekin oinez ibiltzen hasi ginen har-

tan, edo azken aldiz, frontera eramán ninduen trena abiatu eta ni agurtu ninduenean ere, eskuinerantz jiratzen zuen berak lepoa beti.

Lepoa ezkerredera edo eskuinera jiratze horrek salbatu zuen nire bizitza eta kondenatu zuen berea.

Gaur ere, Parisko deserri honetan, Sena ertzean paseatzen naizelarik -ibaiko urak kontso-lagarri dira exiliatuentzat, ibaiko ur horiek, zapaltzen dudán lurra ez bezala, ezin baitira izan euren mugikortasun lasaigarrian sekula deserri- ezagunen batek diosal egin eta burua ezkerre-rantz jiratzen dudanetan, hozkirri sarkor bat sentitzen dut eskuin belarriaren paretik pasatzen, aitzo bat bezala.

Bera da, pentsatzen dut. Mezu bat da, pentsatzen dut. Eta barkatzen diot nire buruari ergelkeria; ergelkeria, inozokeria eta memelokeria gauza humanoak direlako, eta beren humanoan barkagarri.

Almak zeraman poltsak bere tripak irauli zitu- en trenbide ondoan: nik frontetik bidalitako gutunak ziren. Inoiz ez dut jakin zertarako ekarri

zituen, zer gibelasmo zuen gutun sorta harentzat.

Tren gidaria ez zen ohartu ere egingo kolpeak trenbidetik urrundu eta aurpegia odoletan zetzan emakume bat zeharka jo zuenik. Hori, trenak makinistarik zuen kasuan: arimarik gabeko jendea dagoen era berean, bai baitaude makinistarik gabeko trenak ere. Barruan zuten makinista aspaldi deabruari saldu zioten trenak.

Eguraldia hezea zen, barraskiloak aterako ziren gero zirrikitu guztietatik, haien espiralak bizkarrean zituztela, ideia, burutazio, iluminazio, estrategia, sentimendu on gehienak bezala, beranduegi, herriaren azken aurrien eta habe kixkalien lekukotza emateko aukera besterik ez zegoenean.

Ez nuen bere gorpu hila besarkatzeko adorerik izan.

Karrika bat, bizitza bat edo gehiago, kanela adar bat bezala hautsirik.

Lurrean belauniko, lokatzarekin nahastutako trenbide ertzeko txotxak hartu nituen amorruez, kanela adarren ahalik eta antzekoenak ziren txotx hezeak, eta hatz artean puskatu eta zirtzil-



du nituen, eta ahora eramán nituen adar puskak, lokatzak eta txotxek nire oihua sabelerantz ito zezaten.

Mundua irentsi nahi ote nuen eta nire bistatik desagerrarazi? Auskalo. Gramatika eta kontagintza ez dira sekula desesperazioa azaltzeko lain izan.

Ez dakit zenbat denboraz ibili nintzen alde-rrai, basoan galduta, ikusten ez nituen frankotiratzaileei tiroka nintzatela oihuka erregutuz. Ez nuen zorterik izan. Edo zorte handia izan nuen, beharbada. Hirira iritsi aurretik, bonbek txikitutako tren-etxolako beheko solairuan, zutikako pertxero bat ikusi nuen gabardina bat eta kape- lu bat zintzilik zituena. Zirrara eragin zidan irudi hark: horma erorien artean, gabardinak ukigabe zirauen, estazioburua iristear balego bezala.

Geltoki ttipirantz abiatu nintzelarik, zakur batek zaunka egin zidan, arrazoiarekin edo arrazoirik gabe.

Lau kolpekoa zen bera zaunka.

*Ge-rran, gau-dek! Ge-rran, gau-dek!*, aldarrikatuko balu bezala.

Burua astintzen zuen zakurrak, batera eta bestera, ezker eta eskuin, pasio animal berberaz alde bietara. Edo pasio gabezia animal berberaz, esan behar nuke, agian, kanelaren kaleez eta erakusleihoez, kapeluez eta aterki zuriez deus ez dakienaren gihar atabismoarekin baino ez zuen-eta zakur madarikatu hark zaunka egiten.

*Ge-rran, gau-dek! Ge-rran, gau-dek!*

Bazekiat, ergela, bazekiat! Hago isilik!

Bete-betean gutxiengatik harrapatu ez zuen trenbide ertzeko harri koskor bat bota nion animalia erkinari, eta zerbait ulertu izan balu bezala, isildu egin zen zakurra. Harriagatik edo nire negar lanturuengatik, ez jakin.

Pertxeroari so egin nion berriro: kapeluak biseran zuen kordel gorriari lehenbizi, galoidun gabardina azulmarinoari eta honen patrikatik zintzilik zegoen txilibitu zilarrezatuari gero.

Pentsatu nuen, objektuena, gauza ahaztu eta gauza galduena duk mundu hau, eta ez, ordura arte nire izaera sasi-humanistak pentsatzera behartu ninduen bezala, gizon eta emakumeen bizilekua.

Zakurra zaunkaka hasi zen berriro. Burua lehertzeaz neukan.

Pertxeroan zintzilikatutako gabardinaren besoarekin xukatu nituen malkoak. Zaunka gero eta ozen eta biziagoz jarraitzen zuen zakurrak. Estazioburuaren txilibitua hartu eta txistu egin nuen indar biziz.

Txistu desafinatu bat atera zitzaidan. Ez zen atrilistarik etorri estazioko horma apurtuaren orrialde zuri tarratatua pasatzera.

Baina zakurra derrepentean isildu zen.

Trenbidean oinez jarraitu nuelarik, atzetik etorri zitzaidan zakurra, otzan eta esaneko, nik ondo ulertzen ez nuen eta berak -nonbait- argi zekien zerbaitek nigana lotuko bailuen.

Ez dakit zenbat denbora egin nuen oinez. Zapatak zingira eginda, galtzerdiak lokaztuta iritsi nintzen mugara. Mugako kartela han bazegoen ere, ez zen inor ageri, ezinezkoa zen muga hura benetan ezereen muga ote zen ala ez jakitea. Nori galdetu. Zeri galdetu.

Zakurra eta biok elkarri begira geratu ginen, noraezean. Ante marroiaren kolore argia zuen pixtia errukarriak.

Mendebalderantz jarraituko diagu, Kanela.

Azken buruan, pentsatu nuen, hark ere mereziko zuen bada izen bat, ezta?

Oinez jarraitu ahala, ehiza-hegazkinek birrindutako herrixka mortu bateko kale nagusian barrena, kanelaren kaleaz hasi nintzaion zakurrari mintzatzen.

Kanela usaina zegoan kalean. Ez kanela-hautsarena, kanela adarrarena baizik. Ezberdina duk, bahekien? Oso ezberdina.

Ez nuke esango zakurra alegera ez zegoenik, ez nuke esango hark ere, bataio berriaren graziaz, nik deskribatzen nizkion okin, sonbrailu saltzaile eta kalean barrena zihoazen gainerakoei, nire hitzekin eraiki berri nituen mamu haiei, diosal egiten ez zienik. Jauzi eta zaunka akonpasatu alaien bozkario hura nola interpretatu behar nuen, bestela? Nik bisagretatik askatzear zeuden ate eta leiho erorien heldulekuei ematen nien eskua, eskonbroen atariko ate-leihoak bizerik baleude bezala besarkatzen nituen, atexka apurtuak agurtzen nituen, muin ematen nien alderoka eroritako habe kixkalei. Eskuleku, eskonbro, habe birrinduei mintzatzen nintzaion, jende-

tasunez. Lastima estazioburuaren kapelua ez ekarri izana merezi zuen jendearen aurrean sonbrailua edukazioz kentzeko. Zer moduz Minkiewicz jauna?, galdetu nion kristal puska hautsi batean ikusi nuen neronen isla zahartuari, bai eguraldi ederra zure erreumarentzat, ekatzu *Kurier* bat gazte... Etxean denak ondo Kotkowski? Tira, txikiena ere ezkondu zaizula beraz, opilik behintzat ez da zuenean faltako! Edo, sentituago mintzatuz, eskua ate-sagar behiala doratuan jarri nuelarik: kanelazkoak egiten ditizten Minkiewiczenean sonbrailuak, ez zain iruditzen?

Baikor eta energia zoro baten menpe nintzen, hala banintzen. Hotzaren eta beldurraren eraginez dardarka zarenean, oihu egin behar duzu, sastakaiaz leihora aterarazi zugar bizi den jainko zarrastel barru-nagi bezain barre-eragile hori. Atera hadi leihora, frankotiratzaileei egiek desafio, egintzak barre haien lepotik eta egin dezatela hitaz ere barre! Ez ditiagu predikatzaileak behar, bufoiak baino! Bufoiak!

Eta hori guztiori esaten nielarik, burua tente neukan artean, eta lepoa, begiraden amua zuzentzen zuen nire lepo-kanabera maitea, jende-

tasunik batere galdu gabe, aldiro kasu egiten nion jendeari buruz zuzentzen nuen, nire herriko lege zaharrak agintzen duen berrogeita bost graduko inklinazio prestu eta eskuzabal horrekin, lagun hurkoari edozertan laguntzeko prest gaudela adieraziz horrela.

Mamu-herri osoari zorte ona opa izan eta jendea desio onen kariaz agurtu nuelarik, zakurrak han jarraitzen zuen, nire ondoan, mihia ahotik zintzilik eta begiradan distira, balizko erroten kontra borrokatzen lagundu ziolako bere nagusiak intsula bat oparitu zion eskudero haren istorioaren berri balu bezala.

Zer oparitu behar diat nik hiri, ordea?

Aldendu egin behar nuen handik, lehenbailehen. Korrika abiatu nintzen, oinen pean kraskatako desatsegin bat sentituz, ahoan barraskilo oskolak murtxikatu eta haginak barraskilo oskol papurtuekin nahasten zaizkionaren zarata hozkiri eragile bat, ahoan ez baizik eta oinen pean sentitzen nuen basoaren zarata. Zer zen ba inpotentzia, orpoen orde, hankapean ezpainak jositak zituzten ahoak izatearen inpresio hura ez bazen? Amorrua gainera kentzeko hankapetik

ere oihu egin nahi eta ezina, aire tragaderak faltan izate hura.

Ez zuen elurrik egin nahi, baina elur zerua zegoen, eta nahikoa zen hori ehiza hegazkinak aiera ez zitezen.

Korrika jarraitu nuen, nire desesperazioak marrazten zuen vals trakets eta patetiko haren keinuak ezabatzeko mila urte beharko nituen jakitun, adar hautsiak besterik ez ziren eztarriak zapalduz jarraitu nuen korrika, lepoa zuzen, batera atzera begiratu gabe.

# Bueltako ogia

Parisen daramatzat egun batzuk. Egunkaria eta ogia beti leku berean erosten dituenen hasten da norbera leku horretara egokitzen, bertako sentitzen. Idazleok eta jende desokupatuak horrela fitxatzen dugu egunero gure bulegoan, gure faktoria imajinarioan: *baguette* bat eta *Le Monde* erosiz. Ohean eguerdira arte lokartu eta ogirik eta egunkaririk erosten ez dugun eguna, egun alferrik galdua da. Kontzientzian alferkeriaren erru zama uzten duen eguna. Egia esan, baditut nire zalantzak egunkariaren eta ogiaren kontu hau belaunaldi gazteengana iritsi ez den ohitura zaharkitu bat ez ote den, baina tira, gurasoek igandeetan jarri ziguten zeregin honi fidel atxikitzen gatzaizkio gu behintzat. Interneten titularrak irakurtzearekin konformatzen denak ez daki zer galtzen duen: goizeko lanbroak hezetutako egunkaria hatzetan sentitu eta ogi egin berriak tinta beltzarekin nahasian sortzen duen usainak, nikotinak adina adikzio sortzen duenak, ez dauka preziorik. Ongi zapaldutako orrialdeak



irekitzen joatea paisajeak estreinatzeko era bat da, paisaje hauek desolatuak izan arren. Zer egingo gara, lotsatu? Azken erromantikoak izatea tokatu zaigu.

Kontua da -erromantizismoaz ari garela, to, auzo oso bat erromantizismoaren flotazio lerroaren kontra- Pigallen bizi naizela orain eta maldan gora egin behar dudala egunero ogia erosteko. Kioskoa topatzeko ez daukat arazorik, baina okindegia ez dut sekula aurkitzen. Arretaz begiratzen dut bidean, ezker-eskuin, baina ez dago modurik. Aldaparen bukaeraraino igo eta deus ez. Aldiz, kale berberean, maldan behera jaisten naizenean topatzen dut beti okindegia. Esango didazue kaleak berdinak direla joaneran eta etorreran, gure begiari zerbaitek ihes egiten diola akaso, baina kalea ez dela aldatzen. Bada nik diotsuet ezetz. Hamaika aldiz saiatu naizela gorako bidean ogia erosten.

Alferrik: okindegi hau maldan behera soilik existitzen da.

Fenomeno honek gauza asko azalduko lituzkeelakoan nago. Gure arteko konfusio, gaizkiu-lertu eta ezinikusi askoren funtsa horretantxe

datza: maldan gora bilatzen dugu irtenbidea, maldan gora itxaroten diogu hitzordura agertu ez den lagunari, maldan gora nahi dugu ogia, baina bilatzen dugun okindegia, bueltako bidean bakarrik dago.

Koadernoan apuntatu dut bueltako ogiari buruzko nire gogoeta. Ez dago norbere kezka eta pentsamenduak koaderno batean idaztea bezalakorik. Idatzitakoak txorakeria zentzugabeak direnean barre egin diezaiokegu guk idatzitakoari, eta txorakeria zentzudunak direnean berriz, txorakeria zentzudunagoak idatzi eta pentsatzen lagun diezagukete. Cioran filosofoaren koadernoak irakurtzen ari naiz egunotan. Aforismoaren eta erran laburren jeneroa gorenera eramanezuen pentsalaria bera. Hil zenean, bere lagunak hogeita hamalau koaderno aurkitu zituen, denak elkarren berdinak. Mesanotxean koaderno itxi bat edukitzen omen zuen, eta lagunak beti koaderno bera zela uste izan bazuen ere, hogeita hamalau ale ezberdin ziren, kolore bereko azala zutenak. Kaiera batzuetako lehen orrialdean zera idatzi zuen: «Koaderno hau suntsitu eta zakarretara botatzeko». Baina hala ere, kontu han-

diz sailkatu eta gorde zituen koaderno guztiak; Kafkak egin ez zuen eran, Cioranek ere ez zuen norbere lana zaborretara botatzeko ardura mingarria bere gain hartu. Besteak beste, lagun eta ezagunen erretratu gupidagabeak ageri dira koaderno horietan, adiskide hauek X letraz edo inzialekin bakarrik izendatuak ageri diren arren. Pasarte batzuetan izen-deitura osoak idatzi zituen, baina tatxoi nabarmenekin ezabatu zituen gero, koaderno haiek norbaitek irakurriko zituen jakinaren gainean zegoelako, ziur aski.

Boligrafoa bere buruari tiro bat emateko gogoaz zuenen bakarrik hartzen zuela esan izan zuen behin baino gehiagotan Cioranek. Bere liburuen izenburuak irakurri besterik ez dago bere bizi-koordinadak bakardadearen eta nihilismoaren begietan iltzatuta zituen pentsalari honen nondik norakoak jakiteko: *Pentsamenduaren azkenak*, *Garaituen brebiarioa*, *Desesperazioaren gailurretan...*

Bere pesimismoari umore beltza baino arago, ironia iluna eransten zion gero. Hona bere koadernoetan topa daitezkeen zenbait burutazio: «Beti egon izan naiz, senaz bederen, galtzai-

leen alde, nahiz eta haien arrazoiak baliozkoak ez izan». «Hobea da tragedia justizia baino». «Beti bizi izan naiz oinezko bidaiari baten modura, ezer ez edukitzeko nahiarekin. Inoiz ez dut nirea den objekturik izan eta izutu egiten nau gainera, nirea den orok. Hotzikarak erasaten dit norbaiti 'nire emaztea da' entzuten diodanean. Metafisikoki ezkongabea naiz». «Zenbaitek beren lehen asma atakea oroitzen duten eran, nire lehen asperkeria atakea dut nik gogoan, bost urte izango nituen».

Bizitza osoa suizidioaren inguruan gogoetan aritu ondoren, alzheimer gaitzak harrapatu zuen Cioran. Mihi gaiztoek diotenez, alzhemerraren ondorioz ahaztu egin zituen suizidatzeko betidanik izan zituen asmoak, eta zahartzaroaren ondorioz hil zen, 1995ean, Parisen.

Montparnasseko hilerrian dagoela jakin eta maisuari bisita egitea erabaki dut. Kasu honetan, anglosaxoniarrak egiten dutena bezalako bisita izango da nirea: *pay a visit*. Zorrak ordaindu beharra dago.

Hiri handietako kanposantuetara irakurtzera joaten da jendea. Ez da derrigorrezkoa liburu bat

eramatea zer irakurria izateko. Bistakoa da hilibien eta liburuen arteko antzekotasuna. Hiri handiko kanposantuetan mapak banatzen dituzte sarreran, hildako ilustreak bisitatu eta libururik ekarri ez dutenak ere esku hutsik ez uzteko. Montparnasseko hilerrian, adibidez, Marguerite Duras 21. zenbakia da, Tristan Tzara 8.a, Baudelaire 6.a. Futbol talde bateko kamisetak bailiran. Hilobi batzuk aise aurkitzen dira, beste batzuk berriz, gugandik ihesi dabiltzala ematen du, hil ondoren ere beren miresleei itzuri egin nahiko baliete bezala. Cioranen hilobia da nik topatu nahi dudana. Aforismoen maisu zenak bere azken orrialdean zer idatzi ote zuen jakin nahi dut. Cioranen bila nabilela, ordea, Cesar Vallejo-ren hilobia topatu dut lehenbizi ustekabean («Hainbeste elur dago nire baitan, zu lo zaudelako»). Elurra beti, Vallejorenean. Beste poema googarri harekin akordatu naiz hilartitzeko elurraren aipua irakurtzean: «amak berokiaren lepoa lotzen dit, ez elurra ari duelako, elurra egin dezan baizik». Bere lehen liburuko lehen poema zen, eta han zen jada elurra, hilartitzean bezalaxe hastapenean.

Cioran errumaniarraren bila ni, eta hara non, Euskal Herriarekin lotutako poeta batengana ekarri nauen ibilaldiak: Durangoko hondakinei hileta erredoblea jo ziena, Vallejo; Gernika eta Bilbo gogoan izanda idatzi zuen poeta errepublikazalea, Vallejo. *Piedra negra sobre una piedra blanca*. «Parisen hilko naiz ekaitz egun batez / janik oroitzapenean dudan eguntto batean. / Parisen hilko naiz -eta hala ere ez dut alde eginen- / ostegun batez...». Ia asmatu zuen Cesar Vallejo: ostiralez hil zen, goizeko hamarrak artean jo gabe, harri beltza harri zuriaren gainean.

Inguratu naiz Vallejo, zure hilobiraino. Eta ez da nahikoa. Ez zara altxa. Gehiagok etorri behar genuke zu piztu zaitezten.

Baina ez zait oraindik niri Vallejo itzali. Bera ere ibilia baitzen Parisen, ogiaren xerka: «gizon bat pasatzen da lepoan ogia hartuta / Lagun hurkoaz idatzi behar ote dut orain?».

Nik aurkitzen ez dudan goranzko okindegian geratu bide zen Cesar Vallejo, betiko? Zirrara batek erdibitu nau.

Julio Cortazarren hilobia izan da hurrena. Harri koskorrak, gaztaina erreak -horiek ote Va-

Illejoren *harri beltzak* harri zuriaren gainean?-, norbaitek utzitako orrialde zimurtua ere hantxe, Cortazar Carol Dunlopen konpainian datzan hilobian. Lagun zaharren artean nagoela sentitzen dut oraintxe, une alkoholiko gisako baten zelebrantzan ari naizela; euforia suerte honek ez dit, ordea, zutik egotea galarazten, abantaila hori daukat. Eugene Ionesco ere inguruan dabil: «Otoitz egin, ez dakit nori. Zain nago». Harengandik ez oso urruti, Samuel Beckett, oraindik Godoten esperoan. Zain egotea ogibide ederra baita, zain ez gaudenean ere zain gaude, ustekabean. Badago zain egote bat, bizitzako gainerako ekintza guztiak biltzen dituen. Ionesco eta Beckett, eskua hilobitik ateraz gero elkar agurtzeko moduan jarrita daude, barne-patio batean balkoitik balkoira ttor-ttor ari den sardinera pare bezain gertu.

Cioranen hilobia baino lehenago, ezustean, mapari erreparatu gabe topatu ditut horiek denak. Zergatik ote? Cioranen liburuak irakurri aurretik beste horiek guztienak irakurtzea kome-ni dela esan nahi didate, beharbada? Okindegia gorako bidean ez, baizik eta beherakoan soilik

existitzen den era berean, Cioranen hilobia ere, ez da akaso beste inola ere existitzen, ezpada Duras-Tzara-Baudelaire-Vallejo-Cortazar-Ionesco-Beckett geltokien ondoren.

Hilerria -liburua- ixteko ordua da ia Cioran topatu dudanerako: harlauzarik soilena. Laguna-  
ren izena eta berea. Lau data. Bi jaiotzakoak. Bi heriotzakoak. Harria jo dut, kax-kax, etxean ez dagoen lagun baten atea jotzen dugun legez, etxean ez dagoen jakitun txirrinari luze sakatzen dionak bezala, etxean egon izan balitz atea inolaz ere jotzera ausartuko ez ginatekeen eran. Hilobia oinez inguratu eta ikuskatu dut gero, ez hilobi bat begiratzen den eran, baizik eta oso moduz erostear naizen bigarren eskuko Volkswagen zuria balitz bezala. Oinen azpian bada halako lur hutsaren bertigo bat, hartxintzar askeen marruskadura belarri ertzean, gaizki zigilatutako zementuaren sentipena, halako anklaje falta bat zutikakoaren bertikaltasunean.

Zapata zolarekin irakurtzekoa duk azken aforismoa, pentsatu dut.



# Elephant Terrible

Berriro ere hasieratik hasiko gara.

Beharrezkoa al da?

Zu errebolberra garbitzen ari zinen, beraz. Zergatik ez zenuen arma distira ematen hasi baino lehen deskargatu?

Bakarrik nengoen, mila bider esan dizut.

Eta zer bakarrik egonda ere? Gerta zitekeen ezbehar bat. Gerta zitekeen zeure burua zauritzea... Ez al duzu zeure burua estimatzen?

Linok, itxuraz behintzat, lasai eusten zion.

Inoiz ez duzu gauza horietan pentsatzen. Zuk jakin behar zenuke hainbeste. Polizia zara, edukiko duzu armaren bat, ala?

Pentsatu duzu inoiz suizidioan?

Aski da! Gutxi uste nuen nik... Seguruak huts egin zuen, hori da dena... Nola jakin behar nuen? Zorte txarra izan zen, besterik ez!

Zure istorioa erabat sinesgaitza da eta bada-kizu: errebolberra garbitzen ari zinela Gorky zure gelara sartu, zu ikaratu eta ustekabean errebolberra disparatu eta izpiritu santuaren obramen-

duz bere bihotzean asmatu zenuela sinestea nahi duzu?

Halaxe gertatu zen. Sustoa hartu nuen atea ireki zuenean.

Bi egun zeramatzan gizonkoteak komisaldegian. Goiz eta arratsalde, gau eta egun. Jaten apenas ematen bazioten ere, ordutik ordura gizenago zegoela begitandu zitzaion komisarioari, laster ez zela han kabitu ere egingo. Dagoeneko dozena erdi bider errepikatua zuen gutxienez bere bertsioa. Hitzez hitz, irristadarik gabe.

Zein da zure lana zirkuan, zehazki?

Bezatzailea naiz.

Lehoi domadorea?

Ez. Ziminoak bezatzen ditut.

Ziminoak?

Bai.

Ulertzen dut. Eta gu ere ziminotzat gauzkazu, akaso? Orangutan aurpegia daukagu?

Nahiago nuke horri ez erantzun.

Komisarioak ez zituen amaierarik gabeko galdeketa haiek jasaten. Baina lehendik ere nahikoa hedatua zegoen komisaldegian bere maritxu ospea, eta laguntzaileak begira zituela oharturik,

hortxe eman zion lehen zaflada atxilotuari, gidoiak agintzen zuen bezala. Apenas egin zuen zirkinik gizonkoteak aulkian. Barregarri sentitu zen komisarioa.

**Bakailaoa** beratzen jarri eta arratsaldean ekin zioten berriro galdeketari. Apur bat bigunago zegoenean baino ez zen komisarioa satora jaitsi.

Ongi da. Damu dut. Aitorpen berri bat egin nahi dut. Egia oso-oso.

Garaia genuen. Idazkariari deituko diot.

Ez naiz ni izan. Bruno babesteagatik egin dut dena... Alferrik ari naiz, arman dauden hatz-markak begiratzen dituzuenean jakingo duzue, lehengo edo geroago.

Bruno? Bruno, zer gehiago? Nor da Bruno?

Bruno, ez dauka beste izenik. Orena da Bruno. Senegaldik ekarri genuen. Ez du merezi, berak... Berak ez du kulparik...

Nor arraio da Bruno?

Ziminoetako bat. Berea da zirkuko ikuskaririk onena. Ez al dituzu afixak ikusi? Denetan ageri

da Bruno, «Makinaz idazten duen munduko zimino bakarra»!

Bezatzalea, ordura arte halako hoztasun nabarmenez portatu zen gantz upel hura, adarra jo besterik egin ez zien morroi gogor sobornaezina, horratx orain, begiak malkotan blai: goitik behe-ra amildu zen bere ehun eta hogeiki kilo eta guzti. Dena intziri, dena txilio eta negar.

Bruno gizajoa! Zer egingo diozue orain? Injekzio letala? Ez! Ez du hiltzea merezi! Berak ez zekien zer egiten zuen! Urteak daramatzat Bruno bezatzen... Gorputz eta arima gara. Egur bereko ezpala lez, odol berekoak biok! Anaiak bezala...

Zaude, isilik, faborez! Zer esan nahi duzu? Ziminoak hil zuela? Ziminoak hil zuela morroia? Hori esan nahi didazu?

Hemen erantsi zion komisarioak bigarren zaflada, gidoiak aginduta bezalaxe. Oraingoan, lepoa okertu eta utzi egin zion Linok buru inerte-ari erortzen. Komisarioak alkandora lasatu zuen, itotzen ari zen soto heze hartan. Normalean baino areago ito ere, gelako aire guztia xurgatzen zuen gizenkote haren erruz.

Hatz-marken emaitzak heldu bitarte, beste behin aldatu zuen oraindik krimenaren bertsioa, Brunorena haiek nahasteko jukutria izan zela onartu eta ez zela gehiago koldarkeriatan itzulimitzuli ibiliko, baietz, bere gain hartzen zuela erantzukizun guztia eta Gorky berak hil zuela eta ez beste inork, nahita eta aurrez prestatutako plan bati jarraiki; ezinikusia ziola aspaldi, zirkuan sartu zen egunetik bertatik, eta aspaldian bere emaztearekin larru tratuan zebilela ere entzun zuela bolo-bolo. Hori gehiegizkoa izan zen non-bait, ezin bide zuen gehiago jasan. Horregatik hil zuen. Komisarioaren laguntzaileek baieztatu egin zuten kontu hura: Linoren emaztea -egindako ikerketetatik ondorioztatu zutenez karabana separatuetan lo egiten zuten-, bera ere zirkuko langilea, Gorky zelako harekin, hildako morroia-ekin oheratzen zen aspaldiko asteetan.

Baina buruhaustek hasi besterik ez ziren egin. Analisisiek ez zuten zalantzarako tarterik uzten: hatz-markak ez ziren gizakiarenak. Lan hartan zeramatzan hogeita bost urteetan ez zuen komisarioak halakorik egundo ezagutu. Bruno ziminoaren hatz-markak harrarazi behar

izan zituen orduan, baina hara zer ustekabea: animaliarene aztarnekin ere ez zetozen bat arma-  
ren katuan aurkitutakoak.

Gozoa jarri zen komisarioa.

Katu batek ez du bada, bakarrik disparatzen,  
alajaina!

Zimino batek ere ez, nire iritzia jakin nahi ba-  
duzu, jauna.

Giro loratua zegoen, beraz. Zirtolari zebiltzan  
lankideak.

Zirkuko jabea -«ni enpresari apal bat beste-  
rik ez nauzu»- dirua galtzen ari zen, zirkua han,  
orube desanparatu hartan geldirik eta emanaldi-  
rik eskaini gabe. Bira bertan behera uzteak lan-  
gilegoa murriztu eta hainbat jende kaleratu be-  
harra suposatuko omen zuen. Horixe esan zion  
komisarioari. «Hara: honek La Navalek bezalaxe  
funtzionatzen du. Ez da jendeak uste duen be-  
zain erromantikoa kontua». Baina komisarioak  
ezin zion besterik gabe alde egiten utzi.

Zure gizonkote horrek, Linok, hiltzailea zimi-  
no bat dela dio.

Elsa?

Gutxi uste zuen komisarioak, zirku jabeak zimino-hiltzailearen hipotesia hain era naturalean hartuko zuenik.

Elsa? Zer Elsa, gero? Elsa ez, Bruno! Bruno delako bat aipatzen du behin eta berriz zakur horrek!

Barre egin zuen enpresariak gogotik, kristalaren bestaldean, inguruetako idazmahaietan zegoen jendearen arreta komisarioaren bulegorantz erakarriz. Ez zen normala komisaldegi batean inork eztarria lehertu beharrian barre egitea, zeremonia aurkezleek -«*ladies and gentlemen, mesdames et messieurs!*»- soilik zuten leize sakontasun harekin.

Hori ezinezkoa da, jauna. Elsa da gure izarra, ez Bruno.

Pazientzia galtzen hasia zen komisarioa.

Ez al da Bruno delako hori makinaz idazten duen ziminoa, munduan halakorik egiten duen bakarra?

Bai, hori egia da. Baina ofizioari zor diodan errespetu guztiarekin, idazmakinarena oso triki-mailu merkea da. Ulertuko duzun bezala, ez du Brunok Dickensen istoriorik idazten, makina jo-

tzen duenaren *imintzioak* egiten ditu, tak-tak-tak-tak, baina ez du benetan idazten!

Komisarioa sutan zegoen.

Hori imajinatzen dut nik ere, zuk esan beharrik gabe!

Elsa aldiz, ezberdina da...

Elsa hori... Beste zimino bat al da?

Bai, horixe duzu Linoren kuttuna. Elsak labana-jaurtizailearena egiten du numeroetako batean: jendea aho-zabalik geratzen da berak gani-beta eskuetan hartu orduko. Ikusi egin beharko zenuke, ez sinestekoa da. Horretarako jaio dela dirudi. Benetako artista! Gazteagoa zenean, trapeziora igotzean ere, benetan, nik Kirk Dougla-sen antza hartzen nion... Zerorren begiekin ikusi beharko zenuke. Baduzu seme-alabarik?

Komisarioak painueluarekin xukatu zuen kopetako estalaktita jarioa. Kristalaren bestaldean bere laguntzaileek irribarre txikiak egiten zituztela igarri zuen, «maritxu honek nola izango ditik bada, seme-alabak, nahiko lan bere burua gobernatzen!». Atea itxi eta estoreak jaitsi zituen, nahikoa entzun zuten kanpoan. Ez zien bere lepotik barre egiteko aitzakia gehiago emango.



Gauza bat bakarrik. Esadazu, arren: Elsa horrek errebolber bat erabiltzen asmatuko lukeela uste duzu?

Hmmmm... Zaila da ziurtatzen... Nik ezetz esango nuke, baina Linorekin, ez dago sekula jakiterik... Beti dabil zer edo zer berria asmatu nahian. Profesional aparta da. Baina pasioa, maitasuna, badakizu zer den hori... Maitasunak dena izorratzeko, maitea gurea izateko, edukitzeko gogoia sortzen du, eta edukitzeko ezintasunak krimenera eramaten gaitu erremediorik gabe. Zer kontatuko dizut zuk ez dakizunik?

Zirku enpresari hark benetako filosofotzat zeukan bere burua.

Jarraitu, arren eskatzen dizut.

Gorky gizajoa... Linok itsumen momentu hori izan ez balu, txorakeria hori egin izan ez balu... Baina pasioa lore gaiztoa da. Badakizu zer esaten duten: *Pas de roses sans épines!*

Botanika gutxiago eta harira, mesedez.

Hara, gauza bat garbi dago behintzat: Linok Bruno aipatu badu, zuek okerreko arrastoan jar-tzeagatik baino ez du egin, Elsa babestearren. Sinetsiezadazu: Bruno zimino zaharra da, erru-

kiagatik jarraitzen du gurekin, ez dugu harrizko bihotzik, nola esan... Bere garaian kanguru boxeatzailearen kontra borrokatzen zen eta ez gara hain esker txarrekoak. Bruno izar erretiratu da ia, gure familiako beste kide bat. Jubilazio-saria ordaintzeko era bat da bera gurekin mantentzea, nolabait esatearren. Baina Linok berak ere ez dio aspaldian arreta gehiegi jartzen. Argotean «jostailuzko numeroak» esaten diegun horiek baino ez ditu Brunok jada egiten.

Dickensen nobelarik ez, orduan.

Ez esperantza handi eta ez txikirik, komisario jauna.

Enpresariak begia keinatu zion komisarioari, literaturzale bik derrigor elkar ondo ulertu behar zuten jakinaren ganean.

Bi gizon bidali zituzten Elsari hatz-markak hartzera. Zirkuaren kontu hura urrunegi heltzen ari zen. Eta hara zer txiripa, zer txanpa eta zer kointzidentzia: Elsaren hatz-markak bai, eureka, haiek bat zetozen errebolberrari itsatsitakoekin.

Garuna funditzear zuen komisarioak. Etxera joan nahi zuen.

Oinetakoekin ziegako horma kolpatu eta ondoan morroilope zegoen presoak abisu eman izan ez balu, beranduegi iritsiko ziren. Doi-doi izan zuten Linori ito aurretik gerrikoa lepotik kentzeko astia. Lino bere buruaz beste egiten saiatu zen. Bi gizonen artean jaitsi behar izan zuten gizonkotea. Hodi ustel haiek nolatan eutsi zioten bere pisuari, horretaz mintzatuko ziren zaindariak aste osoan. Komuna askotan trabatzen zen, aspaldi eskatua zuten hoditeria berria, eta beldur ziren Linoren gertaera Barne Saileko aurrekontua kudeatzen zuten patrikazimurrek hodiak oraindik ere urte batzuk gehiago irauteko moduan zeudela argudiatzeko aitzakia bezala ez ote zuten erabiliko.

Komisarioak gero eta ilunago ikusten zuen egoera.

Gerriko bat ziegan, nola liteke halakorik! Jakin al daiteke nondik atera duen?

Ez dakit, baina zirkuan lan egiten du. Horrek lagunduko du ezerezetik gerrikoak ateratzen, ezta?

Zergatik galdetu ote zuen ezer? Lankideengandik ezin zuen trufa besterik espero.

Bere Elsa kuttunari buruz galdetu ziotenez geroztik, erabat mudatu zitzaion Linori aurpegia. Bere masaila lodietako gorrikara erabat zurbildu zitzaion, belarri handi eta behiala tenteak apal-duta zeuzkan orain, zakur egurtuaren tankeran. Ez zuen gehiago hitz egin nahi. Uko egin zion mokadurik probatzeari.

Zirkuko buruzagiak telefonoz hots egin zuen goiz hartan, bezatzaileak ziminoen entseguetarako erabiltzen zituen trepeten artean txorimalo bat topatu zutela abisatzeko: balaz zulatuta ei zegoen txorimaloa, bereziki bular aldean, oihal gorritz egindako bihotz bat zegoen lekuan bertan.

Lino beste ikuskari bat prestatzen ari zen El-sarekin. Ez dago dudarik. Beharbada egia dio. Akaso istripua izan zen. Pentsatzen jarrita, ez dut uste Linok inor hiltzeko barrurik duenik.

Baina dagoeneko ez zen komisarioa enpresari-filosofoarekin fio.

Arratsalde hartan bertan eraman zuten Lino zirkura. Deskargatutako arma karabanako mahaian paratu eta hormaren kontra jarri zuten

txorimaloa, Gorkyren gorpua topatu zuten leku-  
tik hurbil.

Ekar dezatela Elsa.

Ziminoa ekarri zutenean, alaitasun handiz  
jauzi egin eta besarkatu zuen bere bezatzailea.

Hau al da Elsa?

Burua makurtu zuen Linok, bere animaliatxo  
kuttunari begirada eutsi ezinik, triste, ahalkeak  
jota. Traidore bat bezala sentitzen zen. Nondik  
begiratzen zen, hunkigarria ere izan zitekeen es-  
tanpa.

Esaiozu errebolberra hartzeko.

Linok, deus esan gabe, errebolberra seinala-  
tu zion ziminoari. Elsa, errebolberra hartu eta jo-  
lasean hasi zen, txorimaloari begira. Errebolbe-  
rra destatu eta katua sakatu zuen, azkenik. Itxu-  
ra guztien arabera, harritu egin zen Elsa, erre-  
bolberrak ezandarik egin ez zuela ikusita.

Kontua ez zegoen batere garbi. Hiltzailea zi-  
mino hura izan zela onartuta ere, kosta egiten  
zen istripuaren hipotesia ontzat ematen: aukera-  
rik sinesgarriena, Linok Elsa leziatu eta honek Li-  
noren asmoak haren ordeztu inkontzienteki -egin  
ote lezake ezer zimino batek kontzienteki, jain-

koarren?- bete izana zen, horrela, ziminoa erailketa burutzeko bitarteko hutsa baino ez zen noski izango, eta Lino zeharkako hiltzaile, krimenaren egile intelektual eta justiziaren aurreko erantzule bakar.

Luze jo zuen epaiketak.

Albaitariak haren bila joan zirenean, komisarioak bihozkada bat izan zuen: ez zela Elsa ziruko jabeak seinalatu zien ziminoa. Kaiolan zeuden lau emeen artetik edozein hautatu zuela, gutxien estimatzen zuen emea, «argotean jostailuzko numeroak esaten zaien horiek baino egiten ez zituenetako bat»; edozer, Elsaren atzipena saihestu eta bere izarra babestearren.

Eta horratx, nola baieztatu ziren geroago bere susmoak: handik hiru hilabetera, auzia hasi zen egunean, errekonozimendu errondan, Linok zimino hura Elsa ez zela salatu zuen. Hatz-markak hartu zitzaizkionean ohartu ziren egia zela, ez zetozeela bat zimino harenak errebolberreko hatz-markekin. Prentsak izan zuen bazka franko egun haietan: *Orson* bataiatu zuten zimino be-

ria. Orson, *Hirugarren ziminoa* izenez ezaguna-  
goa.

Lino asko agertu zen paperetan; nork ez zuen bada, bere zimino kuttuna babesteagatik kartze-  
lara joateko prest agertu zen heroia-  
ren istorioa irakurri? «Hori da hori maitasuna!», oihukatzen zuten arrandegietan etxekoandre eta jubilatuek, zapo eta bixiguen aho irekietatik soilik irten zitekeela zirudien harridura bozgoratu batez, edo, «Etxerako nahi nuke nik halako gizon bat!» kafe-  
txeetan teari azukre koxkor bat bota eta bigarre-  
na etxerako gordetzen zuten alargun bileretako kideek. Urteko berririk bitxienetakoa izan zen hura, inondik ere, hiriko katedral nagusian go-  
tzainak esposatu zuen eskizofreniko bikote baten ezkontza iskanbilatsuarekin batera. Ez zen gutxiagorako, azken hau: bikoteko kide biak es-  
kizofrenikoak izaki, haietako batek banpiro bat zeukan lagun imajinariotzat eta besteak oster-  
a, emakumezkoak, bere pertsonalitatea Paulova dantzariarekin nahasten zuen tartekako brote eskizofrenikoetan. Elkarrekin ezkondu aurretik, banpiroa Paulovarekin adiskidetu eta ezkontzea lortu ei zuten eskizofrenikoek, haiek, ez soilik

sendabidean, baizik eta ezkontzeko libre eta konpromezurik gabe geratuz. Komisarioak ondo gogoan du Linoren berria eta ezkonberri eskizofrenikoena orrialde berean irakurri izana. Iraingarria zen. Areago, umiliagarria ere bai.

Azkenean, Lino aske geratu zen froga askirik ez zela eta. Polizia zirkuaren arrastoa topatzen saiatu arren, ez zuten sekula aurkitu. Ez zirkuak eta ezta enpresaria ere, jakina. Hain azkar mudatzen dira izenez eta urtaroz, zirkuak. Komisarioak ez zuen inoiz arantza hura bere espediente izpiritualetik aterako, eta igande arrastiriak lanbrotzen zizkion gomuta pisu harekin bere kulunkaulkian zahartu beste erremediorik ez zuen izan: hirira etorri ziren zirkuak ez zuten geroztik sekula zimino labana-jaurtitzailerik ekarri.

Lino aske geratu eta gutxira, sexu enkontru bat-bateko eta lasaigarrien bila hiriburura joan ohi zen anbienteko taberna haietako bateko gela ilunean, Lino bereizi uste izan zuen komisarioak, begitazio hori izan zuen. Ezin beste inor izan: bere gerri buelta besarkatzeko bi marinel indar-



tsu behar ziren gantz upel hura, begizulo sakon eta belarri itzel haiek ez ziren ahazteko modukoak. Erruki gutxirekin jarri zioten bere buruaz beste egiten saiatu eta ordu gutxira *Elephant Terrible* goitizena komisaldegian, larruzko gerrikoa lepotik kendu zioten zaindarek beraiek. Bera zen argirik gabeko gela hartan, ez zuen zalantzarik.

Horregatik, Linok denak engainatu zituela iruditzen zaio oraindik ere komisarioari, bezatzaile sentibera hark benetan maite zuena Bruno zaharra zela, «gorputz eta arima gara, anaiak bezala!», eta elkarrekin ikusten ditu biak oinez, Varaderoako malekoian eskutik helduta. Batzuetan banpiro bat ere ikusten du, Paulovaren konpainian, eta gero gogoia lainotzen zaio eta Bruno Paulovarekin bistaratzen du, edo Bruno Paulovaren tutu gonarekin jantzita, eta banpiro bat Lino-ri alkandorako botoiak erantzi eta hari lepoaren luzera osoa miazkatzen, edo Paulova ambienteko taberna batean berari odola zurrupatzen, edo banpiro bat karabana baten barruan errebolberriari, bere patuaren erruleta errusiarrari distira ateratzen, maite nau ez nau maite, petaloak

kentzen («badakizu zer esaten duten: *Pas de roses sans épines!*»); eta igande gau horietan zinez, gorputz eta arima -giza gorputzarekin, zimino arimarekin- gorrotatzen du komisarioak bere ogibidea.

# Jon Miranderen balada Jim Morrisonen omenez

Paris, 1971ko uztailak 3

Leiho ondoan eserita zegoen, kalerako jantzita, alkandora zuriz eta modaren araberako tirantee-kin prakei eusten ziela. Arrastiriko ordu hartan leihotik sartzen zen distira larua nahikoa ez izan arren, argirik piztu gabe irakurtzen ari zen, halako moldez non, betaurrekoekin ez ezik, begizuloekin ere irakurtzen zuela baitzirudien.

Leihoak barrualdean zuen arasan, bi liburu, artean zabaldu ere egin ez zituenak: lthurralde-*ren Pierre Topet-Etxahun* eta Gabriel Arestiren *Harrizko herri hau*, suomiera ikasteko eskuliburu alemaniar baten aldamenen biak. Hogei urte lehenago idatzitako testu argitaragabe bat zeukan eskuetan, bere garaian *Euzko Gogoak*-k atzera bota ziona.

*Lenago sorgiñak, heretikoak eta beste gaizki-gileak agirian urkatu, erre edo zintzur-egiten zituzten, ikusle kristau onen jolaserako; urkamen-diak orduko antzoki eta kinemak ziraden. Baita oraindik ere aspaldi ez dala, kolean gillotinatzen zituzten frantzesek iltzera epaitutakoak: ene ezagun alako lepo-ebaiketa batean so egille gertatu zan batek sarri esan dit poz asko artu zuela ikuskizun bakan ortan... Ezen gizakia ala da jaiotzaz, atsegabe ematen baitio urko lagunari min eragiteak. Gizabideak beartzen gaitu, baiki, gure jaidura basa orri uko egitera; gizartean bizitzeko-tan emetu, malgutu, otsandu, a.d. «zivilizatu» bear gera, irrits sadikoak zapalduz, gure beste griña txarrak bezela.*

Hitzez hitz sinatuko zituen orain ere, hogeitau urte lehenago idatzitako lerro haiek, hala otu zitzaien, begirada kaieretik jaso gabe. Eskuindar izanik ere, ez zeukan bere burua inmobilita besalper haietakotzat, eta hargatik, bere iritzia hogeitau urte lehenagoko gogoetekin lerrokaturik izateak arrasto mingotsa ekarri zion eztarrira.

*Bañan, zapaldurik ere griña txarrok or daude, gure biotz ondoan, psikologi berriak erakusten digunaz. Il eziñak dira...*

Norbaitek atea ireki zuen tupustean. Ez zen Marie. Ezezaguna egin zitzaion sarraila biratzeko presa hura. Kaiera leiho ondoan utzirik, aterantz abiatu zen. Astean behin garbiketa egitera etorri ohi zen garbitzailea behar zuen noski, hura baitzen bere arrebaz gain xanbreko giltza zuen bakarra.

A, hemen zaude, jauna! Barkatu. Ez nuen uste gaur inor egongo zenik.

Ez zara bakarra: neronek ere ezustea hartu dut goizean esnatzean, artean bizirik nintzela ikusita.

Barkatu, ez dut nire burua aurkeztu: Isabelle nauzu.

Bostekoa luzatu zion idazleak:

Jon Mirande, baina hori ere, gero eta gutxiago.

Zure lanean oztopatzen bazaitut, bihar etor naiteke... Badakit berandu dela aukeran...

Ez arduratu horregatik.

Jon Mirande emakumearen urduritasuna baretzen saiatu zen. Xanbreko lurra, paper, liburu ireki eta kaiera koloretsuz beteta ikustek noraezean utzi zuen emakumea. Gizasemeak berriz, ustekabeko bisita hark zintzurreko mingostasunari buelta ematen lagun ziezaiokeela egin zuen kontu. Egunak erredentziorako aukera bat eskaintzen zion, beraz? Ongi: baliatzeko prest zegoen.

Gozatuko dugu eztarria tragoxka batekin biok ere lanari ekin aurretik, Isabelle?

Ez zuen emakumeak halako gonbidapenik espero: hazpegi ederrak zituen bere mutuan. Begiak beti irekita zituela zirudien, baita baiezko keinu batekin betazalak hertsu zituenean ere. Ez ziren Parisen edozein zokotan ageri ziren begi berekoi eta zurrupari haietakoak, inguruko guttia irentsi eta trukean ezer ere ematen ez zuten begi nekagarriak, «hemen nago» esanez munduari beren burua eskaintzen zioten begi tolesgabeak baizik.

Ohore handia litzateke, baina ez dakit nik egokiena den...

Barruraino sar zedin gonbidatu zuen. Benetan zegoen emakumea artega. Izerdiaren distira zuen aurpegian, metroan presaka eta norbaitengandik ihesi etorri izan balitz bezala. Zurbil zegoen gainera. Ardo zuria atera zuen Mirandek, bi edalontzi ttikitan, isurkin hura emakumearen azalera lehenbailehen kanporatu eta aingeru aurpegi hura izerdituago ikusteko irrikaz.

Zure emaztea etor daiteke...

Emaztea? Arrebarekin nahasten duzula uste dut. Arreba dut Marie, ez emazte. Edonola dela ere, gaur ez da etorriko.

Isabellek irribarre egin zuen, laxoago, gau hartan egingo zuen azken irribarrea ez zela iragarriz. Edalontzia ia ezpainetan zuela, lepoa beheratu eta edariari begira geratu zen: barruko korapiloa askatzeko zuen premiak gain hartzen zion ardoa edateko zuen gogoari. Jon Mirandek eserita egona zen leiho ondoko aulki hutsari so egin zion une batez Isabellek. Bizkarreko margoa azalkatua zuen aulkiak, gizaseme bitxi haren bizkarrezurraren erradiografia emanez. Leihoko markoaren ingurua postalez eta txartel horituz josita ageri zen: igel bat marrazturik zuen bat

zen denen artean deigarriena, hiru dardo hor-  
mari josita zegoena. Ezagun zuen leiho ondoko  
aulki huraxe zuela lekurik gustukoena.

Ardoa dzangada bakarrean irentsi eta arra-  
paladan hasi zen hizketan:

Ez didazu sinetsiko Mirande jauna, baina, Jim  
Morrisonen xanbrea garbitzen izan naiz. Atea  
bizpahiru aldiz jo eta, xanbrean inor egonen ez  
zelakoan, barrura egin dut, beti egin ohi dudan  
legez.

Sinesten dizut, nirean ere halaxe egin duzu.

Ez zuen ordukoan Isabellek barre trazarik  
egin. Alderantziz, gero eta larriago zegoen.

Egongelaren erdian, latorrizko bainuontzian  
zegoen bera... Hilik ematen zuen... Aparra zerion  
ahotik eta arrain hilarenak ziren haren begiak. Ez  
naiz salatzerare ere ausartu. Hanka egin dut, inori  
deus esan gabe... Jendarmeriara joan behar  
nuke, bestela nire bila etorriko dira erratza eta  
lanabesak latorrizko bainuontziaren ondoan aur-  
kitzen dituztenean. Ikaratuta nago, jauna!

Ez zirudien Mirandek Isabelleren aitorea  
entzun ondoren trenpu-aldatuegi.

Nor da Morrison?



Jim Morrison! Ez duzu ezagutzen? Abeslari amerikar bat, entzute handikoa, eskandalu asko sortu ditu Estatu Batuetan.

A, bo! Eskandalagarri sinpatiko hori, entzun dut zerbait, bai. Hila dela diozu? Bainuontzian?

Irakurri berria zuen *Izan basa* testuaz oroitu zen: *Lenago sorgiñak, heretikoak eta beste gaizkigileak agirian urkatu, erre edo zintzur-egiten zituzten, ikusle kristau onen jolaserako...* Oroitzen zuen, bai, Morrison, irakurri zuen zerbait, amerikar eskandalagarri hari buruz.

Morrison... Zerbait idatzi behar nuke berari buruz. Idazteari utzi ez banio, agian...

Idazlea zara orduan? Zer idazten duzu, jauna? Gutunak?

Gutunak ere bai, tarteka.

Nik idazten ditudan gutun bakarrak Nizarako dira. Nire senarra, badakizu. Uda sasoian ez dugu elkar ikusten. Hondartza-garbitzailea da.

Lan gogorra inondik ere.

Bai horixe. Eskuarea eta saskiak hartuta, gauero. Eta zaborraren artean kaio zaurituak agertzen ez badira, pozik. Eskuareaz kolpatu, lepoa bihurritu eta saskira bota behar haiek ere.

Nik ezingo nuke halakorik eramán, zabor-saskiak hego dardartiz mukuru, pentsa... Azaleko biloak lazten zaizkit pentsatze hutsarekin.

Biloak, azala, laztu... Gustatzen zitzaion emakume haren mintzamoldea.

Badakizu nola akabatzen diren olagarroak, Isabelle?

Olagarroak? Zertara datoz orain olagarroak, jauna?

Koska egin behar zaie buruan eta ondoren arroken kontra kolpatu. Bestela ez dira egosita-koan samur geratzen.

Ene... Nire senarrak ez dit sekula bere gutu-netan olagarroei buruz deus aipatu.

Jabetzen zarenez, ez da hain erraza olagarro-arekikoak egitea. Oroitzapenak ere olagarroen gisakoak dira. Esan liteke kasik, olagarro bat edo oroitzapen andana bat akabatzea baino askoz errazagoa dela gizon bat akabatzea, Isabelle.

Ez aipatu horrelakorik, jainkoarren! Utikan piztia ilunak! Hain da eder itsasoa bare denean...

Agian zuzen zaude. Nik, ordea, beldur diot itsasoari. Gogoan dut, artean haurra nintzela, bagenuela bizilagun munstro bat, hirugarren so-

lairuan bizi zena. Bazuen halako seme elbarri bat, xanbretik ateratzen uzten ez ziona. Guk ez genuen sekula ikusi, entzun bai, ordea: egundoko oihu erdiragarriak botatzen zituen gauero. Laugarren solairuko bizilagunak, jostailu berri bat oparitu ziotela eta, hura erakutsi nahi izan zidan behin: atea zabalik zegoen eta tarrapataka sartu ginen korridorean barrena bere etxeko sukalderraino. Sukaldera heltzean, laguna supituki geratu zen: «Egon-egon! Hau ez duk nire sukaldea!». Garai hartan etxe guztiak antzekoak ziren... Eta gu okerreko etxean, deskuidatuta, gure tarrapatakan! Hura intziri festa elbarriak gu ikustean! Itotzera doan katemearenak ziruditen txilio haiek. Etxetik ihes egitekotan ginela, elbarriaren aitak harrapatu gintuen lepotik. «Zer egin diozue semeari? Zer egin diozue ume gaiztaginok!» hasi zitzaigun heriosuharrean, arrastaka gela ilun batera eramaten gintuela. Hantxe kisketatu gintuen.

Jaungoiko maitea! Hura beldurra!

Oraintxe begien aurrean banu bezala oroitzen dut gela hartako paretek zuten hormapapereko marrazkia: arrain ttiki pila bat ziren, hondo

urdirin azalkatuaren gainean. Gelan aulki bat zegoen, antigoaleko haginlariak eduki ohi zituzten aulki horien antzekoa. Era guztietako lokarri, kate eta giltzarrapoak zeuden han eta hemen, aulkiari atxikirik. Itsasoa ikusten dudanero oroitzen dut gela hartako hormapaperean margotutako irudiak zeuden arraintxoak irribarre sadikoa. Klausrofobia eragiten dit niri itsasoak, Isabelle.

Badira atek sekula zeharkatu behar ez genituzkeenak.

Begirada piztu zitzaion emakumeari. Erosoago sentitzen hasia zen. Gizonak kontatzen zizkion kontu ilunek bere iluntasunaren balantza orekatuko balute bezala.

Axola zaizu kanapean esertzen banaiz? Azken aldi honetan hankak nekatzen zaizkit, errazegi.

*Kanapea*, grazia egin zion Jon Miranderi. Gelaren erdian zegoen hiru gorputzeko sofara hurbildu zen Isabelle. Dardarka zegoen artean. Iluntasuna ia erabatekoa zen arren, etxeko argi guztiak itzalirik zeuden. Apur bat makurtu zenean, Miranderen begien bistan geratu ziren Isabelle-ren bular tente eta zuriak. Hara zuzendu zituen

idazleak, begiez gain, esku biak ere. Isabelle hizketan hasi eta atzera egin behar izan zuten idazlearen eskuek azken unean.

Jendarmeriara joan behar nuke lehenbailehen, ez duzu uste?

Ardo honek ez du sobera balio. Uxuala aterako dizut kemena berreskuratzeko. Gero lagunduko dizut jendarmeriara, hala nahi baduzu. Zaude unetxo bat. Sukaldean gordetzen dut botila, arratoien eta zomorroen aurkako pozoiekin batera, apal berean...

Irribarrez ari zen Jon Mirande.

Pozoi nahiz uxual, kolorea eta gustua gorabehera, antzekoak dira denak, ez zaizu iruditzen?

Gizona sukaldean zelarik galdeketari lotu zitzaion Isabelle, ozenki mintzatuz.

Nola egiten du idazle batek?

*Nola egin, zer?*, Mirande uxual botila eta bigodalet zekartzala itzuli zen gelara, eta Isabelle-ren ondoan eseri zen, hiru gorputzeko sofa berdean.

Idaztearena eta hori guztia... Nola egiten da?

Harritu egingo zinateke. Normalean idazten ari denarekin inolako loturarik ez duen zerbaite-

tan pentsatzen du idazleak idazten duen bitartean.

Ez dut deus ere ulertzen.

Bi eskuez heltzen zion Isabellek godaletari, abade batek kalizari nola. Neronek behar nuke eta ez berak bekatariaren rolaz ardura, pasa ziztaion burutik Miranderi.

Samur da bada ulertzen. Eman dezagun, nola zen? Joe Morrison...

Jim, Jim Morrison.

Bada eman dezagun Jim Morrison delako abeslari sinpatiko horren omenez soneto bat idazten dudala, baina nirez, zukan pentsatuz idazten dudala eta zuretzat dela poema hori, maitasun poema kamuflatu bat dela.

Deus ulertu gabe jarraitzen dut.

Isilik geratu ziren. Tarte luzez, uxualaren zintzur-tutuan beherako jarioa izan zen hots bakarra. Laster gauerdia izango zen. Sofatik altxatu eta leiho ondora hurbildu zen Mirande. Hiru dardoz hormari jositako postaletik gela osoa zaintzen zuen igelak.

Jendarmeriara joan behar nuke.

Izango dugu horretarako ere astirik.

Agian telefonatu behar nioke Poliziari. Ez deritzozu hala? Bazen hemen nonbait telefono bat, ezta?

Hatzaz seinalatu zuen telefonoa. Lurrean zegoen, liburu artean ezkutatuta. Isabellek telefono-giderra hartu eta larrialdien zenbakia markatu zuen.

Ez du linearik ematen.

Telefonoa ez dabil, ene maite Isabelle. Ez dut azken sei hilabeteotan erreziborik ordaindu.

Biziki haserretu zen orduan. Telefono-giderra zoruaren kontra jaurti eta harrapatzen zituen lanpara, liburu-apal eta bestelakoak lurrera botatzen hasi zen.

Ez dut espetxean amaitu nahi, Jainkoarren! Nire senarrarekin mintzatzerik banu!

Eskura zituen koaderno eta paperak oro taratatzen hasi zen Isabelle, amorru biziz. Jon Mirandek patxada osoz, sofatik altxatzeko keinurik txikiena ere egin gabe, bere pipa tabakoz betetzen zuen bitartean, xanbrean bakarrik balego bezala. *Bañan, zapaldurik ere griña txarrok or daude, gure biotz ondoan, psikologi berriak erakusten digunaz. Il eziñak dira...* Isabelleren ani-

moa apur bat jabaldu zelarik soilik deliberatu zen mintzatzera pipatzaile nasaia, sofa inguruko kegeruzen artetik.

Eskertzen dizut lana aurreratzea. Paper zikin horiek guztiak sutarako nituen.

Isabelle, bere jardunaren zentzugabeaz ohar-turik, eseri egin zen berriz idazlearen ondoan, hiru gorputzeko sofa berdean, tabakoaren ke gozoa isilik arnasten zuela. Isiltasunak behea jo zuen, aingura baten eran. Horma-erloju baten hotsa bakarrik entzuten zen. Hormetarantz so egin zuen Isabellek, baina han ez zen inon erlojurik ageri. Inguruko etxeren batekoak izanen ziren erlojuaren hotsak. Ile-adatsa alde batera apartatu zuenean, Isabelleren loki inguruan zain grisail baten bor-borra nabaritu zuen Jon Mirandek gelako ilunpean, eta horrek eman zion aukera oroitzeko nolatan leporatu zion Vulcanok Momo jainkoari gizakia lokatzez egin zuelarik, barruan zituen isuri, umore eta arimaren nondik norakoak arakatzeko leiho bana ez ireki izana gizaki bakoitzaren bularraren parean. Askoz ere errazago zatekeen hartara, hurkoaren barrua arakatzea.



Isabelle sofan bere baitara kizkurtu zen, pipa-tzailearen sorbalda bere sorbaldarekin ukitzera ino. Isiltasuna deserosoegi suertatzen ari zelarik, erabaki zuen mintzoari ostera kateatzea:

Eta... zu beti izan zara idazle? Ez duzu besterik egiten?

Parisko buro batean igaro nituen hainbat urte. Aspergarria zinez.

Hankapaluarena egitea baino hobe, edozein kasutan.

Hankapaluarena?

Miseriarik gorriena ezagutua naiz, ez pentsa. Izan zen sasoi bat elizaz eliza hankapaluarena egiten ibili ginena. Zerbait egin behar, ahora zer eramanik izango bagenuen. Eliz-atarian jartzen zen senarra, makulu batekin, zango baten faltan hankapalua bailuen, diru eske. Diru pizarren bat erdietsi bezain azkar ardo botila eroatera joaten zen, aurrez hankapalua eta makulua niri utzirik noski, bera botilarekin bueltatu artean hankapalua neronek jantz nezan. Zer deritzozu?

Elbarritasun trukagarria zela zuena, ihardetsi zuen Mirandek, garratzetik umorera lerratuz.

Senarrak, elizako aitorlekura sartu eta bertan husten zuen sarritan ostatuan erositako ardo botila, nigana alderoka itzuli aurretik. Orain askoz gutxiago edaten du, jainkoari eskerrak. Esan dizut Nizako hondartzan lan egiten duela?

Ahaztua nuen senarrik bazenuenik ere, egia esan.

Lurrean zeharka zetzan uxual botila hutsak biltzen zuen bere barruan xanbreko argi apurra, itsasargi apurtu bateko beirazko oroigarria bailitzan. Celine idazlea oroitu zuen sofan erdi etzanik Jon Mirandek: gauaren muturrerainoko bidaia barik, bizitza, botila baten azken muturrerainoko bidaia zatekeen. Hain zen erraza botila barruan hondoratzen zen isiltasuna eta botila barruan hondoratzen zen aingura norbere barruko egia-rekin nahastea.

Isabellek tolestuak zituen belaunak: gustura miazkatuko zukeen idazleak belaunburu haietatik izterretarainoko trantze leuna. Sofaren hiru gorputzetarik bi okupatzen zituen Isabellek, eta apur bat bazterturik zegoen Mirande. Ez batak eta ez besteak, ez zuten, hala ere, oinekin zorurik ukitzen: zapatak jantzita zituzten eta itsaso-

ren erdian galdutako baltsa batean ziruditen biek. Uxual botila hutsa, kostako begiraleei beren kokapenaren berri gaztigatu eta sos mezuren baten bidaltzeko balia zezaketen, baina mespretxatu egiten zuten, itxuraz, destino fataletik libra zitzakeen aukera bakarra ere. Uxual botila hura.

Lasaiago zaude orain?

Apur bat. Baina oraindik ere jendarmeriara joan beharko nukeela uste dut, ez da ona izaten gauza hauetan berandutzea.

Eta Sena ertzera, Pont Neuf-era egunsentia ikustera joango bagina?

Sena ertzera? Ez dakit... Azken aldi honetan hankak nekatzen zaizkit errazegi. Nekatuegi nago egunsentiari begira egoteko.

Eserita ikus genezake.

Pont Neuf-en ez dago non eseririk.

Geuk eramango dugu non eseri.

Jesarrita zeuden sofa berdeari begiratu zioten biek, tupustean bale baten gainean eserita dagoela ohartzen denak bezala. Biak batera altxa ziren, jauzi batean.

Lanpara bat erori eta lurrean kiribilkatu zen sofa bere lekutik arrastaka mugitzen hasi zirenean.

Egurrezko etxe zahar hauetan dena entzuten da. Hobe zapatak erantzten baditugu.

Doi-doi sartzen zen sofa apartamentuko atean zehar. Barre batean ari ziren, mozkorturik baleude bezala -uxual botila huts bat, pixkanaka edana... agian hordi ziren, benaz-, balantzaka, egongelako eta korridore estuko alfonbrak kiribildu eta bidetik baztertzen. Algara isilean zebiltzan biak, halakorik posible bada behintzat; zaratarik ez ateratzeko ahalegin gehiegirik egin gabe, halere, ez gaua eta ez goiza ez zen ordu hartan, gaiztakeria bat egiten ari den haur bihurrien gisan. «Biok batera: *un, deux, trois...* Orain!». Biek batera altxatu zuten sofa. Eskailburuko argiaren giltzari ukondoaz sakatu -lehen aldiz, argi bat- eta zapatak berriro jantzi ondoren egurrezko eskailera estuetan beheara abiatu ziren. Krask egiten zuen maila bakoitzak, haien irribarrearekin elkartasuna adierazi nahiko balu bezala. Pauso bakar batean maila bi jaitsi zitue-nean, Isabelleri seko gorritu zitzaion aurpegia,

hiru eserlekuko sofari indarka eutsi beharraren eutsi beharraz.

Lotsatia haiz gero, neska, bota zion Jon Mirandek goitik, sofari behetik eusten zion Isabelle-ri.

Barre tximista kutsagarri batek erasan zuen berriro Isabelle, halako moldez non sofa askatu eta doi-doi baztertu baitzen paretaren aldera, sofa eskaileretan behera irristada burrunbatsuan eror zedin saihestu ezinik. Barrez geratu ziren biak, hormaren kontra, elkarri eskua emanik, dozena inguru eskailera-maila beherago trabeska zetzan sofari begira.

Bide luzea egin zuten sofa aldean zeramate-la. Paris erdia zeharkatu zuten, nekatzen zirenero geratu eta sofan atsedean hartuz. Berdin hartzen zuten atsedean parke baten sarreran edo zebra-pasabide mortuen erdian. Haientzat baino ez zuten ordu hartan semaforo argiek dir-dir egiten. Edonork ikusi izan balitu, Poliziari parte eman izango ziokeen, seguru. Zortea alde lerratu zitzaien, ordea. Goizeko seiak inguru baziren ere, ez zebilen inor karriketean gaindi. Goizeko lehen egunkari banatzaileak Jim Morrison lato-

rrizko bainuontzian hilik agertu zela bozgora oihukatzen hasterako, Pont-Neuf ondoko zementuzko zabalkoan ziren biak, hiru gorputzeko sofa berdean eserita. Morrisonen begiak magnesiozko argazki kameraz flasheatuak izanen ziren ordu hartan. Edo auskalo, jendarmeriakoeak Polaroid kamera sortu berriak baliatuko zituzten beharbada, presaka egin beharreko zeregin deseroso haietarako. Baina latorrizko bainuontzia ahaztuta, elkarren eskuei oratzen zieten bikote aparteko hartako gizon emakume haiek barre eta barre egiten zuten gogotik. Izan ere, sofa baten eta latorrizko bainuontzi baten artean bada ezberdintasun garrantzitsu bat: Senatiko oso gertu egonagatik, nekez ito zaitezke sofa bategan.

Emakume bat eta gizonezko bat, Sena ertzean, sofa tarratatuan kukuturik, tarteka lepoa luzatuz, uztaileko egunsentiaren xerka.

Jainko greziarrek gizakiok bularraren erdian leiho bana izan behar genukeela uste zuten. Leihotik begiratu eta besteek zer sentitzen duten jakiteko.

Alferrik litzateke: ilunegi egoten da gehieneztan barruan.

Isabellek arrazoi zuen. Alferrikakoak ziren gauetik gauerako leihoak.

Haien arteko hamaikagarren isilune luzearen ondotik gertatu zen. Tupustean, Isabelle sofatik altxatu eta ibai ezpondarantz abiatu zen zementuzko zabalkoan zehar, lasterka. Jauzi egin zuen gero tanpez uretara. Jon Mirande ohartu zenerako uretan zen Isabelle. Betaurrekoak erantzi eta ibaira jauzi egin zuen berak ere, birritan pentsatu gabe. Sofa abandonaturik geratu zen minutu batzuez, itzal leun bat porlanaren gainean.

Inor ez zen gertatutakoaren lekuko izan. Handik minutu gutxira, arnasestuka itzuli zen Mirande, tiranteak gerritik behera zintzilik eta zapatak bidean galduak, Isabelle neskatila baten gisan beso artean zekarrela. Arropak azalean lapatuta zituzten biek. Eztulka zetorren Mirande, ur arrasto nabarmen bat utziz. Isabelle sofan erdi etzanda utzi eta bere ondoan eseri zen. Irentsitako ur zikina kanporatzen saiatu zen, eztula behartuz. Isabelle baino okerrago zegoen bera.

Horrela egon ziren biak, erdi etzanda Isabelle eta lurrera begira eserita Mirande, hatsalboka, minutu luzez. Hiriak lo zerraien, baina egunkari-banatzaileen bizikleta kirrinkatsuen etorrera aurrez zitekeen jada.

*Le Figaro*, azken berriak!

Orduan ohartu zen. Behin eztarria garbitu eta arnasestua amiñi bat sosegatu zuelarik, Mirandek emakumearengana burua jiratu zuenean. Ez zegoen han. Oharkabean, berriro ere sofatik alde egina zen, narrasti bat bezain isil: zubirantz zihozen eskailerak igotzen ari zen. Berehala heldu zen zubira, eta Senara jauzi egin aurretik esker onezko keinu bat egin zion. Hala egin zuela sine-tsi nahi izan zuen behintzat Mirandek.

Ez zuen idazleak zirkinik ere egin. Eserita geratu zen, ukondoak belaunetan eta ukabil biekin masailei eutsiz, gorpu bat uretara jausi eta nola desagertzen zen ikusten zuela. Erresuminik gabe irentsi zuen ibaiak emakumea. Egunsentiko une hura, argi hura -otu zitzaion- bazen botila baten barruan sartuta saltzeko lain eder. Bizitza, berriro ere, botila baten muturrerainoko bi-



daia bezala. Argi izpiek zerua saretzen zuten, deblauki.

*Le Figaro*, azken berriak! Jim Morrison kantaria bainuontzian hilik!

Nazka eragin zion begirada horizontera luzatzean bereizi zuen hurrengo gauzak: urrunean ageri zen Frantziako Errepublikako bandera baten koloreek goragalea eragin zioten. Mundu krudela hasia zen, berriro ere, bere ohiko itxura bereganatzen.

Aho gustu nazkagarri hura ezabatzeko zerbaiten premia sentitu zuen. Hanka-hutsik eta eskale traza harekin, Vaugirard karrikako sotoan merkatu beltzean saltzen zuten uxual hartatik aterako ziotenez galdetu zion bere buruari. Begi pare baten premia sentitu zuen: kanpokotik zurupatu eta hartzeaz gain, zerbait emateko borondatea izango zuten begi eskuzabalen premia. Baina inguru hartan ez zen inor. Ez ur sakonen hondoetatik at behintzat. Eguzkia uztai polar baten gisan agertzen hasi zen eraikuntza paristarren bestaldean. Balada baten hasiera otu zitzaion orduan: *Leiho beltz bat zenuen, leiho beltzari emana, Isabelle*. Gauza izango ote zen

etxera iritsi arte estreinako esaldi hura oroime-  
nean gordetzeko?

*Jon Miranderen balada Jim Morrisonen ome-  
nez*, honela titula zezakeen. JM-k JM-rentzat.  
Bere inzialak kantariarenekin bat zetozela ohar-  
tu zen. Bitxikeria ergel bat gehiago baino ez zen,  
noski, eta ezer gutxirako balio izan zion abagune  
hark, goizeko lehen argiak gauza guztiei arinta-  
suna kendu eta pisua eransten zien ordu gogai-  
karrian sartua baitzen eguna.

Nekatuta zegoen eta sobera etsita. Bera ba-  
karrik eta inoren laguntzarik gabe, ez zen sofa  
madarikatu hura ostera etxeraino garraiatzeko  
gai izanen.

# Ogiaren konkista

Abdulek presaka segitzen zion Sergiori eta galdera behin eta berriro egiten zion, ozenki, gero eta ozenkiago. Sergiok ez zion erantzuten. Galdera, orduan, Luzuriaga Fundiciones lantegiko tximiniatik ateratzen zen ke zerrendaren pareko zen, haize kontra zihoan kea, ez zen Sergioren belarrietara iristen.

Zertarako behar dugu ogia?

Sergiok oinez jarraitzen zuen, geratu gabe, ogi erosi berria besapean.

Hago isilik eta etor hadi nirekin.

Bi hilabete eman zituzten Zumarragako tren geltokian bagoiak husten. Sergiok erakutsi zion bagoi hustuketari buruz jakin behar zuen guztia. *Bagoi hustuketaren artea*, esan ohi zuen berak. Urte batzuk geroago ere, egunkari batean *arte* hitza irakurtzen zuen bakoitzean, argazkian ageri zen artistak pintore izan aurretik trenak hustu zituela pentsatzen jarraituko zuen Abdulek. Hitzak ze testuingurutan ikasten diren, asko aldatzen dira gauzak. Egin ariketa hori, ederra

da: irudietsi Van Gogh, Matisse, Dali edo Toulouse-Lautrec bera, treneko korridore estuetan emakume gizenekin gurutzatzean *pardonnez moi, pardonnez moi*, elkarri traba egiten.

Ziur nahiko denbora izango dudala?

Horixe nahikoa denbora izango duala, ez duk ba izango, zozoa! Hori bai: ibilbide luzeko trenetan bakarrik, entzun, txo-txo?

Eta nik nola dakit ibilbide luzekoa edo laburrekoa den, niretzat tren guztiak berdinak dira...

Orain ez, orain Abdulek bereizten zituen. Sergiok arrazoi zuen. Ibilbide luzeko trenek hauts gehiago eta neke gehiago zuten gainean, lurralde ezberdinetan zahartu denaren txapa-azala, beste garai bateko ukitu bat, herdoilera iristen ez den distira-ez bat, diktadoreak erortzen ziren bitartean garai berriaren etorrerak tren haiek martxan harrapatu izan balitu bezala, trenak enteratu ez bailiran erregimen aldaketaz. Eta dikta-  
durak gera daitezke, baina martxan datozen trenak ez. Beste garai bateko auskalo zer bat zuten ibilbide luzeko trenek.

Hik bagoi batera igo eta korridore ondoan dauden apaletatik aukeratu maletarik berriena,

txo-txo. Txikia baduk aukeratu bi. Eta gero jaitsi eta hanka. Erraza duk!

Eta maletaren jabea?

Jabea lo egongo duk trenean, motel. Errebi-sorearekin eta estazioko zaindariarekin ibili behar duk kontuz.

Sergiok erakutsi zion trenak husten eta eska-pada bat baino gehiago egin zuten elkarrekin. Maletaren bat ere abandonatu behar izan zuten bertan behera, trenbidearen erdian, zabal-zabalik, gaixoari sabela ireki eta itxi gabe deserta-tzen duten zirujau koldarren moduan.

Korri, Abdul! Korri, ostias! Korri, laputa, korri! Ostias, Laputa. Emakume izenak iruditzen zitzaizkion. Ostias, Laputa, Sergio eta bera: tropel oso bat sumatzen zuen halakotan bere ondoan korrika. Sergiori ez zion inoiz halakorik aipatu, hala ere.

Estazioz aldatu behar izan zuten. Estazio berria txikiagoa zen eta han ez zen hainbeste tren geratzen. Sergiok arriskutsuegia zela erabaki zuen arte. Ez zuela merezi. Egun batean delibe-ratu zuten kito, utzi egingo ziotela trenak hus-

teari. Laga egin zuten *trenak hustearen artea*, Sergiok zioen bezala.

Behin halako ogibide bat izan duenak ez du, ordea, hain erraz ahazten. *Tren hustutzaileak*. Horixe ziren haiek. Maleta hartu, eta estaziotik apur bat urruntzen ziren, belar izpi luzexka batzuk baino ez zituen orube hutsera iritsi arte. Maletak bertan ireki eta banatu egiten zuten edukia.

Emakume arropa, berriz! Laputa!

Sergio madarikazioka hasten zen emakume arropa topatzen zuten bakoitzean. Abdul aise konformatzen zen. Arrebari ondo etorriko ziztaion galtza pare hura. Dirua gutxitan aurkitzen zuten. Jendeak berarekin eramaten du azalera atxikirik, dirua da hemen jendearen bigarren azala, Abdul, esana zion aspaldi bere buruari.

Abdulek ulertzen ez zituen gauza asko baziren herrialde hartan. Jende saldoa ikusi zuen asaldatuta behin, eraikin handi baten hormei arrautza tiraka.

Zertan ari dira horiek Sergio?

Protestaka, Abdul.

Ze gauza, *trabajo*?

Ez, ez da lan kontua. Protestaka ari dituk, politikagatik.

Baina Abdulentzat harrigarriena arrautzak eraikineko hormen kontra lehertzen ikustea izan zen: arrautzek gorriz eta horiz margotzen zituzten eraikineko hormak.

Udaletxea duk hori, Abdul. *El ayunta.*

Oihuka ari zen manifestazioko jendetza.

*iEl ayunta-miento-miente! iEl ayunta-miento-miente!*

Arrautzak botatzen zituzten udaletxeko hormaren kontra eta hauek kolore festa batean lehertzen ziren. Bai gauza ederra!

*iEspera, espera!* Gure herrian arrautzak ez dira koloretakoak, Sergio!

Van Gogh, Matisse, Picasso, Dali bera, eraikinetako hormak kolore leherketa bihurtzen, *modern art* edo *ready-made*, arrautzak bota fatxaden kontra.

Korri Abdul, korri!

Abdulek ez zuen sekula ulertu arrautza koloretan haiek ze hegaztik erruten zituen. Usapal gris zikin haiek ez behintzat.

Eta orain Sergiok arriskutsuegia zela erabaki zuen. Ez zutela tren gehiago hustuko. Astebete pasa zuen Sergiok belar izpi urriak zituen orubean sarraila zahar batekin frogak egiten. Barregarria zen: alanbre batekin irekitzen saiatzen zen, behin eta berriro, baina saririk ez zeukan sarraila hura irekitzeak. Txatarra artean sarraila bat irekitzen duzu eta hutsetik hutsera eta orubetik orubera egiten duzu jauzi, txatarreriatik zuhaitz artera. Barregarria. Ireki behar dugun atea horrelakoa duk zepela, esaten zion Sergiok Abduli, honek bere begi zuri eta handiekin galdera egiten zionean. Oi bai, begi zuri eta handiak dira orain interrogazio ikur berriak, aspaldiko zerri-gako itxurako haiek baztertu ditugu, orain biribilak eta zuriak dira galdera ikurrak.

Eta nik nola dakit ibilbide luzekoa den ala ez, Sergio, nik nola dakit, zer ari zara alanbre horrekin, eta batez ere, zertarako erosi duzu ogia, nora zoaz ogi horrekin, ez al genuen gaur etxe hartako sarraila hura apurtu behar?

Gustatu al zitzaion arrebari atzoko galtza pare?



Oraingoan Sergiok galdetzen zuen, gutxitan gertatzen zen zerbait zen hori. Gauza arraroa zen Sergiok ezer galdetzea.

Morroi hau nire arrebarekin maiteminduta dago, pentsatu zuen azkarki Abdulek. Gero poli-kiago pentsatu zuen eta deliberatu zuen ezetz, ideia polita zela, baina ez zela posible. Ideien planoan gozatu zuen halere burutazio hura, aho-buelta osoan.

Egunkarian irakurri diat paperak emango dituztela. Ez denoi, lan bat daukazuela frogatu behar omen duzue.

*Ah, ipues yo me dedico a pulir trenes!*

Horrek ez dik balio, Abdul...

Imajinatzen zuen bai, trenak husteak ez zuela balioko.

Sergio presaka zihoan oinez. Abdul bere atzetik, lurruna ahoan. Goizeko zazpi t'erdia ziren eta lurrinak Luzuriaga Fundiciones aldera eramaten zizkion galderak Abdul.

Zertarako daramagu ogi bat?

Hik ez dakik presoei ogi barruan lima bat sartzen zietela, ezta?

Ez.

Hik ba al dakik zer den Alcatraz?

Hegazti baten izena ematen du. Hegazti handi batena. Txori bat da?

Alcatraz, akaso hori zen sekretua. Akaso hori zen gorringo koloretsuak zituzten arrautzak erruten zituen txoriaren izena.

Hiri ezin zaik ezer esan, hirekin ez zagok hitz egiterik, txo-txo! Hik ez duk txikitan pelikularik ikusi...

Erruki zion hori esaten zionean, Abdulek nabaritzen zuen. Iritsi ziren atarira. Inor ez peorako buzoiaren parean. Isiltasuna zen nagusi arkitekto baikorregiren batek igogailuarentzat gorde zuen eskailera-hutsunean. Edonola ere, mamuek ez dute igogailurik behar.

Etzak piztu argia.

Abdulen eskuak ulertu eta erretiradako kei-nua egin zuen.

Baina lehen eskailera-buruan arazo bat, eskaileretan behera zetorren bizilagun bat, mesfidantzaz begiratu ziena. Sergiok irribarre egin zuen, irribarre zabal bat, Egun On, eta ogia jarri zuen bera eta sartzen ziren lehen aldia zen portal hartako bizilagunaren artean. Ogia erakutsi

zuen gezirik gabeko arku bat edo ezkutu bat baiditzen, eta eskaileretan gora jarraitu zuen Sergiok, eta bere atzetik bere itzalak, Abdulek, eta bizilagunak ogiari begiratu eta bere begietako mesfidantza ogiak irentsi egin zuen zup, gezi bat iltzatuta geratzen denean bezala ezkutu batean, eta beherantz, atarirantz eta kalerantz eta mundurantz, eta ziur aski, astean berrogeita hamar ordu kentzen zizkion Luzuriaga Fundiciones alde-  
ra, lan astun baterantz abiatu zen bizilaguna. Agur, laster arte, izan ondo eta saiatu hanka putzuan ez sartzen, bakarkako lana duk bizitza eta fundi hadila gozo galdara batean!

Jakina, Abdulek orduan ulertu zuen dena: ogia ezkutu bat zen, lapurrak ez dira etxeetara ogi bat besapean dutela sartzen.

Sergiok Abduli eskutik heldu eta astindu egin zion besoa.

Ikusten, zozoa? Ulertzen duk orain zertarako behar genian ogia? Eutsi!

Abdulek, atari hartan zutik, Sergiok eman zion ogiari eutsi zion esku batekin eta totem bati bezala begiratu zien ogiaren azaleko orban lu-  
zeei, ogia biltzen zuen paper marroi xeheari.

Argia urratu aurretik lehenak izan ziren okindegian sartzen.

*Baguette?*

Ez, ez... merkeena.

Merkeena da *baguette*-a, jauna.

Usaindu egin zuen Abdulek ogia, eta ogiak, bizilagunaren begiradatik zurrupatu ondoren bereganatua zuen mesfidantza bere usna-ildoetara botatzen zuela iruditu zitzaion. Ez zuen nahi beretzat ogiak mesfidantzarik, kanpora egozten zuen, jaurtiki, usain gaizto bihurturik, arropa zikinaren kirats bihurturik legami-irinen osasungarria. Bitxia zen: hain erabilera eznoeblearen ondoren, ogia estolda bihurtu zen, «nik ere badaukat nire duintasuna», aldarri egingo balu legez.

Abdulen aurrean makurturik, Sergiok alanbrea sartu zuen sarrailaren begitik.

Zer esaten didak orduan, gustatu zitzaizkioan galtzak hire arrebari, bai ala ez?

Sergiok alanbreari eragin zion, eta begi bat itxi zuen sarrailaren parean, tiro doia egitera doan ehiztariaren gisa. Alcatraz bati tiro, kolore eztanda, hori, gorri. Klak.

Xuabe ireki zen atea, sarrailak nobedadea, giltza ez zen beste zerbaiten bulkada kitzikagarria eskertu izan balu bezala.

Hik itxoin ezak hemen, Abdul.

Abdul zain geratu zen, esaneko, bigarren eskuko ogi ahitu harekin zer egin ez zekiela.

Leiho ttipi batetik egunak oraindik argitu ez zuela ziurtatu, ogiari koskorra kendu eta ahora eramán zuen. Baliatu beharra zeukan. Ramadana hastera zihoan: egunsentiaren ondoren ezin-go zuen egun osoan mokadurik probatu.

# Aulkien Historiako une estelarrak

Aulki tolesgarri bat eskaini zioten. Saiatu zen esertzen, baina altxatu egin zen berriz ere: zutik bakarrik jasan ahal zuen bere burua.

MARGUERITE DURAS, *La douleur*

**1789.** urtean, Parisko populuak Bastille hartzen zuen bitartean, palazioan jolasten zebiltzan Versaillesen, Luis eta Maria Teresa printzeak, Luis XVI.aren eta Maria Antonietaren seme-alabak, aulkien inguruan dantzan, euren lehengusu-lehengusinen konpainian. Soka laukote batek musika jotzeari uzten zionean, arrapaladan esertzen ziren denak. Baina, zeuden aulkiak baino dantzari bat gehiago izaten zen beti. Beti gertzen zen norbait aulkirik gabe, jokotik kanpo. Jolas pedagogikoa, inondik ere, helduen bizitzarako ere irakaspen polita dena.

Bat-batean jendetzaren oihuak eta ardaila heldu ziren palazioko leihoetara. Hogeita hamar mila gizoneko gudarostea antolatzen ari zen palazioaren ingurua babesteko. Sable hotsa, ezta- rri urratuen burrundara airez kordokatuak eta ur- duritasuna ziren nagusi. Eta soka laukoteak jo- tzeari utzi zionean, Luis eta Maria Teresa txikiak ez ziren oraingoan, ohikoan bezala, lasterka jos- tarian norbere aulkiaren bila joan.

Zaldien irrintziek Guardia Nazionale herriare- kin elkartuko zela iragartzen zuten dagoeneko.

Une horretan bertan, Paris erdialdean, Erret Jauregiko Foy kafetxetik irten zen Camille Des- moulins, ezpata esku batean, pistola bestean. Aulki baten gainera igo eta armetara dei egin zuen. Han, aulkiaren gorenean zela, zuhaitz baten adarra kraskatu, haren hostoetako bat ba- tasun zeinu eta intsignia gisa aldarrikatu eta deiadar egin zuen: «Ez galdu lipar bat ere gehia- go! Armetara!».

Bere oihua hiriko langile auzo guztietara he- datu zen berehala.

1888. urtean, Buffaloko gobernadoreak Westinghouse elektratresnen enpresari enkargua egin zion aulki elektrikoa fabrika zezan. Argindarraren bi handikien arteko borroka zegoen honen atzean: Thomas A. Edison korrante zuzenaren defendatzailearen eta George Westinghouse korrante alternoaren asmatzailearen artekoa. Edisonek bere aurkariaren argindar sistema hobesten zuen exekuzioetarako, korrante alternoa heriotzarekin lotuz gero, etxe erabilerarako arriskutsuegitzat jo eta bere korrante zuzena hobetsi eta orokortuko zelakoan. Korrante alternoaren eragin txikitzaile demasak frogatzeko, dozenaka animalia -katuak eta zakurrak bereziki, baina baita elefante bat ere, tartean- elektrokutatu zituen sistema honen bidez. George Westinghousek, bere aurkariaren azpijokoaren jakitun, uko egin zion hasieran aulki elektrikorako bere produktuak saltzeari eta bigarren eskukoak erosita etsi behar izan zuten, azkenean. Diotenez, Westinghouse jaunak, aulki elektrikoan hiltzera kondenatzeaz lehen gizonari abokatua ordaindu zion ezkutuan, exekuzioa bertan behera uzteko itxaropenarekin.



Aulki elektrikoaren inspirazio iturri nagusia inkisizio garaiko galdeketa aulkian dago ziur aski -lorpenekin gertatzen denaz bestaldera, kontinente berriko bekatuak ia beti egotzi izan zaizkio hasiera batean kontinente zaharrari-. Inkisizio garaiko aulki hark, argindarrik ezean, gezi muturren antzeko burdin puska puntadunak zituen, bertan esertzen zena adar eta enbor zulatzeko. Argindarra heriotzarako bide bezala hautatu aurretik -energia gazte eta glamurosa zen garai hartan, ez dezagun ahantz- gillotina eta morfina- ren aukerak aztertu zituzten. Lehena, odoltsuegia zelako baztertu zuten. Bigarrena, plazer gehiegi ematen ziolako kondenatuari.

1888ko maiatzean erabili zuten lehen aldiz aulki elektrikoa Ernesto Chapelearen larruan. Chapeleau, bizilagunaren behiak pozoitzeagatik kondenatu zuten. Kondenaren ondorioa: hirugarren graduko erredurekin baina bizirik atera zela gizasemea. Lekukoek aitortu zuten, hirugiha- rrari parrillan lakoxe kea eta erre usaina atera zi- tzaizkion gorputz erreari. «Aizkora batekin ez lu- kete okerrago egingo» adierazi zuen George Westinghousek. Heriotza zigorra, bizitza osorako

kondena baten truke barkatu zioten Chapeleauri, azkenik.

William Kemmler izan zen aulki elektrikoan hil zuten lehena, 1890. urteko abuztuan, Auburnen, New Yorkeko estatuan. Urtebete lehenago bere emazte Matilde Ziegler erailtzeagatik kondenatu zuten Kemmler.

Abisiniako enperadoreak, Menelik II.ak, aulki elektrikoaren albiste izan zuenean, asmakizun harekin txunditurik, hiru aulki ekarrarazi zituen AEBetatik. Susmatzen ez zuena zen, aulki elektriko haiek ez zutela elektra-indarra berezko eta jainkotiar iturrikoa, argindarra behar zutela funtzionatuko bazuten, eta garai hartan, Abisinian, ez zuten halako aurrerapenik. Menelik II.a enperadorea gizon inspiratua zen, ordea. Berehala aurkitu zuen aulki hura zertan berrerabili: haietako bat bere tronuko aulkitzat baliatuko zuen egun hartatik aurrera.

Geroztik, asko eta asko izan dira fabrikatutako aulki elektrikoak, eta haietako batzuk bataiatu ere egin dituzte: ur bedeinkatuz bezala, baita izenez ere. *Old Sparky* edo *Txispatxo Xarra* deitzen ziotena, kasu. Kartzelako patioko arbola

bota eta harexen zurarekin egin omen zuten, presoek beraiek, 1924an. Berrogei urte luzetan 361 preso hil zituzten bertan. «Asteazkenero ziurtatzen dute kartzelako buruzagiek *Old Sparky* ongi dabilen. Bederatzi segundoz argiak itzaltzen dira. Inork ez du arnasarik hartzen. Boltaje handiko transformadoreen zarata eta aulkia- ren deskarga baino ez dira entzuten. Niretzat hemen egun bat pasatzea, zuek kanpoan hiru egun pasatzearen pareko da. Gu ez gara mundu honetakoak», adierazten zuen Jacksonvilleko Herriotzaren Korridorean kondenaturiko gizon batek.

Jim Williams delako gizaseme batek, Floridan, hogeitaz minutuz eutsi zion aulkian hil gabe; azkenik indultatua izan zen. Rosie Judori ere bizia barkatu zioten, txundidura handiz, 1.500 voltio-ko deskarga elektrikoa bere gorputzetik batere kalterik sortu gabe pasatzen zela ikusi ondoren. Azken kasu honen ondorioz, Cellier diputatuak lege bat aurrera ateratzea lortu zuen, AEBetan pertsona bera birritan aulki elektrikora eramatea debekatuz.

*Non bis in idem...*

1927. urtean, Bessie Smith abeslariak aulki elektrikora eraman zezaten *erregutzen* zuen, ohikoa zuen graziari ironia eta ausardia dosia gehituz *Send me to the electric chair* kantua modan jarri zuenean. Emakume beltz batek halakorik abestea probokazio galanta zen garai hartan: «Ez izan gupidarik nirekin, epaile jauna: ez ditut 99 urte kartzelan pasa nahi nire senar onari zintzurra ebaki niolako; otoi, bidal nazazu aulki elektrikora, epaile jauna. Erein nuena jaso nahi dut, besterik ez. Ez izan errukirik batere nirekin». Askotan kontrakoa iruditu arren, pentsa zein neurritaraino egin dugun geroztik atzera irratian entzuten ditugun kantuen hitzei dagokienean.

1905. urtean, Chiadoko Rua Garrett karrikako 120.ean Fernando Pessoa kafea hartu ohi zuen A Brasileira kafetegiko terrazan. Terraza horretantxe, Fernando Pessoa eserita ageri den eskala errealeko brontzezko estatua jarri zuten urte asko ez dela. Eserita dagoen brontzezko estatua-  
ren ondoan, aulki huts bat dago, turistek bertan

eserita Pessoaaren konpainian argazkiak atera ditzen. Pessoa koitaduari kapelua eta eskua gatzatu egin dizkiote bere ondoko aulki hutsean eseri eta estatua igurtzi beharraren igurtzi beharraz. Bere liburuek apaletan diraute, leitu barik, erran gabe doa: esku bat esku bat da beti, eta errazagoa eta atseginagoa zaigu inori eskutik heltzea, liburuari heltzea baino.

A Brasileira kafetxea 1904. urtean ireki zuten. Handik urtebetera, kafetegi horretan bertan -Pessoak berak edo bere heteronimoetako batek, hori ez dago jakiterik- ezagutu zuen Coimbrako neska batekin ezkontzeko aurreprestaketak egiten ari zela, Pessoaaren emaztegaiak konortea galdu zuen. Alferrikakoak izan ziren Fernando Pessoa eta inguruko zerbitzariak bera suspertzeko egindako ahaleginak: emakumea hilik zegoen, bihotzekoak jota.

A Brasileira kafetxearen jabeak, heteronimoen abantailarik ez zuenak, deskontsolatuta, luze itxita izan zuen kafetegia gertaera lazgarri haren ondorioz. Diotenez, honoko ohar hau jarri zuen atean: «*Fechado por tristeza*».

1909. urtean, Pragako Ramdice kaleko arotza mahai baten hanka oholari lotzeko lanetan zebilen, eta iltze pareak zeukan haginaren artean, mailua eskuan.

Orduan agertu zitzaion gizon hura, aulkia arrastaka zekarrela.

Arotza, iltzeak ahotik kendu, amantaletik txirbila astindu eta zain geratu zen, bezeroak bueltan zekarren aulkiak zer matxura edo zer tatxa izango ote zuen igarri ezinik.

Arratsaldeon, Jaroslav.

Arratsaldeon...

Franz naiz, ez dakit akordatzeko zaren...

Bai, Hermann Kafkaren semea, ezta?

Huraxe. Baina aitak otorduetan mahaiaren nire zatia papurrez gainezka neukala esan zidanez geroztik, ez diogu elkarri hitz egiten.

A, tira... Be... Enfin... Zer zenuen... bada? Bost aulki eramanez zenituen aspaldi ez dela, ezta?

Salakoak ongi daude, baina bosgarren hau lanerako behar nuen.

Ez da eroso?

Erosoegia da, horra arazoa.

Erosoegia, Kafka jauna?

Gogoratzen eredutzat ekarri nizun aulki zahar hura? Hura bezalakoxe bat egiteko esan nizun. Eta hau ez da hura bezalako.

Berdin berdina egin dut, jauna... Soilik... Bizkarraldean koska bat zuen hark eta berriari leundu egin nion...

Koska hori zen hain zuzen aulkiak zuen osagairik garrantzitsuena, Jaroslav.

Eta orduan azaldu zion Kafkak arotzari aulki hura lanerako behar zuela, idazteko premiazkoa zuela ezinegona bere onena emango bazuen, eta erabat eroso bazegoen ezin zuela ondo idatzi. Eta ea nola idatziko zituen, *Amerika*, *Metamorfosia*, *Gaztelua* eta buruan zeuzkan istorio kafkiar haiek guztiak, baldin eta aulkiak bizkarran minik egiten ez bazion.

Koska mingarri hori garrantzitsua da niretzat, Jaroslav. Etengabe norbaitek pistola batekin mehatxatuko banindu bezala da. Eta orduan bakarrik idatz dezaket ondo, nik dakidan bezala.

Jaroslavek ez zion ulertu, baina Kafkaren begirada zeharkatzen zuen labana distira hark kon-

bentzitu zuen. Agian esan egin behar zion Fran-  
zek arotzari, bazekiela pistola hura ez zegoela  
kargatuta, eta hori jakiteak, min hura jasaten la-  
gundu eta edozein jainko bezain boteretsu sen-  
tiarazten zuela idazlea.

1920. urtean, Ivan Revinsky zirku enpresariak  
bi erabaki garrantzitsu hartu zituen: lehena, zir-  
kua karpa erraldoi batekin estaltzea, artistak  
eguraldiaren mende ez egoteaz gain, ingurueta-  
ko etxeetatik ikuskizuna inork doan ikus ez  
zezan, eta, batez ere, herrietako plaza nagusie-  
tan bizkarroiren batek bere balkoia merkezu-  
rrean alokatuta negoziarik egin ez zezan.

Ivan Revinskyk gorria eta zuria hautatu zi-  
tuen karparen kolore. Gorria, hasi berri zen iraul-  
tzaren eta langileriak zainetan zuen odol borbor-  
kariaren omenez –gero benetako suertatu ziren  
zurrumurruek ziotenez, zirku langileak beren  
gain hartu eta estatuaren soldatapean jartzeko  
asmoa zuten agintariek-. Zuri kolorea aldiz, erru-  
siarren esku eta arima garbiaren ordezkagarri  
hautatu zuen (eta, arrazoi hau Ivan Revinsky en-



presariak ondo bere kolkorako gordetzen bazuen ere, iraultzak frakasatuz gero, tsarren aurrean bere burua zuritzeko ere balioko ziolako karparen marra zuriak).

Ivan Revinskyk hartu zuen bigarren erabakia, zirkuaren inguru osoa banku korritu ilaraz betetzea izan zen, anfiteatro eramangarriak sortuz, antzinako Erroman ohi zutenez, xutikako ikusle-goari atsedean emanez horrela, eta jendeak aulkiak etxetik ekarri beharrik izan ez zezan aurretantzean. Publikoa elkarren kontra estutuko zen banku korritu eramangarri eta deseroso haietan, helduen gabardinak umeen gabanen kontra, proletarioen patrikak beste proletario batzuen patriken kontra, nerabeen ukalondoek elkar igurtziko zuten ogi gogorraren zakuan pilatzen diren ogi-koxkorrek legez, eta barbarik egin gabe maiteminduko ziren gero gaztetxo haiek, inozentzia galtzen hasiko ziren, ukalondoetatik lehenbizi eta elkarrengana estutzen ziren zapata eta belaunetatik gero, ezarian-ezarian.

Bederatzi urterekin poliometisak erkindutako belaunburu haiek, elkarri musu ematen zioten kalaberatxoak bailiran.

1943. urtean, Pablo Picasso eta Dora Maarren arteko harremana izorratzen hasia zen jada (*Oi, jenioak, oi, zoin diren tirano! Inguruan duten jenio oro maxkal-itzaltzeraino!*). Pablo Picassok, lanerako erabiltzen zuen txatartegiko horman egindako zulo batetik zelatatzen zuen Dora Maar. Dora Maarrek, estudioko burdina eta trepeten artean zer aurki zebilela, karrerista bizikleta baten eserlekua topatu zuen. Eserleku luzexka eskuetan hartu eta hankartean estutu zuen, ezkutuko behatxulotik emakumea espiatzen zuen Pablo Picassoren harridurarako. Aurrera eta atzera, gora eta behera, barrura eta kanpora igurtzi zuen karrerista bizikletaren pieza hura Dora Maarrek bere hankartean, eserlekua plazeraren objektu ezkutu bihurturik.

Gau hartan bertan, Pablo Picassok bizikletaren eserlekuari karrerista bizikleta baten heldulekua lotu eta zezen baten aurpegia irudikatzen zuen eskultura egin zuen haiekin. Heldulekuaren kiribildura aker-adarren antzeko hari esker,

Dorak bizikleta baten eserlekuarekin adarrak ipini zizkiola irudikatu gura izan zuen, nonbait.

Picassok, beste era batera kontatzen du istorioa, jakina: «Egun batez, txatarra pilo baten erdian bizikleta baten eserlekua topatu nuen eta haren ondoan herdoildutako bizikleta-helduleku bat. Berehala, bi parte hauek nire buruan elkarrekin lotu zituen irudimenak... Zezen buruaren ideia, ia pentsatu gabe etorri zitzaidan... Bi zatia soldatu besterik ez nuen egin behar izan. Brontzezko eskulturen gauzarik ederrena horixe da: halako batasuna ematen diote elkarrekin bati zerikusirik ez duten objektuei, zaila baita batasun hori osatzen duten elementuak elkarrengandik bereiztea. Baina hortxe dago arriskua ere: ikusleak zezenaren burua besterik bereizten ez badu, eta ez bizikletaren eserlekua eta heldulekua... Orduan eskulturak interes guttia galtzen du... Agian harrika bota behar nuen zezen buru hura. Kalera jaurti, erreka batera, edonora... baina harrika bota. Hartara, obrako langileren bat handik pasa eta hartu egingo zuen. Akaso konturatu egingo zen zezen buru harekin bizikleta baten eserlekua eta heldulekua

egin zitzakeela. Eta halaxe egingo zuen gainera. Hori bai, zoragarria litzateke. Metamorfosiaren dohaina».

1961eko uztailaren 21ean, Ernest Hemingway, Ketchun, Idahon, Union kaleko bizartegiko aulkian esertzen delarik, ahul bezain desanparatuta sentitzen da. Amorragarriak zaizkio han kloroformo eta anesthesiarekin lotzen dituen usain eta lurrinak. Ileapaindegikoa, aulki bainoago, *ahulki* zaio. Badaki jakin, garai batean haginlariarena ere egiten zuela bizarginak. Ez zeru eta ez infernu, minaren sentipenak eta plazerarenak nahasten diren linbo badaezpadakoa begitandu izan zaio beti bizartegia. Badaki herriko alkatearen eta abadearen ondotik eta sendagilearekin lehian, bizargina bera zela garai batean herri txiki-txikiaren hirugarren botere faktikoa. (Aipatu beharrik ere ez dago aseguru saltzailerik onenak zirela antzina bizarginak, bizar-labana zorrozten zuten bitartean galdetzen zutela, «bizi aseguru-rik ba ote duzu? Salduko nizuke bat, modu onean... Inoiz ez da jakiten noiz...»).

Ez zaio Hemi erdi etzanda egotea gustatzen. Ez emakumerik ondoan ez duela behintzat. Etzaulki trakets hark Gerra Handian anbulantzia gidari jardun zueneko gomuta dakarkio burura.

Hemingwayk, barberoaren *ahulkian* esertzen delarik, ez daki oraindik John Cheeverrek urte gutxiren buruan ipuinari buruz zer esango duen: alegia, ipuina dela haginlariarenean hagina ateratzeko zain gaudela gure buruari kontatzen dioguna (nobela bat kontatzeko denbora askirik ez eta, ipuina behar du derrigor). Hemingway, zaileago zen ipuina izeberrarekin konparatzera, agerian utzi beharrekoaren gainetik urpean geratzen den eta irakurleak intuitu behar duen zatia gorestera. Baina izeberretik haginera ere ez dago hainbesteko aldea, Hem: izeberrak urpean dauden, guri bost. Txantxarrak jotako haginak ordea, zenbat lan ez ote digun ematen atera nahi ez duenean! Beharbada zuzenagoa, egiazkoagoa, giza pairamenarekin lotuagoa da Cheeverren konparazioa.

Hemingway Chicagoko haurtzarora itzultzen da bizartegiko *ahulkian* eserarazi, moztuko dioten ilea bildu, bizarra eskuilatu, eta alkandora-

ren paparretik barrura moztutako ile gogaikarri-rik sar ez dakion oihala lepo inguruan lotzen diotenean. Toreatzaile batek kapotea nola, halaxe haizatzen du oihala bizarginak ehiztariaren lepo inguruan lotu aurretik. Estafeta karrikarekin akordatzen da orduan Hem. Hasieran kapotea iruditu zaion eta orain lerre-zapi erraldoia begitantzzen zaion hori soinean, gero eta suminduago dago. Ospitaleetako gaixoei jartzen zaien txabusina ez ote da bada, bizarginak lepoan lotu diona? Barregarri sentitzen da, tuberkulosiak joto-ko gaixoa bezala, ipurzuria agerian, biluzik balezego legez txabusinaren pean. Erretxindu egiten du hain otzan sentitzeak. Haragi xerra eder bat jan behar nuen, konbatearen aurretik, esan dio bizarginari. Honek, gizon handiei zerbait ulertzen ez zaienean egin daitekeen gauzarik burutsuena egin du: ez dio ezer erantzun.

Leihotik begiratzen du Hemek kalera, erre-txin, bere auzoek tesitura barregarri hartan ikus ez dezaten jainkoari erregutuz, segidan bere bu-ruari gogorarazteko, jainkoarengan ez duela *gehiegi* sinesten. Baina ipurzuria agerian senti-

tuz gero, ez ote dago dena justifikatuta, baita jainkoarengan sinestea ere?

Barberoenea denboraren igaroa neurtzeko leku ederra da Hementzat: txikitan, aulkiaren gainean ohol bat jarrarazten zuten, bera ohol gainean eseri eta ile-moztaileak makurtu gabe lan egin zezan. Oraindik gogoan du ze harro zegoen larruzko aulkian oholik batere gabe eserazi zuten lehen aldi hartan: galtza luzeak estreinakoz janztearen pareko zerbait zen. Hazi ahala, osabaren ahate-haztegiko zurezko atean labanarekin bere altuera koskaz koska nola handitzen zen markatzearen antzeko zerbait.

Ilea sarri moztea estatua bihurtzeko bide segurua ere bazen. Hem saiatzen zen ilea mozten zioten bitartean zirkinik ere ez egiten. Bereziki, hamabost urte zituenean, deskuidatuta ukalondoa aulkiaren besotik apur bat kanpora atera eta aulkiari pega-pega eginda ilea mozten ari zitzaien ile-moztailearen zakil gotorra nahi gabe ukitu zuen hartaz geroztik. Halakoa izan zen barberoaren haragi puska hark ukalondoan eragin zion inpresioa, ez baitzuen bakerik izango, harik eta Parisen Scott Fitzgeralden zakila berearekin

alderatu, eta berea ere, idazle estandarren mailan zegoela baieztatu zuen arte.

Urteak pasa dira eta joan da kalpar harroa. Dagoeneko ez dio ileak bizarginari garai bateko lanik ematen. Hemek ileapaindegian gehien gorrotatzen duena zera da, hala ere: nola mugiarazten dion bizarginak burua nahieran. Barailezurretik heldu eta gorantz tiratzen dio, bere lepoa itsasontziaren lema eta bizargina txalupako lemazaina balitz bezala. Umiliagarria deritzo antropologia irakasle baten mendean dagoen burezur inertearen pare sentitu eta buruarekin mugimendu zentzugabe horiek obeditu beharri. Behin baino gehiagotan saiatu izan da buruari tinko eusten, baina barberoaren hatzek -«boterea barberoaren hatzak bezain nazkagarria da», zioen Ossip Mandelstamek- makurrarazi izan dute beti; guraizeduna irteten da desafio guztietan garaile. Botere harreman hori gauzatu egin behar du azkenean bizarginak: nork agintzen duen adierazi. Armak berak dauzka finean, bere esku daude guraize zein bizar-xafla. Ondo zekien hori Luis Buñuelek, begia bizar-labana batez ebakitzea ez baita, askok uste duten beza-



la, surrealista, amesgaizto oso errealista baizik. Horregatik heldu da gaurko egunetaraino fotogramama horren lokamutsa. Ez da artea irauten duena, zirrara baizik.

Hem ehiztariak begitazio beldurgarri bat izan du oraingoan bizarginaren *ahulkian* eserita: ile-moztaileak burua heldu eta lepoa aurrerantz begira jarri diolarik, orein disekatuaren burua bere etxeko horman bezalaxe sentitu da.

Etixeratu bezain pronto, horman zintzilik jarritako oreina eta Afrikan ehizatutako piztien buruak hormatik kendu eta zaborretara bota ditu, bizilagunen harridurarako.

Erotu egin al gara?, galdetu dio neskameak kezkatuta, Hemek afaltzeko eseri nahi ez eta otordua zutik egiten duela-eta.

Eseri ni? Ez naun ni berriz berehala eseriko!

Hem, lepoko giharrak askatzeko ahalegina egin eta mandiora sartu da, bere azalari darion barberiako lurrin eta kloroformo usain loarazlea behi eta oiloen konpainia noblean uxatuko duelakoan.

Tamalez, ez du bere buruarentzat etxaldeko gainerako oilo eta behiekiko sentitzen duen erru-

kirik. Kulatan dituen lasto izpiak astindu dizkio armairutik atera duen eskopetari. Atsegina eta lasaigarria zaio lasto izpi lehorrak usaindu eta ukitzea, azkenekoz. Ez du hil aurretik lasto izpi horiek baino argiaren antzekoago beste ezer ikusiko.

2001eko irailaren 11n, George W. Bush, AEBetako presidentek, *cowboy* eta duelo gizonaren berraragiztapen politiko eskasa bezala ezaguna zenak, *cowboy* hitza ostera ere bere esparru etimologiko hertsira ekarri eta Asiako behi sakratuenei errapeak ondo husteagatik historiara pasako zen presidentek, haur-eskola batean jakin zuen Dorre Bikien aurkako erasoen berria. Umez inguratuta zegoen, umeei ipuin bat kontatu eta botoak irabazteko presidente batek egin behar izaten dituen irudi ariketa penagarri haietako bat egiten. Ume haiek ez ziren Maria Antonieta eta Luis XVI.aren seme-alaba jolastien oso ezberdinak: *medium class* inexistentearen habeari fermuki eutsi nahi zioten guraso zintzilikatu batzuen seme-alabak izanen ziren, ziur aski. Ume

haietako batek libre utzitako aulki ñimiñoan eserita zegoen AEBetako presidentea, nola egoten den atsedenaldiran boxeolaria kornerean managerrak eskainitako inbutuan odol-listu eta lerdaparrak tu egiten. Eta ume aulki hartan eserita jakin zuen hain justu presidenteak bere aholkulariengandik -belarrira esan zioten, azterketa batean mihipetik lagunari bezala- bere herria, bere lurraldea, bere marrak eta bere izarrak, historian lehen aldiz, erasopean zeudela.

Bush dinastiako George W. Bush presidenteak, George Bush CIAko zuzendari ohi eta AEBetako presidente ohiaren semeak, telebista kamerak betikotu zuten une hartan, behi bat jezten ari zen autista zirudien, begirada garden eta urrunean galdua. Zegoen jarreran eserita egonda, inguruan jezteko behirik eskura ez izateak bereziki harrituko balu bezala.

*Where the hell is the cow, boy?*

# Houdiniren anaia

Orain, zain nago. Eskuekin eusten diet oholaren bi ertzei. Hatzak zabalik hamar arte zenbatzen dut arbel baten aurrean eta andereño baten aurrean haur batek bezala. Zenbat dira hamar, Julinho? Haurrak esku biak zabaltzearen imintzioa egin, eta, oso ondo, Julinho, oso ondo, esaten dute andereñoek, karameluak oparitz bezala baina esku hutsik, umeen begirada laku gisakoarekin maiteminduta. Inoiz eskolara joan izan banintz jakingo nuen zer den hori, maistra bat nire laku gisako begiradarekin maitemintzea eta enparaua, esku bietan hamar hatz ditudala bezain seguru, horixe jakingo nuela. Ongi eutsiko diot eskuekin oholari. Hori da nire zeregina eta badakit ongi eutsiko diodala. Belaunek ematen didate beldur gehiago, belaunak minbera dauzkat gaur. Zain nago orain, ahoz gora etzanda, belaun eta eskuekin oholari eusten. Une batetik bestera anaia igoko da nik eusten diodan ohol horretara, eta bere ziminokeriak egiten hasiko da. Bere ziminokeriei esker bizi gara. Bizi edo

iraun. Buruz behera jarriko da anaia esku bien ganean eta oinez ibiliko da nik sostengatzen dudan oholaren luzera osoan. Horri esaten diot nik ziminokeriak egitea.

Baina ez da beti horrela izan. Maria Asunçao-rekin bizi ginen lehen. Maria Asunçao zaharra zen, amona bat, eta gure ardura hartu zuen bolada batez. Maria Asunçaoaren etxean bi erloju zeuden. Sarreran bat eta egongelan bestea. Biak geldirik. Hala uste izan genuen anaiak eta biok beti. Erloju haiek ez zebiltzala. Hautsa biltzen ari zirela alferrik erloju matxuratuak, beti hamabiak eta hamar minututan iltzatuta zeudelako orratzak. Harik eta, egun batean, gonbidatuak izan genituen arte. Eta hara, bai ustekabekoa: gonbidatuak genituen egunetan, erlojuak bazebiltzan, orratzak mugitu egiten ziren. Ez genuen denbora gehiegi behar izan Maria Asunçaoaren sekretuaz jabetzeko. Pena hartu genuen: gezurra zen, erlojuak geldirik zeuden zinez. Kontua zen, gonbidatuak genituenean Maria Asunçao ibiltzen zela gelaz gela, egongelatik sarrerara eta sarre-ratik egongelara, gonbidatuei barkatu-oraintxenator esan eta erloju haietako orratzak ezkutuan

mugitu eta aldiro hamar minutu aurreratuz, gonbidatuek erloju matxuratuen gelditasunari errepara ez ziezaioten. Maria Asunçãori lotsa ematen zion etxean gonbidatuak izan eta hauek erlojuen gelditasunari igartzea. Susmatu behar genuen zerbait: Maria Asunçãok beti deitzen zituen gonbidatuak hamabiak eta hamar minututan.

Maria Asunçao gaixoa. Bere eskasia igarriko ez balute bezala gonbidatuek ateratzen zien salda urri, ur hutsekoan.

Maria Asunçãok kalera bota gintuen, anaiak etxera neska bat lotara ekarri zuen egunean. Lotara eta larrutara, zertan engaina. Loa eta larruaren artean zer ezberdintasun dago ba? Ezer gutxi, bikien pentsamenduen artean dagoen berbera, nire anaia eta bion artean dagoen berbera, alegia. Auzoan zabaldu zen anaiak bortxatu egin zuela neska, baina anaiak esaten zidan: ez airean dabilen simaur hori irentsi, Julinho. Eta bali-teke nire anaiak ziminokeriak egitea, baina ez da gaizkilea.

Orain, zain nago. Hilkutxa batean dagoena bezala, baina gainean eta azpian baino ez ditut oholak, saihetsetako alde biak libre daude orain-

dik. Ze funeraria mota da hau, bordel? Ze bigarren eskuko zerraldo ziztrin da hilkutxa garden hau? Irribarre egiten dut. Irribarrea eta lasaitasuna sortzen baitu besteen inkompetentziak. Eta inondik ere, inkompetente hutsa da ohol biko zerraldo hau enkargatu duen ergela! Baina harira, Julinho, zoaz harira. Ez irribarrean giharrek behar duten indarrik alferrik galdu. Begiekin hamar hatz eta ohola besterik ikusten ez ditudala nago, zain. Giharrek tenk. Hamar arte zenbatuko dut eta bizitzaren pisua sentituko dut belaunetan eta eskuetan, anaia gainera igotzen denean. Lurrikarra batek astinduko du nire kanposantutxo pribatu eta arnas zabaleko hau. Ertz bietatik ihes egiteko aukerarik utzi gabe, ihes egiteko irtenbide bat uzten didan ilusioa sortzen didan hilkutxa hau. Baina ze funeraria mota da hau, bordel! Ez naiz inozoa, badakit harrapatuta nagoela. Mudantzak egiten genituen garaietako armairu haietako baten barruan banengo bezala, harrapatuta.

Mudantzak egiten genituenekoak, haiek bai garaiak. Ez zuten ez, luze iraun. Anaiak furgoneta bat inguratu zuen eta iragarkiak jarri genituen

han eta hemen. Eskribidore bat alokatu behar izan genuen eta hari ordaindu paskina idazteko. Zerbait laburra. Zein kantoitan egoten ginen eta zertara dedikatzen ginen. Hitz bakoitzeko hainbesteko bat kobratzen zuen eskribidore putakume hark. *Tolio Mudantzak. Limoiondoaren Kantoian*. Lau hitz besterik ez genituen jarri nahi, lau hitz, lau iltze bezala. Bi jartzeko besterik ez ailegatzten, ordea: *Mudantzak Limoiondoan*. Uleritzen zen, bai, ulertzen zen. Baina putakume hark lau hitz idatzita eduki eta bi ezabatu egin zituen lau hitzak ordaintzeko dirurik ez geneukalako. Eta aldea dago lau iltzetik bira, hilkutxez ari ez garenean ere.

Mudantzen garaiak. Lan txukun eta ondratu bat. Gauzak ez zitzaizkigun gaizki joan hasieran. Berehala hasi ziren, ordea, arazoak. Jende mizkinaren kexuak. Mudantzetan gauzak galdu egiten zirela... Normala, ezta? Zer nahi zuten bada? Gauzak galdu egiten dira hiri honetan. Zuloak badira, eskuak badira, ertz eta semaforoak badira. Eta gauzak galdu egiten dira, bai. Orduan eta gehiago mugitu behar izan, ba gauza gehiago galtzen dira bidean. Baina mudantzak egiten zi-



tuen, halere, jendeak. Zeuden baino leku txarra-goetara ez, jeneralean. Ba, gauzak galdu arren, pozik egoteko arrazoiak zituzten, alajaina.

Furgoneta txikia zen. Joan-etorri asko egin behar izaten genituen, eta zenbait gauza oinez lekualdatu ere bai. Koltxoiak eta oheak adibidez, lepoan hartuta eramane behar izaten genituen sarritan anaiak eta biok. Ez zegoen beste modurik. Eta gero kexatu egiten ziren etxe-jabeak, zikinak iristen zirela koltxoiak eta zartatuta oheburuko altzariak... Bordel, baina iristen ziren, ez? Ba hori. Galtzen zirenean galtzen zirelako eta galtzen ez zirenean galtzen ez zirelako. Gertatu zen behin, piano bat nahi zutela lekualdatu.

Piano bat, ez nazak izorra, Julinho.

Pianoak ezin dira lekuz aldatu. European ez dakit nola izango den. European agian bai, baina ez hemen. European agian txistu egin eta pianoek lau hankatan jarri eta egunkaria ekarriko dizute, magaleko zakur esanekoek bezala. Baina hemen ez. Pianoak. Monumentu tzar horiek. Corcovadoko Kristoa bezala. Nori pasako litzaioke burutik Corcovadoko Kristoa lekuz mugitzea? Pianoekin berdin. Corcovadoko Kristoari begira-

tzen diodan bakoitzean pianoaren musika dator-  
kit niri belarrira. Enparau tzarrak, biak.

Saiatu ginen, halere. Demonio, bai saiatu ere,  
bordel! Eskaileretatik erori eta tripa guztiak  
atera zitzaizkion. Ederra, pianoak atera zuen bu-  
rrunba. Baina, borroka hartan, bere tripak ziren  
edo gure tripak ziren. Halaxe esan genion piano-  
aren jabeari. Holandarra zela uste dut, eta hala-  
xe esan genion. Edo bere tripak ziren edo gu-  
reak, jauna.

Ez dakit Europan nola izango den, baina  
hemen horrela da.

Sutan jarri zen holandarra. Zuek mukitsuok,  
hau egiteko edaderik ez daukazue, ziur gidabai-  
menik ere ez duzuela, salatu egingo zaituztet!  
Anaia paparretik heldu eta eskaileretatik bota  
zuen, pianoaren atzetik. Anaiaren burrunba ez  
zen pianoarena bezain eskandalagarria izan.  
Corcovadoaren goreneko Kristoari begiratzen  
diodanean ere ez naiz normalean anaiarekin  
akordatzen pianoarekin gogoratzen naizen beza-  
la. Orduan gertatu zen labankadarena...

Auzoz aldatu behar izan genuen. Akabo mu-  
dantzen negozioa.

Aterik ez zuen Maria Asunçaok bere etxean. Ihes egitea errazagoa duk hartara, Julinho, esaten zidan anaiak. Baina orduan ez genuen ihes egiteko premiarik, Maria Asunçaok berak bota gintuen. Aristokrata bat zen Maria Asunção, baina esan dizuet lehen ze aristokrata mota: erlojuen orratzak hamar minutuero bere eskuekin aurreratzen zituen horietakoa. Lehenbailehen hiltzeko denborari bultza egiten dionetakoa. Ez zeukan aterik ere etxean. Anaia eta biok ez gara sekula atea dituen etxe batean bizi izan. Eta horratx, gorputz gainean oraintxe sostengatzen dudan ohol hau gainera erori zidan atea bezalakoa irudikatzen dudala, ireki ezin dudan atea, hori bai. Heldulekurik gabea. Auskalo zer dagoen bestaldean.

Zer egongo duk ba? Gauza handirik ez. Anaia ziminoarena egiten.

Gauza asko gogoratzen ditut hemen azpian nagoelarik, asfaltoaren gainean lurperaturik, lur azpian sartu gabe lurperaturik. Batzuetan, atzera egiten dut bizitzan, eta *bidezidorren errepa-soa* egiten dut. Joko bat da bidezidorren errepa-soa esaten diodan hori. Beste bidezidor batzuk

ibiliz gero zer egingo nuen eta non nengokeen. Nire buruari ipuinak kontatzea da, badakit. Nire burua engainatzea. Baina zerbaitetan pentsatu behar da, ez dago beti buru barruan piano doinua edo Corcovadoko Kristoa edukitzerik. Mundantza garaietara egiten dut atzera, eta koltxoi haietako bat nola anaiak eta biok oinez generaman oroitzen saiatzen naiz. Eta nola eseri eta *garoto* batekin koltxoi gainean borrokan hasi eta *garoto* horrek kutxilloa ateratzen zuen eta kutxillo horrekin, gurata edo gura gabe, koltxoia urratu eta koltxoiaren barruan ehun errealeko billeteak topatzen genituen. Milaka billete ehun errealeko.

Beste batzuetan, kutxilloa anaiarena izaten da holandarraren sabelean. Baina nahiago dut horretan ez pentsatu. Bidezidorrak errepasatzeak ez du ezertarako balio azkenean kutxilloa anaiarena bada.

Ongi zabaldu ditut eskuetako hatzak, tartea utziz, oholari hobeto eusteko. Hatzen arteko hutsuneei begira, *garoto* haren labana pirata baten labana bihurtzen da, eta beste labana bat oroitzen dut: Maria Asunçak zentro zibikoko zine-

mara eraman gintuen hartako filmean agertzen zena. Behin bakarrik eraman gintuen zinemara. Pirata batek hatzen artean labana iltzatu zuen, iltzatu eta atera, hurrengo hatz artean iltzatu eta atera, abiada bizian zurezko mahaiari ezpalak atereaz, hatzik ukitu ere egin gabe. Txundituta geratu nintzen. Zinema areto bat ikusten dudan bakoitzean, kutxilloa eta pirataren eskua oroitzen ditut, besterik ez. Ez ditut oroitzen anaiak aipatzen dituen itsasoa, itsasontzia, ron upelak, kapitainaren begiko partxea. Kutxilloa eta eskua, besterik ez da niretzat zinemaren historian.

Agian ziminokeria berriren bat asmatu behar genuke, bada adibidez sua jaten duenik ondoko kalean, guk baino diru gehiago irabazten dute horrela. Baina anaia tematuta dago honekin nahikoa sos ateratzen dugula. Erreal batzuk aurrera segitzeko. Niri iruditzen zait Maria Asunçaoarena egiten dugula guk: erlojua aldiro hamar minutu aurreratu... Baina atsoarena bezala, gure erlojua ere ez dabil bere kabuz, eta erjelarena jotzen besterik ez gara ari, ez? Ez dakit. Gauza arraroak bururatzen zaizkit hemen azpian, etzanda nagoen bitartean. Anaia ziminoke-

riak egiten hasiko da laster eta ni San Joan egunarekin akordatuko naiz. Betikoa. Eskuetan dudan ohol hau eta azpikoa San Joan egun batez lapurtu genituen. Sutarako zeuden eta guk sutatik salbatu egin genituen bi oholak. Eta ohol hauek ez al gaituzte akaso, gu sutatik salbatu?

Bakean gaude, beraz. Baina ez da beti hain erraza gauza guztiakin bakean egotea.

Hartu genituen lekura bueltatu eta San Joan egunez oholak erretzearekin amets egiten dut nik, hatzak piratak bezain zabalik oholaren kontra eta zuraren koska zakarrak begien aurrean ditudan bitartean, anaia nire gainera noiz igokoden itxoiten dudan bitartean, luzetsita. Has dadi-la behingoz anaia bere ikuskizunarekin, bordel!

Etortzeke dagoen San Joan egun bateko erreusaina datorkit sudurrera, eta hark sostengatzen du orain ohola. Ez nire eskuek, ez nire belaunek. Kearen usainak bakarrik. Ke horretan nire anaiak gaur tupustean bota didana hausnartu dut.

Atsoaren etxera eraman nian neska hura, egia duk, bortxatu egin nian. Ez hadi haserretu, Julinho, baina Julinho izena nuela esan nioan.

Gaur dena betikoa da, osterantzean. Betiko kontu berdina. Ezin dut ez Corcovadorik, ez zeru pusketarik ikusi ohol honi begira banago. Atea itxita dago. Iritsiko dira sasoi hobeak. Hamar arte zenbatu eta gainera datorren zama sentitzeko garaia da orain.

# Kare zurizko hormara itzuli

Begien aurrean dilindan nuen kinkearen argia da oroitzen dudan azken gauza. Hori eta esaldi bat, eta ez preseski eskumuturra estutzen zidan medikuak esandakoa, kanpindendaren kanpoaldean zigarro bat erdibana erretzen ari ziren bi soldaduetako batek besteari esandakoa baizik. Nola dakidan erretzen ari zirela? Nola entzun nuen kanpindendatik kanpokoa, barrukoa nekez entzun nezakeenean? Beti izan dut entzumen ona. Eta hilurren dagoenak ez du argi tunelik ikusten, baina badago zerbait, zentzuen bat-bateko zorrozte bat, logikarik batere ez duen norabide batean gauzatzen dena eta ez diona hilurren denari deusetarako balio, nire kasuan gertatu zen bezala, bere ohiko eskumenetik kanpo legokeen esaldi bat entzutea ez baita inolaz ere kontsolagarri. Eta esaldia hau zen, zehazki: zaurituari odolik ateratzen ez zaionean, izan liteke dagoeneko hilda dagoelako.

Hilurren egon nintzen, bai, baina zorionez, sorbalda zeharkatu zidan balak egindako zauria



garbia izan zen. Lurrean nentzala inguruan zartarazi zuten mortero baten metrailak bete-betean harrapatu zidan, ordea, eskuin eskua, eta hau ez, hau ezin izan zidaten salbatu, kinkearen kulunka eta trapu zurien estekatze presakakoaren artean galdu nuen eskua, sabaiko kinke kulunkaria bezain laxo gorputzetik banatua. Ez nuen eskua soilik galdu: besoaren zati handi bat ere bai. Ebakuntza egiten hasi bezain pronto ohartu nintzen esku hura malguegi zegoela, errazegi tolesten zela eta apartatuegi zegoela gorputzari lotzeko. Nire eldarnioan, besoa txito batzuek bizkarrean hartuta barre txikitan euren ezkutalekura eramaten zutela iruditu zitzaidan. Eta baita besamotzaren besamutur odoldua ardo merketan bustitako kortxo zati apurtu baten gisakoa zela ere.

Eldarnioak, esan dut lehen.

Zaurituari odolik ateratzen ez zaionean, izan liteke dagoeneko hilda dagoelako, ez nuke esango fuga baten eran behin eta berriz entzuten nituen hitz haiek niretzat ez zirenik, odol asko galdu bainuen neronek ere.

Besoa ibai baten ondoan lurperatu genuen, urki baten altzoan, eta han egongo da orain ere, dagoeneko urkiaren baitara korapilatu eta sus-traietatik adarretara egin ez badu behintzat. Txoriek erran beharko dute laztan, estutu edo txalo-imintzio egiten ote duen adarretatik. Ha-sieran ateratzen zitzaidan noizean behin ez neu-kan besoarekin agur keinua egin nahia, baina ez luzaro. Bezatzaile aparta da edonorentzat inoren aurrean barregarri geratzea. Astebete egon nin-tzen kanpaleku nagusian, hogei oheko oihal-den-dan, medikurik finena bufalo mandio bateko al-baitaria zen hartan, alta eman zidaten arte. Kan-tinatik pasa nintzen etxera bidean jarri baino lehen, ni mandiora ikustera etortzeko adorerik bildu ez zuten mutilak agurtu eta haiei zorterik onena opatzeko.

Moises barraren bestaldean zegoen. «Moises beti barraren bestaldean, zer gerta ere!», asko-tan egiten zioten tabernariari broma hura egun bibliko haietan. Ni ez nengoen, ordea, txantxeta-rako. Garagardo bat eskatu nion, atera zidan aparrik gabeko zer hura, eta gero besarkatu egin ninduen, esanez bezala, edatekoari falta zaion

aparra neronek emango diat estutu bihotz altxagarri honekin. Ez zidan ordaintzen utzi.

Ez zaik eta gabardinan botoi bat bera ere geratzen. Kuxidade horrekin ordaintzen utziko diadalakoan?

Arrazoi zuen. Ez zitzaidan uniformean botoi bat bakarra ere geratzen. Gerrara joan eta garagardo bat hartzeko kantinan ordaindu beharra patetiko samarra zen, baina halaxe izaten zen. Hedatua zegoen, ordea, uniformeei botoi urrez-tatuak erauzi eta unean-unean txanda egiten ari zen zerbitzaria laguna izanez gero txanponen ordeztu botoi doratu haiekin ordaintzeko ohitura.

Trenera igo nintzen. Leihorik itxi ezin zenez eta uniformerik eta gabardinarik lotzerik ez nuen, beso bat mahuka hutsarengana antxumatu egin nuen etxerako bidaia, hotzikaren menpe. Gerrak aurrera jarraitzen zuen eta ni etxera bidetan nintzen. Pozik? Inolaz ere ez. Nola ba. Eskuin besoa galdu nuen, ezingo nion aurrerantzean nire piano irakasle postuari eutsi. Alferrik aipatuko zizkidaten niri erretiroak eta diru-sariak. Musikak bizi ninduen ni. Zer egin nezakeen esku bakarrarekin? Saint-Saens eta Czernyren

ariketak? Argia egin zitzaidan une batez, esperantza izpi bat: Maurice Ravelek idatzitako piano-kontzertu harekin akordatu nintzen, oso osorik ezker eskuaz jotzekoa zen harekin. Ravelek berak, gerratik eskumotz itzultitako lagun barentzat, Paul Wittgensteinentzat -filosofoaren anaia bera- idatzi zuen. Ravelek, hark bai, jakin behar zuen zerbait oinazeaz, otu zitzaidan. Ez Mozart, ez Bach, ez Schubert, ez Bramhs ez beste inor. Ravel, hura bai benazko konpositorea, gure garaietara egokitua, lagun on, adiskide min, edozein laztan-etxetan topatuta ere hari brandy kopatxo bat gustura ordaintzeko moduko, Ravel.

Geltokian zain izango nituen etxeakoak, baina ez neukan haien erruki eta kontsolamendu hitzei ispilu egiteko kemenik eta zegokidana baino geltoki bat lehenago jaistea deliberatu nuen. Aire freskoa biriketan, oinez egin nuen bidea. Han zegoen herri-kaskoa, alde egin nuenean bezalaxe, metrailak hormetan egindako baztanga zipriztinen aldea baino ez. Musika-eskola itxita zegoen gerra hasi zenetik, baina atzeko atearen giltzek hantxe jarraitzen zuten, postontzian gordeta.

Ettxeari argizari, erretxin eta klera usaina zerion zoko guztietatik. Czerny eta Saint-Saensenak baztertu eta Ravelen obraren xerka hasi nintzen, han behar zuten partiturek, bulegoan. Ongi sailkaturik zeuden, abezekiro, eta berehala aurkitu nituen, kuku-erlojuaren peko tiraderetan: *concerto pour la main gauche*. Ez nuen, baina, ezker eskuarentzako kontzertu harekin berehala hasi nahi izan. Ez nuen hain erraz etsiko. Uko egiten nion oraindik nire besamotz izaerari, nolabait. Ravelekin saiatuko nintzen, bai, baina bi eskuekin jotzekoa zen pieza batekin. *Gaspard de la nuit* jarri nuen atrilean. Gero, estalkiaren gainean paratu nuen nire esku bakarra. Pianoaren estalkia altxatu gabe egon nintzen, tarte luzez. Estalkia ireki nuen. Hatz lodiaren eta erakuslearen artean oktaba baten tarte hartzen nuen doi-doi. Hatz erakuslearekin kurritu nuen pianoaren tekla bakoitza, lagun zaharren enkontrura aspal-diko partez datorrenak bezala, nota bakoitzaren arintasuna eta pisua, zaporea eta bolumena, biribiltasuna edo zorroztasuna neurtuz. Doinu barnerakoiak ziren batzuk eta jendetasunerako eginak beste batzuk, diferenteak denak. Kutxilloak

eta koilarak, beharrezkoak denak. Halako adibi-  
deak erabili ohi zituen gure irakasle zaharrak.  
*Gaspard de la nuit*, beraz. Ea ba. Eskuinaren mu-  
gimenduak ezker eskuarekin ordezkatzan saiatu  
nintzen. Hasiera ez zen zaila, *Ondine* mugimen-  
duaren arrankeari ekin niezaiokeen, motelago,  
tristeago, isilune gehiagorekin eta erritmo hautsi  
eta jarraikortasunik gabeaz bazen ere. Geroago  
baina, hortzetan neukan melodiari ezin jarraitu-  
ko niola ohartu nintzen. Eskua ez zegoen hor, ez,  
baina gorputzak, soin-enborrak, bizkarreko kirio-  
ek, hori ez balekitez bezala jokatzan zuten: eskuin  
eskuari bidaltzen zizkioten nik ezkerrera bidera-  
tu nahi nituen kinadak. Esku ezkerrarekin esku-  
inari zegozkionak egiteari utzi eta esku bakoitza-  
ri berea egiten utzi behar niola deliberatu nuen...  
Eskuineko eskurik ez neukan, ordea! Ez neukan,  
baina baneukan. Sorbaldatik sortu, sortzen bai-  
tzen eskuin eskuari zegokion mugimendua, mu-  
gimendu gauza ezin hura, hortz artean nerabilen  
melodia sastar eta patetiko harekin osatu beste  
erremediorik ez nuena. Sorbaldatik sortzen zen  
indarra ahora, hagin artera bidali behar nuen,  
melodia hortzetan barrena hustu, eztarrira bida-

li eta irentsi, baina indar hura erremediorik gabe joaten zitzaidan falta zitzaidan eskura. Bilatzen zuen hatzik eta eskurik aurkitzen ez zuen indar zapuztu hura itsasoan galdutako algena lako arintasun eta noraez batean amaitzen eta alferrik galtzen zen. Aulkia beheratu nuen, zorabiatzen ari nintzen.

Arintasun gehiegia sentitzen nuen gorputzaren eskuin aldean. Ez nuen ezeren falta nabaritzen, arintasun arraro bat baizik. Oreka mantentzea nekezago egiten zitzaidan oinez ibiltzean, areago pianoa jotzean. Kontrapisu bat behar nuen, hori izango zen agian irtenbidea. Kuku-erlojua eraitsi nuen hormatik. Gerrikoarekin korapilatu eta muinoiari lotu nion erlojua, nola hala. Hark ematen zidan halako sendotasun sentipen bat, kontrapisu bat eskuin aldean, esku inerte bat izatearen sentimendua, bederen. Eseri nintzen ostera pianotzarraren aurrean: tortura tresna mehatxagarria begitandu zitzaidan, une bate-tik bestera jiraka hasiko zen Erdi Aroko gurgil hezur-birrintzailea. Nire beso inertetik malguki bat atera zen: txori absurdu bat, lurra jo eta lehen kukuarekin batera isildu zena. Hura amo-

rrazioa. Gerrikoa askatu eta mila zatitan zartarazi nuen lurrean kuku-erlojua. Ez diagu erotu behar, pentsatu nuen. Kuku-erloju batek ez dikoiz hire besoa ordezkatu. Non daukak duintasuna? *Gaspard de la nuit* partiturarekin saiatu nintzen ostera. Baina ezin. Zoriak bere gutzieren arabera mahaian barreiatu geredi ustel eskukada baten pareko ziren kortxea tristeak eta karriariak baino ez nituen sakatzen. Marinel korapilo baten antzera tolesten zitzaizkidan hatzak jotzen saiatzen nintzen. Belauniko jarri nintzen piano aurrean. Sudurrarekin saiatu nintzen eskuin eskuaren lana osatzera, hortzetan galitzen zitzaidan melodia hura, hatzen ordeztu alga irudimenezkoen arintasun hura, sorbaldatik ora ez, baizik eta sorbaldatik sudurrera joan zedin. Erokeria bat zen, ezinezkoa zen horrela taxuz jotzea, belauniko jarrita ezin erabil nitzaiken pedalak. Burua teklen gainera erortzen utzi nuen, burrunbatsu.

Kutxilloak, kutxilloak, soinu torturatzaile eta barnerakoiak elkarren kontra erortzen.

Ravelek ezker eskurako idatzitako obra hura jotzearekin etsi beharko nuen. Edo Prokofievek,



honek ere Paul Wittgenstein mainguan enkar-guz, idatzi zuen piano-kontzertu harekin. Paul Wittgensteinek, bidenabar, ondo ulertzen ez zuen aitzakian, ez zuen Prokofieven pieza sekula jo.

Izan ere, nola joko zuen ba? Nola etsi? Nola jo gabeziaren musika? Nola munduaren doinu guztiei uko egin? Nola konformatuko nintzen ni ere Saint-Saens eta Czernyk ezker eskuarentzat egindako ariketekin, galdutako besoa behialako doinu harrapaezinetarantz lerraturik banuen?

Musika-etxeko lehen solairuan nengoen, kalearen parean, jendea sentitzen nuen leihotik niri begira. Tupustean jiratu nintzenean, ez nuen han inor topatu. Hartxintzarren gainean ihesi entzun nituen umeak. Nire irudipenak ziren agian, ez dakit.

Berriro saiatu nintzen, behialako ikasle baldar hura banintz bezala. Baina huts egin nuen ostera ere: soin-enborrean, bizkarrezurrean, oinen puntan sentitzen nuen melodia jaiotzen, bizirik jaiotzen zen gainera, garai batean bezala; umeki hila zen, ordea, eskuin eskura isuri ezin zuen gorputz guztiko irrika hura.

Alga galdua itsasoan, nire borondatea.

Amorrua hortzetan eta barailezurrean tenkatu-rik, lur jota, nire burua ezertarako gauza ikus-ten ez nuela irten nintzen musika-eskolatik. Ka-noikadak entzuten ziren urrun gorrian.

Orduan soilik jabetu nintzen egiaz. Ohartu nintzen hila nintzela, eta nire zati bizidun baka-rra beso lurperatu hura zela, bizirik geratu zen atal bakarra nik ez neukan hura zela. Lurpean zetzan, baina bizirik. Edo beharbada ez lurrean: beharbada urkiaren azalean gora abiatua zen jada, edo adarretan txori tranpa edo txori laztan-tzaile bihurturik, edo txalo-imintzioen egile min-garri bezain barregarri.

Bihurtu nintzen elbarriaren eta galdu nuen besoaren artean zegoen mundu huts eta isila, horixe besterik ez nintzen.

Gurasoek beso zabalik hartu ninduten. Ziza-reen pianoarekin Ravelen piezak jotzen jardungo zuen eskuin besorik gabe besarkatu nituen nik.

Ohitzen joan ginen denok gabezia horretara.

Baina, goiz batez, negarrez topatu nuen ama sukaldean.

Zergatik negar egiten zuen galdetu nionean ataria seinalatu zidan, ezer esateko ezgauza.

Atarira irten nintzen. Ez nintzen hasieran jabetu. Gero, haizea altxatu zuen eta lehortzen zintzilik jarritako arropa puztuek bereganatu zuten nire arreta. Lehortzen jarritako alkandora bakoitzaren mahuka banari korapiloa egina zion ume bihurriren batek, eskuin eskumuturraren parean, nire gabezia mahukara ekarri nahian bezala, alkandorari muinoi bat eginez.

Arnasa hartu eta arretaz behatu nuen ingurua. Ez nuen norekin haserretu eta nori oihu egin. Halere, norbait sumatu nuen inguruan: haurrak beti geratzen ziren urruti ez zela, haien bihurrikerien ondorioak ikusteko. Haurrak han izango ziren nonbait, gertu -nire piano ikasle ohiren bat ere bai, tartean, lepoa egingo nuke-. Banintzen zerbait beso bakarrarekin ere, eta gai nintzen denei nintzena erakusteko. Etxeko horma zuriak itsutu ninduen une batez. Belarriak zulatu zizkidan kanposantuko horma karezkoen kontra itzularazi ondoren fusilatzen zituzten lagunen kontrako tiroen soinu lehorrak. Gorreria apur bat makaldu eta entendimendua berresku-

ratu nuelarik, jauzi zalu batez buruz behera jarri eta baserriko kare zurizko hormaren kontra paratu nintzen, buruz behera, neukan beso bakarren gainean. Haurrek ikusiko zuten nire akrobazia, inguruan bazebiltzan. Horixe ikusiko zute-la. Haietako nor zen hura berdintzeko gai? Beso bakarra baina gihartsua horratik! Gaztea nintzen oraindik, entera zitezela. Odola burura iristen ari zitzaidala ohartu nintzenean, apur bat gehiago eutsi nion oraindik, eta oin bien gainean jarri nintzen, berriz ere. Ingurura begiratu nuen. Hostoen firfiran ikusi gabe sumatu nituen haurren begiak eta baita halako harridura aire bat ere, hego haizeak ekarria.

Une batez bakarrik, baina garaile sentitu nintzen. Jiratu ez arren, garondoan hirugarren belarri bat atera zidan haizeak, eta amaren negar intziriak erdu zitzaizkidan.

Aitak mailua eta soka luze batzuk ekarri zituen. Iltzeak hortzetan hartu eta kordel batzuekin zeharkatu zuen sukaldeko sabaia: lau-bost bider elkar-gurutzatzen ziren sokak han goian. Kanpora gabe, haur jardun mikatzengandik aparte, ekilibristaren sarea ematen zuten sukald-

deko soka haietan zintzilikatu genituen egun hartatik aurrera alkandorak gure etxean, barruko epelean.

Deseroso samarra zen, dena esan behar bada, otorduak sukalde-sabaiko soketan tantaka zeuden alkandora hezeen pean egin beharra. Askoz denbora gehiago behar zuten arropak lehortzeko, gainera. Baina amak ez zuen inolaz ere kanpoan alkandorarik zintzilikatu nahi.

Latza izan zen negua, eta pianoaren egurra, ez sutarako uste bezain ona. Ez nintzen, bestalde, sekula nire beso bakarrarekin ezelango indar erakustaldi berririk eginez karezko horma zuria-  
ren kontra berriro buruz behera jarri.

Saiatzen naiz ahazten, baina hortzetan topatzen ditut gutxien espero dudanean Maurice Ravelen *Gaspard de la nuit* eta amorrazioa. Ahoa estutu eta melodia minxor hori irensten saiatzen naiz horrelakoetan, itzul dadila soinu bakoitza sortu zeneko gihar ezkutura eta dagoela han bakan. Barrurantz negar egitea bezain ariketa zaila da hori.

Basoan barrena bakarrik nabilenean, lantzean behin asaldatzen nau bizirik dagoen nire

beso galdua haizeak astintzen duen urki batean, gorengo arrama batean, orein-adar bost hatzetan bifurkatuaren puntan ote dagoen sentipenak.

Oreinek joera handia daukate, ordea, zaratarik txikiena entzun orduko, burua jiratu eta betirako hanka egiteko.

# Bala bat patrikan

Kanpaiak bazkaria prest zegoela adierazten zuen. Bazkaria edo, ahora eramatera gindoazen ahi gisako nahaskin nazkagarri hura. Bazkaria ez zen bazkari, eta ez izateagatik, kanpaia ere ez zen kanpai, txapak txaparen kontra jotzean ateratzen zuen metal xaxtar baten hots lehorra besterik ez.

Denok ginen beldur, baina horrek ez zigun elkarri txantxak egiteko gogoia itzaltzen. Herren, itsu eta gorrei buruzko pasadizoak kontatzen ziren, jaiotzetik hala zirenak gerratik libratu zirelako eta haiei aiher genielako, edo akaso, heriotzari buruz eta maingu eta herrenei buruz hitz egitea, aukera gertagarri haiek konjuratu eta gulgandik uxatzeko erarik onena zelakoan.

Entzun duzue zurrumurrua?

Orain horrela esaten zaiek kanoikaden txistuei?

Leku lasaiago batera bidaliko omen gaitiztek.  
Nik ere entzun diat zerbait.

Hara, Leo! Honek ere entzun dik!

Bai: soro lasai batera eramango gaitiztek, burdinazko gurutzez betetako soro batera.

Belarria genuen fina. Edozein soinu bereizten genuen: fusilak kargatzen zirenekoa, granaden txistuak parabolaren goiengo puntuan zeudene-ko une mutua, eta batez ere, bazkaria prest zegoela adierazten zuen zintzarri hura. Usaimena aldiz, erabat galdua genuen harrezkero, bolboraren eta kearen erruz, ziur aski. Batzuetan, hala ere, gernuarekin nahasitako giza gorotz ustelaren kirats higuigarria ekartzen zuen haizeteak. Lubakietan bolo-bolo zebilen ipuin baten arabera, etsaiak libramendurako erabiltzen zituen upelak maldan behera botatzen zituen haizea alde zuenean, usain nazkagarri hura gure lubakietaraino iritsi eta horrek gure morala areago birrindu eta indar urrituko zuelakoan. Eta egia zen: hura bezalako ipuin ergelek lortu egiten zuten etsaiaren uzkitik ateratako azken uzkerra senti gintezen.

Behin, halako euritea izan zen lubakiek urez gainezka egin baitzuten: kanpora atera behar izan genuen, lupetzan itoko ez baginen. Egunek luze jotzen zuten. Eta hurrengoa aurreko eguna



bezain luze izateak harritu egiten zituen denak. Ez genuen ikasten. Ez genuen sekula ikasiko.

Ez zaudete hemen zuen familia putari idazteko, esaten ziguten.

Eta orduan, gure familia putari gu lurrarekin berdinduta izanen ginenean haiek bidaliko zizkieten gutunak asmatzen genizkion elkarri.

«P. andere agurgarria:

«Penak gain harturik idazten dizut zure semea fronteko lehen lerroan jasotako zaurien ondorioz hil dela esateko, Indioilarraren batailloiko Ezker Izterra dibisioko frontearentzat ezinbestekoak ziren lurrak hartzeko borrokan. Zure semea hilik dago, baina ukuilua gurea da orain. Hartu gure besarkadarik sentituena une lazgarri hauetan. Soldadu adoretua izan zen, eta bere portaera eredugarria izan da azken unera arte. Guretzat ere galera ordezkazina izanen da, eta Kantinplora Zaplatuaren Ordenako domina emango diogula jakiteak sendia poztu eta semeaz harro egoten lagunduko dizuen itxaropena daukagu.

«Granada baten leherketak zauri larriak eragin zizkion: jakin dudanez, kanpamendura itzul-

tzen ari zela egin zuen bere azken kukurrukua. Sufritu gabe hil zela ziurta diezazuket, honenbestez, ustekabean. Froga gogorak jarri dizkigute eta frontean lagun askoren galera nozitu dugu. Jakizu gure ejertzitoaren eta neronen babes osoa duzula une latzotan, ausarta baitzen galdu dugun soldadua, zure semea.

«Arren, ez izan zalantzarik eta idatzi helbide honetara edozein laguntza edo aringarri eman diezazukegula uste baduzu.

«Beti zure aginduetara... Antoine Brouillard, teniente koronela.»

Baina uste baino luzeago zihoan setioa, eta gero eta handiagoa zen gazteen desgogoia otorduetan txantxak egiteko garaian ere. Estebanena kontatu zuen norbaitek orduan, ahia plater funtzioak betetzen zituen kantinplorapeko aluminiozko katiluan nahasten ari zirelarik, ahora eramateko batere asmorik gabe. Sukaldaria zen Esteban, ahia hobeto ateratzen zitzaion hari, baina orain zaurituta zegoen, ohatila batean luze, morfinaren paradisuan atsedean hartzen.

Mirari bat izan duk.

Estebanena?

Bai.

Baina egia al duk bularrean zuela tiroa?

Richardek zutik jarri eta bere saihetsezurren arteko puntu bat seinalatu zuen, bihotzaren ondoko saihetsaren kurbara hatz erakuslea eramanez. Keinua barregarri samarra zen, zerbaiten meritua -zerena baina?- bere buruari atxiki nahi dionaren imintzioa.

Hementxe jo zioan.

Balak zeharkatu egingo zioan bular-kaxa, ala? Birikarik ukitu gabe?

Bai zera! Hori izan duk mirakulurik handiena ba!

Zer?

Bala patrikan geratu zaiola.

Egun hartan, aspaldi luzean ez bezala, Estebanek prestatu ez zuen ahi higuigarri hura irensteko asmotan ziren bakanek ere barre tti-kiari eman zioten orduan. Giroa ari zen pixkanaka pizten.

Nola geratuko zitzaioan patrikan, Richard?

Baietz! Patrikan geratu zitzaiola ba!

Ez diat sinesten. Bularrean tiroa jaso eta bala patrikan geratu? Lehen aldia izango litzateke...

Richardek, orduan, bere sinesgarritasuna kokolan jartzen zutenero bezala, sudur mintzak puztu eta gerraren hasieran denei banatu zieten petatearen barruan zegoen trepeta alferrikako hura atera zuen jakaren barruko patrikatik.

Oraindik gorde egiten al duk hori?

Pisua besterik ez dik, lehen egunean bertan utzi nian nik. Soberako pisua hobe lehenbailehen baztertu, Richard.

Richard uneka-uneka puzten zen, ikasle multzuek arbelaren aurrean ernegarazten duten seminaristaren eran.

Ez duzue ezer ulertzen!

Ulertu ulertzen diagu, baina ez diagu sinesten, Richard. Nola nahi duk sinestea Estebanek bularrean tiroa jaso eta bala patrikan geratu zitzaioa? Ez gaituk atzo goizean jaio!

Eta orain biblia xaxtar hori ateratzen duk atentzioa desbideratzeko... Irakuriezaguk salmo bat, ea errautsez egindako ahi nazkagarri hau ogi-edo bihurtzen den...

Zer jakingo duzue zuek! Biblia hau zian Estebanek bere alkondarako patrikan. Horregatik ge-

ratu zitzaioan bala bertan! Altzairuzkoa dik azala liburuak eta hark gerarazi zioan bala!

Ahia ahoan batera eta bestera zerabilten soldadu rasoek elkarri begiratu zioten, sinesgaitz, barreari eusteko ahaleginetan; eman ere barreari emanak izango ziren horrezkero, egia esan, baldin barreak ahi nazkagarri hura kontrako ez-tarritik bidali eta haren zaporea arnasbideetan biderkatzeko arriskuaren jakitun ez balira.

Zer esan nahi duk, Richard, liburuaren azal xaxtar horrek bala gerarazi zuela?

Ahi bola biriketatik desbideratu eta urdailera bidean jartzeko denbora doia izan zuten rasoek. Irria galderarekin ernatu eta galderaren doinuarekin batera kutsatu zitzaien bazkaltiar guztiei. Algara ozena zen, ofentsiboa, barre kuarteleroa. Richard sutan zegoen, lepo-paparrak eta masaila gorritzen hasiak, alkandoran zituen galoi urri eta estreinatu berriak bezain gorri.

Bai. Horixe bera!

Barre egin zuten denek. Barre eta barre. Aspaldiko partez heriotza urrun ibiliko zen kanpamendu hartako oihal-denda hartatik, zelai kixkaliaren gainean inprobisatutako behin-behineko

jantoki hartatik, barre ozen haiek uxatua. Nietzschek aipatu bide zituen jainko dantzari haiek, haiengan fedea izatea posible den jainko bakar haiek zebiltzan han inguruan dantzan. Richard haserre atera zen oihaletxetik.

Richard, Richard... Fedeak mendiak mugitzen dituela baina... Ez gaitzak izorratu!

Lasai joan zen eguna, lasai joan zen bitartean.

Ilunabarrean, literetara agertu zen sarjentua. Gazteetako batzuk lo zeuden jada korneta doinuak etzalekuetatik aterarazi eta firme jarrarazi zituenean. Sarjentuarekin zegoen Richard bera ere.

Hartu atsedean eta ireki petateak, arren.

Richardek mendeku gosea eta destaina zituena orain begietan.

Baten batek mespretxatu egin omen ditu eman genizkizuen hornidura tresnak.

*Hornidura tresna?* Azal gogorra behar zen gero patrikako biblia ziztrin bati izen hori emateko.

Sarjentua banan-banan hasi zen petateak ikuskatzen. Lasatu eta tinko jarritako kordelen

zarata zaurgarria baino ez zen entzuten: oihal urratua eta soka, lasatu eta estutzen, petateak bildu eta handik alde egitera joango bagina bezala. Baina ez, ez zen horrelakorik jazoko oraingoz, ez horixe. Banan-banan zerraion sarjentua petateak miatzeari. Gutako gehienok ez genuen tapa metaleztatua zuen bibliatxorik bertan, jakina.

Fede gutxiko gizonak! Ez al duzue gogoan erlijio batek bere gerizpean hartzen gaituelako gaudela gu hemen, besteak beste?

Richarden botei begira nengoen ni. Distira egiten zuten, baina ez bere begiek adina.

Neurriak hartu beharko ditut. Eta zuek ere bai. Zuek ere neurriak hartu beharko zenizkioke te zeuon buruei. Bala batek bularra kraskatzen dizuenerako neurriak. Hilkutxaren tamaina ego-kia izan dadin!

Richard hanka puntetan jarri zen. Orpoak elkarren kontra kolpatu eta berriro lur hartu zuten bere bota lustratuek, bere harrokeria hanpatuak. Begietako distira zen lur hartzen ez zion bakararra.

Ez dute Estebanena sinetsi nahi izan, sarjentu.

Sarjentuak, orduan, eskularru beltza erantzi eta jakaren barruko patrikara sartu zuen eskua, desgogora, igande arratsaldean eskupekoa eman eta berehala gastatu ondoren eskupeko berri baten bila etorri den seme-kozkorrari bigarren ordain bat eman behar dionaren gogo gabeziarekin. Tabako pakete baten tamainako biblia txiki bat atera eta gorantz jasozerakutsi zuen, denok ikus genezan. Metalezko azalean zulo bat zuen biblia txikiak, liburuxka erdi-erditik zeharkatzen zuena. Bala batena izateko handiegia irudituzitzaidan niri zuloa, baina besteak aho zabalik geratu ziren bibliari begira; erlijio baten indarra, mendiak mugitzen zituen fedearen boterea agerian zegoelakoan. Gutako inork ez zuen orduara arte sekula pentsatu Esteban hain fededuna zenik. Juxtu kontrakoa esango genuen gutako askok, ni tartean nintzela. Egia zen, beraz, Richardek esandakoa. Patrikan geratu zitzaion bala.

Sinesten duzue orain, fedegabeko babalore rasoak? Lotara ba, bihar egun luzea izango dugu eta!



Argiak itzali ondoren ere, Richarden harrokeria esekia eta bere pausoen eta bere orpoz orpo-ko zapaten larru igurtziaren txistu gogaikarria geratu ziren oihal-dendan, luzaro, lokatz hezearen eta etsaiaren gernu eta gorotz sunda nazkagarriari gailenduz.

Gauetz lehergailuak entzun ziren, baina urrun, banda bateko perkusio saila bezain gozo oraindik.

A zer kiratsa! Haizea gure kontra denean, hildako soldaduak zuhaitzetara jasotzen ditiztek, geronek hildakoen ustel usaina geronen sudurtzuloetan enterratzeko!

Hago isilik!

Ipuin haiek. Haizeak ekarritako ipuin haiek nahikoa, gure urdail-tutuak okagura sentitzeraino lizuntzeko.

Handik egun bira, jantokiaren kanpoaldean ginen, hotzari tabako konpartituaren haritik kanpora bultza nahian, zigarroak elkar banatu eta eguraldiaz kexu, gorroto genuen bazkari okaztagarri hura berandu zetorrelako eta oraindik kantina barrura deitu ez gintuztelako kexu, gorrotoa uxatzeko egunerokotasunaren gauza txikiez

kexu, familiakoek bidalitako gutun atzeratuak irakurriz, harik eta hatzak jelatu eta gutunera itsatsita geratzen zitzaizkigun arte. Hatz puntetan itsatsitako orri zati izoztuekin eta hitz zati izoztuekin bazkaldu behar izango genuen gero, eskuak ur hotzarekin ez bustitzeagatik.

Esteban hobeto omen zagok.

Lizentziatu egingo dutela entzun diat.

Horrek zauzkak horrek potroak! Lizentziatu eta etxera bidaliko ditek.

Hiltzear egon duk, azkenean. Prezioa hori baduk, nahiago diat nagoentxoan egon, zer nahi duk esatea.

Orduan entzun zen deia: kanpai ere ez zen kanpaia, txapak txaparen kontra jotzean ateratzen zuen metal xaxtar baten zintzarri hots lehor hura, gure belarri sailkatzaileentzat apur bat arrotz.

Bazen garaia. Eta total, tripa-zorriei ezeren zaporerik ez zuen ahi okaztagarri hura jaten emateko.

Estebanek fundamentu gehiago zian sukaldean, esan zuen norbaitek.

Oso ondo oroitzen dut, ni izan nintzelako jantokira sartzen lehena. Eta urte asko pasa badira ere, gerra hark gutako asko lurrarekin berdinduta utzi bazituen ere, bizitasun berezi batekin oroitzen dut oraindik une hura, espero ez ditugun ezusteko ederrak bezala epel, bizitzarekin berradiskidetzeko une bat bezala samur, sasien garratzenean masusta izpi gozo. Jantoki gisara antolatutako oihaletxeko errezela zeharkatzen lehena izan nintzen, bai, eta ohartu nintzen kanpai ez zen kanpai haren zintzarri hots xaxtar hark bazuela zerbait berezia, ez zela ohiko hots xaxtarra, izan hots xaxtarra izaten jarraitzen zuen arren, ez zela *ohikoa*. Beste zintzarri bat zen. Noizbait Richard seminarista ipurdimiazkatzailleak eta sarjentuak gure errespetu apur bat merezi izan bazuten -eta horri buruz ere baditut nire zalantzak-, egun hartantxe galdu zuten bertirako.

Jantoki hutsaren erdian, ahi nazkagarriaren usaina zerion lapikotik gertu zegoen Esteban, buruan oihaletxeko eta balak kraskatu zion bular-kaxaren gainean oihaletxeko, beso bat ere igeltsatuta zuela. Pattarra sobera edan due-

naren maxakan begiak nigan iltzaturik zituen, eta zergatik ez esan, pozik zegoen: metalezko petaka bati eusten zion onik zuen eskuaz. *Liberté, égalité, fraternité* inskripzioa zuen petakak, eta hitz haien ondoan, itsasoan ubera utziz zihoran belaontzi baten grabatua. Zulo biribil ttiki batek zeharkatzen zuen belaontziaren irudia, eta hala ere, belaontzia ez zen hondoratzen. Bala bat zegoen petakaren barruan -kax-kax: azken abisua antzokian atsedena amaitu dela adierazteko- petakari zintzarri itxura emaki bazkaritara deitzen gintuena.

# Literatura unibertsala eta ozeanoa

*Liberté, égalité, fraternité!*

*Liberté* eta nahikoa, gure kasuan. Hemen nik agintzen diat eta ez zagok berdintasunik. Dakienak eta talentua duenak agintzen dik, halaxe izan duk beti. Ez dakien jaunak, galeretan zain arraunak! Eta hirugarrenari dagokionez, *fraternité*, inoiz ez dut jakin oso ondo zer esan nahi duen hitz horrek.

Emana zuen kapitainak egun hartako lezioa, gabiaren goretetik. Gabiako likatan preso gertutako kaioari luma kendu eta idazten hasiko zen gero bere kaierean, anpuloski. «Mila behazunehun eta hobigarren urteko otsailaren laua da gaur, otsoen hilak laua izatea badauka behintzat...».

Urte asko falta ziren manifestu komunista sortzeko. Edo beharbada hainbeste urte igaro ziren idatzi zenetik, inork ez zuela jada gogoan.

Belaontzia duelo batean irabazi zuela zioten. Dueloan aurkari biak bizirik atera zirela, hala ere, elkarri tiro egin beharrean lekukoei tiro egin zietelako propio biek, hala zioen kondairak. Norberak bere aurkariaren lekukoari, jakina.

Joko bat bezala hasi zen dena: vikingoen eran biziko gaituk, esaten zuen kapitainak. Eta vikingoen eran egiten zuten: ekaitzak ekaitz, bela nagusia harro eta zabalik beti.

Bela ez biltzeaz gain, bazituzten vikingoek lege gehiago ere:

*Ez da ontzian berrogeita hamar urte baino gehiago eta hemezortzi baino gutxiago dituen gizonik onartuko.*

*Ez da hautaketan kideen ahaidetasuna kontuan hartuko.*

*Gizon bakoitzak bere laguna mendekatuko du, bere anaia balitz bezala.*

*Inork ez du beldurra adierazten duen hitzik esango, ezta egoera desesperatua edo arrisku-tsua denean ere.*

*Edozein gerra harrapakin, bere balioa txikia izanagatik, masta nagusiaren ondoan utziko da*

*beti. Hala egiten ez duena taldetik egotzia izango da.*

*Inork ez du eztabaida eta istilurik piztuko.*

*Debekatuta dago ontzira emakumeak ekartzea.*

*Debekatuta lurmuturretan gaua pasatzea.*

*Albisteak iristen direnean, inork ez dizkio bere kideei kontatuko, kapitainari baizik.*

*Ontzia portuan dagoenean, inork ez ditu ontzitik kanpo hiru gau baino gehiago segidan pasako.*

*Gizon zaurituek ez dute egun bete pasa arte zauria lotuko.*

*Dueloak ez dira sekula ontzian egingo, baizik eta basoan, hurritzen artean. Gizon batek hanka bat seinalatutako bidetik ateratzen badu, damutu egin dela ulertuko da. Biak ateratzen baditu, korrika ari dela.*

*Baina nora doa hau? Zer anabasatan gabil-tza? Nora goaz?*

*Oihalek nahi duten lekura!, oihu egiten zuen kapitainak.*

*Kapitaina belaren beheko aldean itsasoan zeramatzaten egun bakoitzeko marratxo bat egi-*

ten hasi zen tintaz. Sukaldariarekin fidatzen ez zela eta, despentsako kontaduriak eta agortzen zihoazen jatenen nondik norakoak ere hantxe seinalatzen hasi zen, denen bistara, belaren oihala bitakora-kaiera bihurtzeraino. Normandia-ko poema epiko baten zatia idatzi zuen hurrena, erdi txantxetan. Vikingoen legeak izan ziren handik bi astera denen bistara geratu zirenak. Zenbait lege erromatar ere bai, itsasontzi hartan haien baliagarritasuna zalantzagarrria bazen ere:

*Marko Tuliok eskubidea du bere erlauntzako erleak pertsekutatzeke, baita hauek Kaio Luzioren lurraldeetan barrena dabiltzanean ere.*

Haizerik gabeko egunetan ez bera txikikeriekin gogaitzeko agintzen zuen kapitainak, eta oihal handi hartan idazten ematen zuen eguna, luma tintontzian busti eta erabat bere baitara bilduta. Denbora gutxiren buruan, belaren beheko alde osoa zegoen zirriborratua. Marinelak askotan hurbiltzen ziren hara, beren atsedean unean, kapitainak idatzitako azken pasarteak irakurtzera.

Berak asmatzen ote ditu?



Ez dut uste. Inori entzundakoak izango dira. Hor kontatzen duen hori, gerrako istorio hori, entzuna nuen nik Saint Maloko portuan...

Kontua zen eskifaiakideak aski entretenituta egoten zirela istorio haiek irakurriz. Salgaien garrarioan egindako joan-etorriak laburragoak ziren hartara.

Asteak aurrera joan ahala, eskailera bat eginarazi zion kapitainak ontziko arotzari, oihalaren erdiko aldean eroso idatzi ahal izateko. Eskailera nahikoa luzea ez eta, goitik zintzilikatzeke zabu bat eginarazi zion handik bi astera.

Ez al litzateke hobe oihalak askatu eta lurrean idaztea, kapitaina?

Oihalak askatzerik ez dago!

Vikingoen araua hausterik ez zegoen. Sakratua zen hura, zerbait sakraturik bazen: oihalak zabalik beti.

Orduan eta bela-oihalean gorago, are istorio ulergaitzagoak idazten zituen. Bere lepotik barre egiten zutela eta, kapitainak debekatu egin zien eskifaiakideei istorioak irakurtzen jarraitzea. Marinelek haien arteko bat hautatu eta gorantz biddaltzen zuten gauero isilpean, kandela eskuetan

zuela, kapitainak idatzitako azken istorioen berri izan eta gainerakoei kontatzeko. Zoratu egin zela uste zuten. Gero eta gutxiago ulertzen zizuten kapitainaren istorioak. Herrialde urrun desagertuetan kokatuak edo oraindik sortzeke zeuden lurralde eta zibilizazioei buruzkoak behar zuten ez hanka ez bururik ez zuten ameskeria haiek. Hitzak asmatzen zituen, gero eta kriptikokoak ziren bere paragrafoak. Grafia eta hizkuntza bera ere asmatuak omen ziren azkenerako. Azken istorioak jakiteko irrikaz, hasieran denak ziren bolondres kandelarekin gabiara igotzeko, baina denboraren poderioz, gogoz kontra onartzen zuen zeregina zotzik motzena hautatzen zuen marinel koitaduak.

Kode zifratu bat ematen dik, batek zakik zer esan nahi duen.

Eskifaiakideetako askok utzi egin zuten kapitaina. Beste ontzi eta beste lan batzuk hartu zituzten, pena handiarekin. Baina kapitainak ez zion horregatik istorioak idazteari utzi. Zazpi urteren buruan, bela-oihalak alde bietatik idatzita zeuden, zuriune bakar bat ere utzi gabe. Hamai-

ka istorio zeuden han, baina jada inork ez zien arretarik jartzen.

Istorio haien artean ba omen zen kapitainak bere burua mastari lotarazi ondoren Bering itsasartean sorgindu nahi izan zuten bi itsas-lamiei buruzko kontu zirraragarri bat.

Ez dago garbi belaontzi harekin zer gertatu zen.

Itsas-lamiek barne-hezetasuna zurrupatu eta azal huts bihurtu zutela kapitaina diote zenbaitak.

Beste batzuek diote gau batez gabiaren gorenan zen istorioa irakurri nahi izan zuen marinel haietako batek erre egin zuela nahi gabe kandelak batekin. Nahita erre zutela oihala dioenik ere bada, inkisizio berantiar batek izan zuela zerikusirik. Oihal handi hura kortsarioek beren erasoetan tarratatu eta istoriorik onenak ganibetaz ebaki ondoren lapurtu egin zituztela diote sandiak eta berendiak: oihalak denak zuloz josita, ontzi fantasma bihurtuko zen azkenerako. Piraten antologietan behar luke beraz, istorio haien oihartzunik.

Nahikoa zabaldua dagoen beste iritzi baten arabera, Doverreko merkatari batek erosi zuen. Ontzia puskatan egin eta egurra ardi kortak egin eta larreak hesitzeko bidali ei zuen Eskoziara. Bela-oihalak berriz, toles-toles eginda saldu bide zizkion dirutza baten truke Joyce deitura zuen dublindar eszentriko bati.

Ez da falta kapitaina itsasoa utzi eta lurrean bizi dela espekulatzen duenik: hainbat ostatutan agertuak dira gau bakarra bertan pasa eta ordaindu gabe joan diren erromesen logeletan tinta beltzez idatzitako burkoak. Herrialde nordikoetan ere ba omen dira longainaren barruko forrua istorioz izkribaturik noraezean ibiltzen diren jendeak.

Erranak erran, aspaldi ez dela, belaontzia kapitainik gabe noraezean errari ikusi duela dioen arrantzalerik ere bada Antilletako uharteetan.

Portuko tabernan galdetuz gero, kalaka merkeak, sare-konpontzaileek lanean aspertzen direnean asmatutako kontuak besterik ez direla esango dizute.

Gauza bat da segurua: jada ez du inork dueletan lekuko izan nahi.

# Ez da ezer gertatzen

Bere amarekin akordatu da: betunaren hodiari nola sakatzen zion, zapatentzako krema horizontalki hedatuz zapataren gainean, hura trapezuetan zabaltzen hasi aurretik. Marratxo luze bat zen, eta marratxoaren ondoren, tarte bat eta betun puntu bat gero, betunezko harridura ikur bat zapataren gainean. Amak irribarre egiten zion Serantesi, hura betunari begira sumatzen zuenetan, eta batzuetan, bigarren harridura ikur bat aterarazten zuen betun hoditik. Jolas bat zen, jolasen adinean. Amak «ez da ezer gertatzen» esatea aski zen orduan, arazo guztiak desager zitezen.

Nerabezaroan mutututa egon zen hilabetez, bere gorputzarekin gertatzen zena ulertu ezinik, bere matrailezurra baimenik eskatu gabe hazten ari zelako haserre, bere bizarrarekin, bere azaleko pikor eta gorritasunekin amorratuta. Amak etsia hartu zuen, ez zion jada ezer galdetzen, harik eta, goiz batez, zapatak garbitzen hasi aurretik, seme nerabea berarengana makurtzen ari

zela sumatu zuen arte. Betuna zapatari erantsi gabea zuen artean, eta deus esan gabe, amak, harridura ikurraren orde, galdera ikur bat marraztu zuen egun hartan betunarekin zapataren punta biribilduan.

Berradiskidetzeko era bat izan zen.

Gustatzen zitzaion amak zapatak nola garbitzen zituen. Geroztik geratu zitzaion zapatei lustrea ateratzeko zaletasuna. Arazoak zituenean horixe egiten zuen: lasaitzeko, zapatak lustratu. Eta nik zapatei lustrea ateratzen badiet, zergatik ez da bada, arazo latz dirudien hori konponduko? Ez zion bere joera hura inori sekula aitortu. Baze-kien zer esango zioten: zapata bat ez zela lanpara miragarri bat, alferrik zela hura igurztea.

Mokasinei distira ateratzen ari delarik, bere amak zapatak lustratzeko zuen era harekin gogoratu da. Ez daki ondo non irakurri zuen, duintasuna mantentzen zutela adierazteko heriotzara kondenatutakoek zuten azken aukera zapata distiranteekin hiltzea zela. Ospitalera iritsi denean galduta sentitu da. Pasilloan doala, igandez jantzita joan arren, behin eta berriro begiratzen dio bere buruari, laneko trajebuzoa soinean ez

daramala erabat sinetsiko ez balu bezala. Dese-  
roso doa horrela jantzita, bai. Kabezerako medi-  
kuak -zergatik dira medikuak kabezerakoak,  
oheen zatiak edo egunkarietako titularrak balira  
bezala?- eman zion papera galtzetako atzeko  
patrikan dauka, eta hamar metrero, eskua sar-  
tzen du patrika horretan, paperak bertan jarrai-  
tzen duela ziurtatzeko. Ez duk alferrik egiten Se-  
rantes, patrikek baditek berezko joera irense  
bat, zulo beltzen pareko halako indar desagerra-  
razle bat. Baditek indar hori Serantes, ondo ari  
haiz. Segi horrela.

Batoi zuria jantzitako emakume bat, laurogei  
bat urtekoa, oinez dabil noraezean. Erizain bat  
datorkio atzetik, presaka txikian.

Zer ari zara hemen, Begoña?

Begoña delakoak sorbalda uzkurdu du, errie-  
ta egin dioten umeak bezala, lotsatuta.

Ahaztu egin zait nire gelako zenbakia.

Ez da ezer gertatzen.

Sendagile bat inguratu da berehala erizainari  
laguntzera. Ez da ezer gertatzen.

Badakizu ze urtetan gauden, Begoña?

1945a dela uste dut. Bostarekin bada zerbait, gutxienez.

2005. urtea da, Begoña.

A, banengoen bai ni. Bostarekin zerbait.

Zenbat urte dituzu?

Berrogeitaka batzuk bai.

Badakizu ze urtetan jaio zinen?

Hirurehun eta laugarrenean.

Ikusten? Azkenean ere akordatu zara gelako zenbakiarekin!

A, bai. Eskerrik asko, jauna. Zenbat zor dizugu?

Sendagileak irribarre egin du, samurtasunez.

Ezer ez, Begoña.

Nola ezetz, izango duzu ba minuta bat, ezta? Zenbat zor dizugu? Esan nire seme-alabei, haiek ordainduko dizute, terrenoen dirua ere zerbaite-tarako dago, ezta?

Amona deskontsolamendutik erabateko duintasunera pasa da esaldi gutxi batzuetan, deigarria behintzat bada, galeratik duintasunerako bidea nola egin duen; Serantesek kontrako bidea bakarrik imajinatu izan du ordura arte. Pausoa azkartu eta aurrerantz jarraitu du pasilloan. Me-



dikuaren bolantea atzeko patrikan, mahoizko trajebuzoa etxean, bera deseroso, ateetako plakatxoetan X izpien gela adieraziko duenaren bila.

Ikustagun, Serantes zara orduan? Zurea goiko gelan egingo dugu. Ez dut uste izpien esplorazioa nahikoa izango denik.

Esplorazioa, esparru semantiko baten trazitioa, ez dagokion umore baten sorrera: txikitako kromo bilduma, tigrea, Marco Polo, itsasoa, Moby Dick. Ze urrun. Garai txarrak esploradoreentzat.

Balea baten hezurduraren flasha akuariumeko sala nagusian: bere birikak.

Kontuak ez dauka itxura onik. Goiko pisuan, bere lantegian behintzat, nagusia egoten da beti, eta goiko pisura igotzen den guztietan dardarka joaten da jendea, berri txarrak izaten dira gehienetan. Ospitaleetan ez du zertan horrela izan, jakina, baina entzuna du gaixo terminalak goiko pisuetara eramaten dituztela, edonola ere hiltzera doazenez, itsasora begira (Marco Polo, Moby Dick) bista onak izan ditzaten gutxienez. Igogailura bidean, aldean gidari doakion erizai-

naren izenik ere ez dakiela otu zaio Serantesi. Ez dio izenik ere esan. Edo agian esan dio eta ahaztu egin zaio?

Ahaztu egin zait nire gelako zenbakia.

Territorio zuri horiek ez dira memoria mantentzeko leku onak. Irristakorra da dena. Horretarako zegoen pentsatuta. Ohatilak, jendea, gaitxoak, hilak, biziak, negarrak, oihuak, arbel zurien gainean aise ezaba zitezkeen zirriborroak baino ez ziren haiek guztiak. Erizainaren bularreko plakatxora zeharbegirada bat lerratzen saiatu da, baina gaizki begiratu dio emakumeak, bularretara begira ari zitzaiolakoan.

Orduan bere zapatei begiratzea erabaki du: zikinak ditu. Seinale txarra, Serantes.

Igogailutik atera bezain pronto, arima ziniko, maltzur, edo sinpleki inkontziente batek zabalik utzi duen ate baten zirrikitutik zeladore eta erizain talde bat bereizi du, pastatxoak jaten eta xereza edaten, algaraka. Norbaiten urtebetez. Erizainek eta sendagileek, hilek eta biziak, denek betetzen dituzte urteak. Eta ospatzeko eskubidea dute, une horretan Serantesi hori onartzea kosta egiten bazaio ere. Nire tristeziak mun-

duaren tristezia behar luke elkartasun gisara, pentsatzen dugu horrelakoetan. Baina munduak ez du inoiz eskatutako neurririk ematen. Pozarren aldatuko genuke gure burua, ospitaletik alde egitear, poltsan arropak batzen ari den gaixo sendatu berri horren zoriagatik, ospitalean egon arren bere animo egoera jada ospitaletik urrun dagoen horren larrian egon nahi genuke.

Azalpenik ez. Deituko diotela emaitzak prest daudenean. Ezin ote diote ezer aurreratu?

Ez, baina nahi baduzu hitz egin medikuarekin.

Serantesek trajebuzoa soinean ez daramala berriro ziurtatu eta ezetz esan du. Igogailura bidean, hatz puntak atzeko patrikan sartzean, bolantea ez duela han ohartu da. Larritu egin da une batez. Lasai Serantes, paper puska horrek bete dik bete behar zian funtzioa. Telefonoz deituko ditek, hori duk hurrengo pausoa.

Kanporako bidean, bere gelako zenbakiarekin akordatzen ez zen emakumea ez dago pasilloan.

Zuzenean joan da ospitaletik lanera. Ez omen zeukan zertan. Ez zeukan zertan baina nahiago du horrela, trajebuzoa jantzi eta lanean hasi. Kate-lanean. Serantesek, xafletan iristen zaion kartoia hartu eta forma ematen dio, kartoi laua zena kartoizko kaxa bihurtzen du. Horretan lan egiten du Irungo diru-truke kabina itxi zutenetik. Txanpon ezberdinik ezean, txanpon trukerik egin beharrik ere ez, ondorioz. Eta bera kale gorrira. Doi-doi topatu zuen lan hori, bere adinean, zortea izan zuela ere esan zitekeen. Kartoi laua hartu eta kaxa bihurtu, behin eta berriro. Mundu aspergarri lauari erliebea ematea bezala. Bi egiten ditu minutuko, ehun eta hogeit hamar orduan, eta hortik aurrera, nekearen eraginez, orduko hamar kaxatan gutxitzen du erritmoa, egunero ko zortzi orduak osatu arte: seihun eta laurogei kaxa egunean, hiru mila eta lauhun astean, ehun eta hogeita hamasei mila urtean. Horietatik akastunak, errotulagailu beltzez *Kaxa akastunak hemen* jarrita dagoen apaleko zokora baztertzen dituztenak, apenas iristen dira lauhun kaxatara: profesional ona da. Beste bi langilek ere lan bera egiten dutela kontuan hartuta, lau-

rehun mila kaxa urtean, eta bakoitzean seinaxanpain botila, borobilduz, bi milioi t'erdi xanpain botila beraz, banaketa enpresak Europako superfizie handietara barreiatzen dituenak.

Agian ez zen xereza. Xanpaina edaten zuten agian erizain eta medikuek, algaraka, igogailuaren ondoko gela hartan.

Zorioneko jo izan du ordura arte bere burua. Lana nekagarria da, baina ez dio gehiegi pentsarazten, eta tailerreko makinak ez dira zarata-tsuegiak, ez da tornu batean lan egitea bezala. Lan garbia da.

Serantes, zergatik ez duzu eguna libre hartu?

Uste baino azkarrago bukatu dugu eta, pentsatu dut...

Egun baten gorabehera ez da ezer, gizona, hartu atsedean.

Nagusiak atsedean hartzeko esatea ezin daiteke albiste ona izan.

Inporta ez bazaizu... Atzeratuta nabil...

Serantes katera itzuli da. Kaxak muntatzen eman du goiza. Eguna. Astea. Astelehenean deitu diote berriz ospitaletik.

Ez, ez da ezer gertatzen, baina aurrez aurre esan beharreko gauzak dira. Berri txarrik ez, jauna, ez nik dakidanez behintzat, jakinarazlea besterik ez naiz, idazkaria... Nahi baduzu sendagilearekin jar zaitzaket...

Bere buruari begiratu dio, soinean du trajebuzoa. Kuxidade ederra mediku batekin hitz egiteko. Ezetz esan dio, joango dela. Badaki bidea.

Ospitalean, memoria galtzen ari zen emakumearen gelaren parean geratu da, jakinminez. Ez dago jada han. Haren ordeztan, emakume haurdun gazte bat, ohean atsedean hartzen. Gutxi falta zaio erditzeko. Bere ondoan, senarra behar duena, eskutik heldzen dion gizon erkin bat, aho zabalka etengabe. Urduri dago, leher eginda, emaztea bisitatzera etortzeko meategi bateko aho beltzetik atera berri balitz bezala. Aurrera jarraitu du. Zain dago erizaina.

Serantes?

Berehala eraman du sendagilearen aurrera, adeitasunez.

Serantes jauna da.

Ez du minbizi hitza inongo unetan aipatu. Ez du heriotza hitza inongo unetan aipatu.

Asuntoa hedatuta dagoen ikusi beharko da, horretarako froga berriak egin beharko ditugu.

Plurala erabili dik. Frogak bioi egin beharko balizkigute bezala, pentsatu du Serantesek, harrapazak. Asuntoa biona balitz bezala. Ez da ezer gertatzen. Ez, hiri ez, alu horri. Niri. Sei urte bai medizina karrera ikasten, gero hitz hura erabili behar izateko: *asuntoa*.

Asuntoa tumore bat da. Emakume haurdunaren gelaren paretik pasatzean, hau ohetik altxata, zutik aurkitu du leihotik begira; irribarre egi ten du sabel betea laztanduz. Ohean etzanda, bere orde z, senarra behar duena dago lo.

Ez dugu harritu behar. Beti izan dira indartsuak eta ahulak. Hondoratuak eta salbatuak.

**Autobusa** hartu duenean bere tumoreari buruz pentsatzen jarri da Serantes. Ez dago goibel, pentsakor bakarrik. Zer ote da tumore bat? Ba ote dira piano itxurako tumoreak edo ogi bat bezala luxeak edo madari ustela bezalakoak ukitu

eta lehertzen direnak, hatzak egun osorako itsaskor utziz? Nolakoa ote da berearen itxura? Izaki bizidun bat ote da benetan minbizia, sendagileei esatea gustatzen zaien bezala, beste izaki bizidun baten barruan? Merezi ote du errukirik eta barkamenik izaki horrek? Moby Dick bezalako izen baten bataioa beharbada? Ez al da bera izango Moby Dick, ez al da bera izango muntroa, marinel bat irentsi duena, bere barruan poxpolo bat piztea bururatu zaion marinel bat? Ederrago bihurtuko ote du eldarnio horrek bien arteko azken borroka? Begiak itxi ditu, eta pentsamendua bere giltzurrunen parera jaitsarazi. Gizon txiki bat da bera, mahoizko trajebuzoz jantzita bere zainetan barrena, pasillo batean barrena patinekin irristatzen, bere gelaren zenbakia ahaztu duen arrotz bat bere gorputzean barrena. Bere giltzurrunetik gertu, trafikoko polizia bat dago: Irungo aduanetako kasernan dago orain. Eta Irungo aduanetako kaserna bere giltzurrunetan, bai. Gauzak eta objektuak, taupadak eta klaxonak. Trafikoko polizia epokakoa da, barrengarri samarra, ingelesa, apur bat Buckingham palace, apur bat guardia noiz aldatzera doan gal-



detzeko gogoa ematen duen horietakoa, turista izanez gero.

Jakin daiteke nora zoazen?

Tumore baten bila nabil. Nirea omen da.

Pasatzen uzten dio poliziak eta hangar handi batera heltzen da Serantes, eta hangar hori eza-guna egiten zaio argirik ez egon arren. Eta orduan ikusten du. Eta ikusi orduko badaki hori dela bere tumorea, karratua da, kartoizko kaxa baten itxurakoa. Begiak ireki aurretik kartoizko kaxaraino hurbildu eta barruan zer dagoen antzematen saiatzen da.

Baina justu orduan autobus gidariak tupustean balaztari sakatu eta ireki egiten ditu Serantesek begiak, sustoarekin. Lastima, gutxi falta izan zaio.

Bere etxeko aldapari ekin aurretik igaro beharreko lurpeko pasabidera heldu denean, betiko mimoa dakusa bertan, betiko bere numeroa egiten: pailazoz jantzita, aurpegia tximeleta gorri bat. Organoxka single baten melodia xumeaz musika-kaxa batetik ateratzen den dantzariarena egiten du pailazoak: geldiro-geldiro destolestenda, nagiak kenduz bezala, kartoizko ka-

xatik kanporatu eta ballet postura bat entseatu ondoren, gelditasun berdinarekin atzera tolestu eta melodia bukatzerako kaxara bere burua bilduz.

Betidanik mimo hura talentu handikoa dela pentsatu izan badu ere, ez dio sekula ezer bota, baina oraingoan Serantesek txanpon bat bota nahi dio, bizitza horretan balihoakio bezala. Patriketan ez dauka, ordea, txanponik. Zorte txarra: agian tumoreak txanpon itxura du eta txanpona pailazoaren kapelura botatzea aski zen bere gaitza gainetik kentzeko.

Gero pentsatzen du Irungo diru-truke kabinan lan egin izan ez balu, ez litzaiokeela halako inozokeriarik otuko.

Akabo, Akab kapitaina.

Etsita, apustuen bulego batera sartu da, kanbioak eskatzeko asmoz. Lurra kiniela boletu porrokatu eta txikituz beteta dago, itxaropenarekin beteak izan diren zaldi lasterketen apustu-txartelak txikituta eta zimurtuta daude orain, zortetik izan ez dutenen paper zati hutsalak dira. Besapean daraman analisiaren sobrea hartu eta mila puska txikitan tarratatu eta apurtu du, ki-

niela paper-txataltxoen gainera bota aurretik; zorte apur batekin erratza pasako dute, eta zor-terik izan ez duten beste paperekin batera, zaldi karreretako izenekin nahasian joango dira pape-rontzira bere analisiko emaitzak ere. Bono-loto bat jokatu nahi luke: ospitalean bere gelako zenbakiarekin akordatzen ez zen emakume haren gelako zenbakien batura jarriko luke lehenik.

Jendea Billy Garlic izeneko boxeolari txiletar bati buruz marmarrean ari da hurrengo zaldi las-terketa telebistan noiz hasiko den zain. Billy Garlic, bai izen ederra. Bere potretari so egin beha-rrik ere ez dago Billy Garlic irabazle baten izena dela jakiteko. Kanadar baten kontra jokatzeko omen du pisu astunetako finala. Serantesek pen- tsatzen du berak ere baduela boxeolari abizena, eta pena litzatekeela pisu astuna zehazki zenbat kilotik gorako boxeolaria den jakin gabe hiltzea. Beti jakin nahi izan duen zerbait da: ze pisu ote dagokio berari? *Crucero, gallo, pluma, mosca, welter*. Ederrak dira boxeolarien kategoria ezber- dinak adierazteko erabiltzen diren deiturak. Bere zapatei begiratu die: ez dago lustrerik, ez dago

harridura ikurrik, urteen zamak eta kaleetako hautsak gain hartu diote haurtzaroari.

Zapatak garbitu behar ditut. Zapatak garbitzen baditut dena ondo aterako da, seguru.

Begiak itxi eta berriro ere bere gorputzaren barrura sartzen saiatzen da.

Irungo kasernara iristear dago berriro. Aduanako langileen lanpostuak kolokan daudela-eta manifestazioak egiten ari dira inguruan. Istilu usaina dago, giro arraroa. Berak, ordea, aurrera segi nahi du. Lankide batek ez dio pasatzen uzten.

Jakin daiteke nora hoan, eskirol alua!

Tumore baten bila! Nirea da! Eskubidea daukat!

Asuntoaren erdira, mamira, bere giltzurruneko kartoizko kaxara nahikoa gerturatzen denean, kartoizko bere tumore hura hartu, berau itxi eta kaxa apal diskretu eta ilun batean -*kaxa akastunak hemen* dioen zokoan, kasu- gorde-tzearekin nahikoa behar luke, pentsatu du.

# Raymond Carver

## Bilboko errebaletara heltzen

Goiz hartan, esnatu zenean, Raymond Carver zela ohartu zen, ez zela sekula gehiago Ricardo Goitia izango. Halakorik gertatzen zitzaion lehen aldia zen arren, ez zuen aldaketak ustekabean harrapatu, aspalditik baitzetozkion hasiera batean estonagarri zitzaizkion zeinu haiek: bere burua gaueko ordu txikietan idazmakina baten eta orrialde zuri baten aurrean aurkitzea adibidez, paradero hari buruzko inolako azalpen arrazoizkorik emateko ezgai. Etxeko zabor poltsatan ardo botila hutsak topatzea izan zen hurrena, berak kontzienteki inolaz ere halakorik edan ez zuenean. Esanguratsuak ziren, bestalde, botikinekiko sendagai haiek guztiak, ez Ricardo osasuntsuarentzat baizik eta Raymond Carverrek zuen minbiziarentzat behar zutenak.

Eta goiz hartan sentimendu osatua, azkenik: Carverren liburu bat hartu eta lerro bakoitza buruz zekieneko konbikzio sendo eta garaiezina.

Beharko buruz jakin. Bera zen eta lerro haien egile! Bera zen Raymond Carver! Lasaigarria ere bazen neurri batean, metamorfosi luze baten amaiera. Nerabezaro atzendu baten amaiera. Egunkariko albisteak ez zuen batere harritu, honenbestez: «Carver poeta eta narratzaile handia hil da Port Angelesko bere etxean». Jada baze-kienaren baieztapena zen; bere senaren adierazpen hura ez zen irudimen sukartsu baten fruitu. Joera hura bere kolkorako gordetzea erabaki zuen, hala ere. Nork sinetsiko zion? Eta, gainera, sinetsita ere, nor arraiok zuen bere ezagun eta senitartekoen artean Raymond Carverren berri? Inortxok ere ez. Ezta arrastorik ttikiena ere. Munduko gauzarik naturalena legez onartu zuen beraz bere nortasun berria, eta inolako traumarik gabe, inori ez aitortzea erabaki zuen.

Etxeak margotzen lan egin baino, nahiago zuen idazle amerikar baten larruan bizi, hau min-biziak jota egonagatik.

Halaxe abiatu zen Raymond Carver A Coruña-ko aireporturantz. Urtean behin behintzat, gurasoei gutizia betetzeagatik. Denak elkartu eta denak elkarrekin afaldu. Liskarrik gabe. Eztabai-

darik gabe. Aspaldiko gertakizun mingarri haiek oroitu beharrik gabe, ahal izatera.

Ia ahaztu zen opariaz. Eskerrak aireportuetan gero eta litxarrera gehiago saltzen duten. Bihotz itxurako askotariko gauzak edukitzen zituzten denda batean aritu zen, zer ingura: bihotz itxurako poltsa beroak, bihotz itxurako kojina, bihotz itxurako garunak (!), bihotz itxurako edozer. Bihotz formako izotz koxkorak egiten zituen plastikozko kubitera hautatu zuen, gehiegi pentsatu gabe. Salneurriaren eranskailua kendu eta bitan tolestu zuen paperezko poltsa. Taxi bat hartu zuen. Birritan esan behar izan zion taxistari gurasoen etxeko helbidea. Ez zuen, halere, taxilariak kalea berehalakoan aurkitu. «Ez nago ohituta hiriaren alde honetan», zuritu zuen gidariak bere ezjakintasuna. «Ni ere ez», Raymond Carverrek, bere artean.

Zalantzan egon zen une batez, txirrina jo edo ez jo. Azken bi urteetan izan zuen beti afari hartara ez agertzeko aitzakiaren bat, zela Galiziako herri galduren batean saihestu ezinezko azken orduko lan bat, zela bat-batean ohera kateatu zuen hotzeria bortitza. Matrailezurra aurreratu

zuen, goiko ezpaina behekoarekin bilduz. Woody Guthrie musikariaz oroitu zen: Ameriketako Estatu Batuak alderik alde zeharkatu zituen hark-trenetan polizoi tarteka, auto-stopean gehien bat-hamaika urtetan hitzik zuzendu ez zion aitarren hiletara joateko asmoarekin, halako asturu gaiztoz non berandu heldu baitzen. Orduan, besterik ezean, amarekin behintzat egon beharko zuela pentsatu, etxerako bidea oinez egin, atariko aldabari heldu, bigarren aldiz pentsatu, aldaba poliki-poliki bere lekuan utzi, jira hartu eta etorritako bidetik itzultzea erabaki zuen. Beste hamaika merkantzia tren, beste milaka auto-stop kilometro zain zituen New Yorkera itzuli aurretik.

Woody Guthrie zaharra. Gitarran «Makina honek faxistak akabatzen ditik» idatzirik zuena. Bob Dylan joaten omen zitzaion ospitalera, bere azken egunetan.

Raymond Carverrek etxeko atea zabalik topatu zuen, eta Woody Guthrie ez bezala, sartu egin zen. Barruan zeuden denak harrezkero. Suma zitzakeen atea zeharkatu orduko: bere arreba astuna eta honen senar koitadua, haurra



kapazuan zutela, anaia ehizarako fusila eskue-  
tan zuela batera eta bestera paseoan, eta gura-  
soak ere han, Carverrek oraindik ikusi ezin zuen  
umearen inguruan.

Gauzak ez ziren hain gaizki hasi. Ezer baino  
lehen, zumezko kapazuan lo zegoen haurra era-  
kutsi zioten, nola ez; ez zen hain txikia ere, ape-  
nas sartzen zen kapazuan. Polita zen, egia aitor-  
tze aldera, ez zitzaion gehiegi axola halako haur  
ederraren osaba izatea. Ez zeukan ez bere arre-  
ba itsusi aho okerraren ez haren senar abaildua-  
ren batere antzik, jainkoari eskerrak. Martini  
bana hartu ondoren, sukaldera sartu ziren, jate-  
koa denek elkarrekin prestatzeko. Ez zuten min-  
tzagai apartekorik izan. *Benetako* elkarrizketa  
eta munta handiko gaiak otordua ofizialki egiten  
zutenerako gorde nahi balituzte bezala. Gutxia-  
go edo gehiago, denek zuten zer egin, eta sukal-  
dea gustura egoteko modukoa zenez, ez zioten  
elkarri trabarik egiten. Otarrainak garbituko zi-  
tuen batek, tipula uztaiak ebakiko besteak, to-  
mateaz eta entsaladaz arduratuko zen hurren-  
goa. Jendetasunez hartu zioten txanda elkarri  
harraska eta sukaldeko iturri bakarra erabiltzeko

orduan ere. Gurasoak nahikoa alai zeuden itxuraz, hori zen balio zuena.

Baina bi orduko tartea setio luzea zen edozein familia sukaldetan, eta lehenengo ordu erdiaren ondoren, pasadizo alaiak eta azken urteko gertaera esanguratsuenak aletuak eta gertaera barregarrienak arras ustiatuak zituzten jada. Eta arrokekin gertatzen den ez bezala, mintzatzeko gaiak maiztuegiak direnean, ez dira batere eroso. Ez ziren beste munduko familia bat, ez zuten kontatzeko aparteko gertaerarik, ezta zituzten apurrak gatz-ozpintzeko talenturik ere: Carverren arrebak lan egiten zuen aseguru etxeko kontu aspergarriak, labana zorrotz bat eskuratu orduko nola-halako umore beltzguraz urtero kontatzen zituenak, -«ba al zenekiten eskuko hatz bakoitzak prezio ezberdina duela?»-; koinatuaren arrantza ibilera itzelak eta ibaian gorako konkistak, gurasoak prestatzen ari ziren Mediterraneorako itsas-bidaia hura. Carverrek bere pintaketa lanei buruz hitz egingo zuen gero. Bazirudien azken aldi hartan beren etxea konpondu eta margotzeko boladak eman ziola jendeari, arras lanpetuta zebilen. Aurreko urteetan

ez bezala, zuria eta izokin kolorea izan beharrean, kolore horiak, arrosak eta urdinak eskatzen zituen jendeak, gero eta gehiago. Pistatxo koloreak ere gero eta zale gehiago zituen.

Oso adierazgarria da. Garai berrien ikur dira jendeak bere etxeko hormak margotzeko aukatzen dituen koloreak. Ez zaizue iruditzen?

Pasa iezadazu burruntzalia, Ricardo.

Zalantzan egon zen. Merezi ote zuen aurreantzean *Ray* dei ziezaioten eskatzea? Ezer esan ez eta burruntzalia amari pasatzea erabaki zuen.

Horrela zihoan sukaldeko lana, bakoitza berean, berriketa laxoan. Gurasoei hogeita hamar garren ezkon-urteurrenean oparitutako zilarrezko platerak eta azpilak janariz bete eta egongelara eraman zituzten. Bere anaiari ez zioten aulkirik jarri, jakina, eta Raymond Carverrek berak inguratu behar izan zuen bat gehiago, istripuaz geroztik bere anaiak hitz erdi bat esateari uko egiten baitzion. Gurasoek gaitzespen keinu batez begiratu zioten Carverri. Egongela hartantxe gertatu zen dena. Afaltiarrek derrepente dena oroitu izan balute bezala izan zen. Sukaldean, azenarioak arrailatu eta letxuga garbitzen,

burua beste zerbaitetan izan zuten, familia bateko kideak elkar-ez-erasotzeko egoeratik, elkarri enbarazurik egin gabe elkar jasatetik egon daitezkeenik eta gertuen egon ziren. Han, aldiz, hamar urte lehenago gertakizun tamalgarri haiek gertatu ziren egongela hartan, inork ez zeukan zeresanik. Non zegoen, bada, otordurako gorde uste izan zuten *benetako* gai zerrenda? Non zeuden munta handiko elkarrizketa izarrak? Carver saiatu zen isiltasuna urratzen. Merezi zuen ahaleginak. Urtean behingo zerbait zen. Ez zen hainbeste kostatzen.

Ez dakit zergatik uzten diozuen Pablori eskopetarekin otordua hartzen. Laga ezak trastea jateko bederen, gizona!

Bere arrebaren begietako erresuminak gainezka egin zuen. Seko asaldatu zen. Oraindik piztia erditu zueneko hormonaren bat ibiliko zen bere gorputzean gora eta behera. Hala pentsatu zuen Raymond Carverrek.

Eta segi! Segi horrekin! Hasi gara, hasi gara berriro eroaldiarekin!

Apenas esan zuten beste ezer. Bere amak ardo botila hustua zuen berehala, ia-ia berak ba-

karrik hustu zuen gainera, inoren laguntzarik gabe. Edadea gorabehera, bere ama oraindik *moldatzen* zela alegia bakarrik.

Gehiegi edaten duzu, ama.

Gehiago etorriko bazinete ez nuke premiarik.

Ez hasi betikoarekin, badakizu lanpetuta gabiltzala. Ahal dugunean etortzen gara.

Raymond Carverrek ama-alaben arteko sesioaren aurrean ezentzunarena egin eta konplizitate keinu bat egin zion eskopeta lustratzen jarraitzen zuen anaiari. Itogarria zen egoera: zigarro bat erretzeko aitzakiarekin kanpora ateratzea erabaki zuen. Etxe barruan armak garbitu zitezkeen eta untxiak ehizatzekeo fusil bat sorbaldan jarrita afaldu ere bai, baina ez zegoen erretzerik. Etxe hartako legeak ulertzea ez zen samurra, egia esan.

Erretzeari utzi zeniola esan zenidan.

Aspaldi zen hori, arrebatxo. Elkarrekin egon ginen azken aldian zure alabatxo hori zapaburu baten udako gau bateko fantasia beroa besterik ez zen.

Arrebaren senarrak alfonbran galdu zuen begirada, masailak gorriturik. Ez zen erraza jakiten

bietatik zein, fantasia edo zapaburu hitza, izan ote zen gehien mindu eta lotsarazi zuena: mindu eta lotsatu biak batera egiten zituen beti giza-gaixo hark, abildade berezi bat eduki behar eta, harexen jabe zen bera. Arreba berriz, bere zaldihortz okerrak, batetik besterako tarte handiegi eta irregularrez banatuak -nekazari hasiberri batek elkarrengandik distantzia ezberdinetara landatutako hesolak ziruditen-, hortz haiek erakutsi eta marmar ozenean hasi zen. Baina ez zuen arrebaren erantzuna entzun, horretarako denborarik utzi gabe itxi baitzuen Carverrek bere atzean atea, danbateko batez, eta orduan bai, gauzak gaizki bukatuko zirelako irudipena izan zuen.

Zigarroa erre eta lorategia inguratzen zuen hesiari begiratu zion. Baita hesi hura ere. Hesi hura ere, bere arrebaren irribarrea baino ederragoa zen, bai horixe, erregularragoa. Luzera jauziak egitera jolastu ohi zuten lorategi hartan arrebak eta biek umetan. Lehen jauzian kale. Bigarren ahalegina orain. Berriz ere etxera sartu zenean, denek isilik jarraitzen zuten artean. Zapuztu zen giroa: umore onak betirako alde egina

zirudien. Arrebaren senar autista lurrera begiratu zen, arreba hitz ulergaitzak ahopeka zerabiltzaila, aita eta ama noiz edo noiz elkarri begiratu, noiz edo noiz elkarri ardoa zerbitu eta noiz edo noiz ardoa edanez. Bere anaia, eskopeta hartu eta egongela Erdiko Mundu Mapa Esferikora apuntatzen ari zen. Mundu mapari biraka eragin eta eskopetaren puntaz esfera biragarria gertatzea gustatzen zitzaion, munduko puntu bat zoriaren arabera aukeratuz, ez zegoen garbi zein helbururekin. Zaila zen jakiten zer zerabilen Pablok buruan: irribarre amultsua soinean zuen beti, baina hitz erdi bat bera ere ez zuen sekula esaten.

Kalifornia ingurua seinalatu zuen anaiak eskopetaz. Agian berari bai. Agian anaiari kontatu egin beharko ziokeen Raymond Carverren istorioa. Berak ulertuko zuen.

Infernu hartan umea zen esperantza izpi bakarra. Aingerutxo bat zirudien, han, kapazuan lo, gloria ederrean kizkurtuta.

Oparien aurretik, jolas gaitetzen apur bat pikerrean.

Azken aukera bat -erregalokoa- ematen duenaren ahots tonuaz mintzatu zen arreba. Benebenetan azken aukera bat ematen duenaren ahots tonuaz. Tira. Pokerra zen urte hartako bolada, beraz. Bere oroimen kaxkarrak ematen zioneraino, musean aritu izan ziren beti ordura arte. Amore eman zuen. Ricardok ez bezala, Raymond Carverrek bazekien pokerrean jolasten. Kartetan hasi zirenean gauzak apur bat hobetuko zirela zirudien. Bere arreba erretxindu egin zen ordea; mahaian utzi zuen zilarrezko zippoa banatzen ari zen kartak ikusteko ispilu gisara erabiltzen zuela salatu ez zuen ba! Izorratu beharra zegoen. Horixe bakarrik falta zitzaion. Gangster film gehiegi ikusi zituen neska hark. Oharkabea, aita eta ama lotara alde eginak zirela konturatu zen, bere koinatua ere txokora telebista ikustera erretiratu zela. Karta sorta hartu eta lurrera jaurti zuen bere arrebak, amorrazioz. Zaratarekin, umea esnatu eta aire-erasoen berri ematen zuen sirenotsarena egiten hasi zen.

Arimaren babes-sotoetan gordetzeko unea zen, baldin arimak halakorik bazuen.



Ricardo madarikatua! Zure errua da! Betiko matrakarekin beti! Lasai maite, lasai, tori karta bat jolasteko, ixo eder hori, lasai bihotz hori...

Amak ilunpean utzitako kapazua beragantantz erakarri, karta sortatik bat bereizi eta umeari eman zion, bere hatz lodiekin. Esku haiek gehiago ziren ume bat eskuetan hartzeko baino Land Rover baten motorra konpontzeko eginak. Zenbatean tasatuko ote zituen hatz haiek arre-baren aseguru etxeak? Umeak berehala karta zimurtu eta ahora sartu zuen, hari hortzaka eginenez. Bosteko bihotza zen. Baina ahoan zerbait edukiagatik, marru erdiragarriak botaz jarraitzen zuen ume demonioak.

Haur ttikiaren amak kapazuaren ondoko lanpara piztu zuenean, erabat lur jota geratu zen Raymond Carver: umea ere amaren iguala zen behin esnatu eta ahoa irekiz gero, hesola okertu eta altuera ezberdinetan landatuak ziruditen hortzoiak doi zulatzen zituzten bere hortzek.

Jaka gakotik hartu, zigarro berri bat erretzeko aitzakiarekin kanpora atera eta ehun bat metro urrundu zen etxetik. Jiratu eta atzera begira geratu zen une batez. Gurasoen goiko gelan argia

itzalita zegoen. Bi koadro beltz eta ohe isil bat imajinatu zituen han. Bere arrebak senarrari nola oihu egiten zion beheko pisuan. Dena ilun inguruan. Ez zuen ondo egin etxera itzulita: urtero zen berdin, ez beharra gertatu zenetik. Hama sei urte besterik ez zituen berak eta bere anaiak bi gehiago. Eskopetarekin jolasean ari zirela lehertu egin zitzaion bere anaiari aurpegian. Egun asko eman zituen ospitalean etxera bueltatu aurretik. Eskopeta sorbaldatik zintzilik zuela itzuli zen, txistuka, gaurdaino mantentzen zuen irribarrearekin. Ez gurasoak ezta arreba ere, ez ziren bere itzultzeraz jabetu. Carver bakarrik jabetu zen (narratzaile orojakilearen abantailak, pentsatzen zuen orain). Zerraldo batean zegoela sinesten zuten gainerakoek, auskalo nongo kanposantu batean lur emana, marmolezko hilarri baten pean. Berak ikus zezakeen, fusila garbitzen, trapua hartuta, salako munduko bola birarazi eta hari apuntatuz. Baina besteei ez zitzaien mahaian halakorik aipatzea gustatzen.

Beheko ezpainaz goikoa bildu zuen berriro. Beste ehun metro egin zituen eta gero beste ehun. Gurasoenera itzultzeko asmoa zeukan

oraindik. Gero, hiri kaskora oinez jaitsi, eta behin hara heltzean, aurkitutako lehen zabor ontzian utzi zuen, paperezko poltsa eta guzti, bihotz itxurako izotz koxkorrak egiten zituen plastikozko kubitera, oraindik jakako barruko patrikan zuena.

Agian norbaitek merezi zuen opari hura. Ziur baietz. Norbaitek merezi zuen. Baina ez zuen asmo eta jarrera egokiekin erosi. Opari bat erosten denean jakin behar da norentzat erosten den, eta opari hura erosi zuenean, ez zuen inor gogoan izan.

Kafetxe baten paretik igaro zen. Gazte batek irakurtzen ari zen liburutik soa altxatu eta begirada bitxi bat, irribarre harritu eta are bitxiago bat zuzendu zion. «Raymond Carver nauk, ohi-tzen hasi beharko diat», gatzigatu zion bere bu-ruari. Gustuko zuen, zertan uka.

Ez zuen bere hiria ezagutzen. Eraldatuta to-patu zituen kaleak eta auzoak, etxe asko ari ziren eraikitzen azken urteetan. Bera Raymond Carver bihurtu zen eran -zergatik ez bada?- hil-dako idazleak ote ziren etxe barru haietan horma-margotzaile?

Zoriari taberna bat aukeratzen utzi eta sartu egin zen.

Ez daukagu izotzik: izotz-makina izorratuta daukagu.

Ez zitzaiola inporta, hotza berak jarriko zuela.

Orkideei buruz hitz egiten ari zen bikote sofisticatu bat bere ondoan: fotometriaz loratzen dira orkideak. Ez temperaturagatik, baizik eta argiarekin. Horregatik hazten dira leku eta egoera txarretan, beste landare guztiak baino lehenago. Makina txanponjalea. Txinatar bat makina txanponjalean. Txinan krisiaren zeinua adierazteko beste bi zeinuren batuketa erabiltzen omen dute: arriskuaren zeinua eta aukeraren zeinua. Makina txanponjalea, moto bat kanpoan.

Trago bakarrean edan eta atera egin zen tabernatik. «Edariari uzteaz hizketan aritzen gine-nean ere sukaldeko mahaian eserita egoten ginen, edo kanpoan, pic-nic-eko mahaian, sei garagardoko sorta edo whiskya aurrean genuela».

Egia ote zen orkideak *argitik zetoze*? Begiratu behar zuen hori ondo.

Hotz egiten zuen arren, su-bajurako egur bila doanaren izpiritu suspergarria jabetu zen bera-

taz. Baina bere bizitzan ez zuen sekula su-bajurik izan, ez eta su-baju horretan erretzekorik ere.

Eta halere sentitzen zuen, bai. Izpiritu suspergarri hura.

# Berlin monogatari

Istripu bat izango da laster. Oraindik ez da gertatu, ordea, eta sinesten dugu badela aingeru bat belarri atzean gure eginbeharrak segidarik egokienean xuxurlatzen dizkiguna.

Geltokia baino lehentxeago, zubi akabuko aterpe horretan, soinu-joleitsu bat egoten da beti, betaurreko beltzekin, eta, hala ere, begietako zuringoa agerian, gorantz begira balego bezala.

Harritzekoa duk hor jartzea, akustika txarra zagok leku horretan.

Lurpeko pasabiderantz doazen horma-garbitzaileetatik gazteena musikazalea da oso. Nick Cave eta Lou Reedek zale, bereziki. Berlinekin lotura handia duten abeslariak dira biak. Berlinera joan nahi luke egunen batean, hori da bere ametsa.

Zergatik jartzen ote da beti hor soinu-jolea? Akustika penagarria dik lekuak, bota du bigarren aldiz, intrigatuta.

Esan liteke gaztea idealista hutsa dela: oraindik ez da ohartu txanponek ez dutela akustika berezirik behar.

Zaharrenak sorbaldak altxa ditu, isilik: puruzutarra du ahoan. Ez zaio musika interesatzen. Soinua jotzen duen itsu bat, soinua jotzen duen itsu bat besterik ez da beretzat. Karranka hutsa. Jende askori gertatzen zaio.

Horma-garbitzaileek urte asko daramatzate gazteek auzo hartako zokoetan egiten dituzten zirriborroak ezabatzen. Egia esateko, bakarra da, beti berbera, lurpeko pasabidean zirriborroak egiten dituenak. Halako akordio inplizitua erdietsi dute ezagutzen ez duten gazte horrekin: hasieran egunero egiten bazuten ere, bi egunez behin baino ez dute orain horma zuritzen. Horma-garbitzaile gazteari elkarrizketa antzeko bat iruditzen zaio hori, harreman bat -harreman singlea nahi bada, baina harremana finean-, pintada haiek egiten dituenaren eta ezabatzen dituzten arteko mezu trukaketa bat. Ez al da bada morse kodea txistu soil eta isiluneen arteko konbinazioa? Pintatzaileak txistu egiten zuen; haiek paratzen zituzten isiluneak. Egunero ez garbitu-

ta, bi egun ematen dizkiote hurrengo esaldia pentsatzeko. Asteburuarekin tokatzen bada, hiru.

**EZ GARA GU ONENAK!**

Nor izango ote da?, galdetzen du irribarrez egun hartako esaldia irakurtzean horma-garbitzaileetan gazteenak, beti lanera *Walk on the wild side* txistukatuz, du-duru-duru, etortzen denak. Sorbaldak ezaxolati altxatzea da lankidearen erantzuna.

Putakume galanta. Lan ederrak ematen zizkiguk.

Morroia orijinala duk behintzat, ez zaik iruditzen? Askotan gauz etortzeko gogoia ematen zidak, nor den jakiteko.

Zaharrenak eztarriko karkaxa garbitu eta pintura zuriaren potea laga du lurrean, lankidearen hitz gartsuei kasurik egin gabe. Puru-zuztarrari ausiki egin dio ondoren. Pinturaren usain sarkorrari aurre egiteko erabiltzen du tabakoa.

Horma-garbitzaileak: Laurel eta Hardy.



**Neba-arreba** horiek (Hansel eta Gretel) hirira etorri dira amari tratamendu psikiatriko on bat jarriko dioten esperantzaz. Ama lo utzi dute ospitalean eta haiek eguna hiria ezagutzeko baliatzea erabaki dute. Pozik daude, aspaldiko partez, amaren zamatik libre, ezin dute ezkutatu.

Ez litzateke egokia... Gaizki legoke zinemara joatea, ezta?, galdetu du Gretelek. Esan orduko damutu da.

Hanselek irribarre egin eta sarrerak eroatera abiatu dira biak.

Horrelako nebak behar ditu arreba batek.

Filmak irauten duen bitartean, ahaztu egin dira amarekin. Amaitu denean, filmean esaten zuten esaldi bat geratu zaio Hanseli buruan iltzatura: «Emakume horien eta errekaostoaren artean, maleta huts baten aldea besterik ez dago».

Ama sendatuko dela uste al duzu?

**Gauetz**, pauso gero eta laburragoz doa bikotea oinez, zubia egunsentira arte luzatu nahi balute bezala.

Honezkero, existituko dela uste duzu? Jaioko dela inoiz? Eta jaiotzen ez bada?

Izenak pentsatu beharko genituzke.

Baina... existituko ote da?

Horixe baietz. Jaiotzen denean Italiara joango gara bizitzera.

Italiara? Zergatik Italiara?

Italia ez delako hau bezalakoa, laztana. Italian umeak bihurrikeriak egin nahi dituztenean arboletara igotzen dira. Amonak ere dementziak jotzean arboletara igotzen dira, handik gehiago ez jaisteko. Batzuk errege sagarren aitzakian igo eta adarretan gora desagertzen omen dira.

Errege sagarrak? Bai zera!

Badira kasuak, egunkarian irakurri dut. Askoz ere sanoagoa da Italia.

Zapata zuriak ditu mutilak. Ez da egundo hiri honetatik atera.

Ama sendabidean jartzeko esperantza ez dute oraindik erabat galdu hura ospitalean utzi eta zinemara alde egiten duten neba-arrebek. Suizidatu nahi zuen mutilari eta hilzorian dagoen

bere anaiari buruzko pelikula ikusi dute gaur. Hil-zorian dagoenaren neska-laguna, haren anaia suizidarekin ateratzen hasten da filmaren erditik aurrera. «Ekartzen dizkidazun bonboiak gero eta handiagoak dira eta ni gero eta txikiagoa» xuxurlatzen dio ohean datzan gaixoak errudun sentitzen den neska-lagunari, honek eskainitako eraztunean berea lako bi hatz sar daitezkeela erakutsiz, irribarre mingots batekin.

Sartzera ausartu gabe, ate atzean zain du artean neskak anaia suizida. Jada ez du suizidatu nahi.

Ordu txikietan, gazte baten itzala, bizikletan. Aldean dakar spray beltza. Gauez ez da ibaiko ur zikina bereizten, ezpada bere zurrumurrua. Hoteletako argiak piztuta daude. «Hau da Las Vegas diot eta ez naiz lotsatzen» pentsatzen du zapata zuriak dituen gazteak, auzoak eta hiriak bere aldera erreskatatuz, aspaldi pasatako kontzertuen berri ematen duten kartel erdi tarratatuei eta neoi argiei so.

Haurdunaldiaren bederatzigarren hilabetera hurbiltzen ari da emakume pakistandarra. Aste-bete da senarra ez dela etxean agertu: hozkailu-kamioia kontu ilunetarako erabiltzen ari dela susmatzen du, ezkutuka eta zomorro dabilkio aspaldi, iheskor. Baina zer esango dio? Berak ekartzten du dirua etxera. Emakume pakistandarra, motxila afrusa sabel gainean jiratuta dakarren turista batekin gurutzatu da. Lapurtuko dioten beldur ote da neskatila? Zer lapurtu baina? Argazki kamera ziztrina, taxpax batzuk? Noiz sortu ote zen turisten gustu txarreko ohitura hori, bizkar-zorroak bizkarrean eraman beharrean sabel-zorro bihurtzekoa? Barregarriro antzu eta miserable sentitzen da neskatila bere motxila zalangatua emakumearen sabel bipilarekin alderatu duenean.

Ilea tindatzeko *henna* erostetik dator emakume pakistandarra. Zapata zuriak dituen rockabilly gaztearekin gurutzatu da: nortasuna behar du munduan barrena zapata zuriekin ibiltzeko, pen-

tsatzen du. Gizon horrekin oheratzen dela eta ohean basatia dela imajinatu du, damurik gabe. Gero, samurra izaten ere badakiela imajinatu du, are damu gutxiagorekin.

Euren ama psikiatrikoan izen faltsuarekin ingresatu duten neba-arrebekin gurutzatu da. Aspertu dira Hansel eta Gretel astean bitan hirira etortzeaz. Amaitu da ipuina. Lo utzi dute psikiatrikoan, eta ez dute gehiago amaren bila itzultzeko asmorik. Basoan galtzea erabaki dute.

Kutzazain automatikoan, emakume gazte bat, bere alaba jaioberria kanguru batek bezala paparrean daramala. EXCHANGE WECHSEL irakurtzen da bankuaren errotuluan: umea diru truk aldatzera doala izan liteke begirale zoli batek egingo lukeen eszenaren irakurketa. Ilusio optiko bat. Edo desilusio optiko bat, zehatzago.

Zaharkitu samarra duk hormak pintura zuriz ezabatu behar hau, ez zaik iruditzen? Erdigunean urarekin egiten ditek lan bera. Baina klaro, gu aldirietakoak izan...

Zeharka so egin dio horma-garbitzaile nagusiak gazteari. Ez da ura gehien estimatzen duen isurkina.

Baina zer? Ura? Pintura ezabatzeko?

Ura presio handian, badakik. Pistolekin-eta.

Horma-garbitzaile zaharrenak ausiki egin dio puru-zuztarrari eta hitz beste eginez, bere alaba emagaldu bat bezala janzten hasi dela egin dio purrustada. Hamabost urte bete berri ditu bere alabak. Horretarako adinean daude, ihardetsi dio lankideak. Ez da egoera hartan iruzkinik egokitena, baina ez du gazteak besterik esaten asmatzen. Ezin du burutik uxatu lankidearen alaba ezagutu zuen gauean, masturbatzen zen bitartean bera izan zuela gogoan.

**Minak** hartu gaituen gau baten ondotik, lurruna kristaletan. Kaleak eta zeru lerroa argi eta garbi bereizten dira, elkarren gainean jarritako oihal zati ezberdinak bezala. Euts diezaiogun ikuspegi argi honi, ahal den bitartean.

Horrelako egunetan irristakorrak dira auzoak: HABANA izeneko negozio bat ireki dute urrunera-

ko telefono deiak egiteko. Eta bai, jendeak egiten ditu auzoak irristagarri, barrioak trukagarri. Ireki eta ixten diren dendek eta pertsianek. *Henna* beltzak, guk arreta jartzen diogun kaleko norbaiten orrazkera jakin batek. Gure borondateari entzungor eginez, prostituta, txulo eta droga saltzaileek periferiako auzoak gugana ekartzen dituzte ilunabarrean, alfonbra baten gainean batetik bestera arrastaka eramaten diren altzari pisutsuen eran. Merkatura asteazkenetan etortzen diren saltzaileek, beren salmahaiak irekitzean, auzo berri bat ekartzen digute, Marco Polok Khan handiari espezieak nola. Salmahaiak jasotzean berriz, erretiratu egiten dute auzo tolesgarria berriro. Ahuntza eta eskailera ekartzen dituzte ijitoek, eta hara, auzo berri bat irristatu digute gurera.

Euren seme-alaba jaio gabeen izenak asmatzen dabilen bikotea ez da elkarrekin bizi: bi etxe ezberdinetan bizi dira, bi etxe txiki dituzte eta amets egiten dute noizbait etxe handi bakarra izatearekin, euren alokairuzko bi etxeak hiria zeharkatzen duen lurpeko tunel batekin komunika-

tzearekin, birekin bakarra egitearekin, ez derri-  
gorrez Italian.

Inoiz edo behin joan izan dira higiezin  
agentziara etxeak begiratzera. Erakutsi dizkie-  
ten argazki guztietan gauza bat nabaritu dute  
beti: etxe haietan bizi izan den jendea ez da zo-  
riontsu izan. Iheslarien etxeak dirudite, lisatu be-  
harreko arropak ageri dira nonahi pilaturik, ar-  
gazkia ateratzeko gelatik egotzia izan den jen-  
dearen arrasto itxia eta izerdi usain bortitza na-  
bari da.

Ondo egin dugula uste duzu?

Ez, baina hori bagenekien ezer egin baino  
lehen ere. Fini da eta kito.

Eta bueltatzen bagara? Ama berriz etxera  
eramaten badugu?

Gorroto ditut gabonetako apaingarriak, esan  
dio arrebak, gaia amaitutzat eman nahian. Fini  
da eta kito. Ez dira gehiago zinemara joan Jazu-  
jiro Ozuren filmaz geroztik. «Zuk gutxienez zure  
pipa daukazu» esaten zioten han ezkontzerik lor-  
tzen ez zuen mutilzaharretako bati beste mutil-



zahar batzuek. Hark bere pipa zeukan. Zer zeukaten Hansel eta Gretelek? Ozuren filmean kamera geldirik zegoen eta pertsonaiak mugitzen ziren kameraren ordean, hori gustatu zitzaion film hartan gehien: jainkoaren begi orojakilea, narra-tzailea, geldirik zegoen, eta jende arruntak hartzen zuen mugitzeko ardura. Haiak ere halaxe jokatu zuten amarekin: ardura bat, erabaki bat, delibero bat hartu zuten.

Ur zikina ibaian, sorgin haize zakarra Hansel eta Gretelen tximak nahastuz. Zuhaitz bakoitzaren arrametan gora amona bana doan baso batean dabilta.

Gertatu da istripua: talkaren ondoren ihesi atera den hozkailu-kamioi batek bizikletan zihoran gazte bat harrapatu du gauaren erdian.

Beti gorantz so dagoela dirudien soinu-joleitsuak betaurreko beltzak erantzi ditu zarata entzundakoan. Ez da berez itsua, gora begira dago, zinez: zubi akabuko aterpearen sabairantz so dago beti, badelako han goian pintura altxatuta dagoen txokoan hezetan orban bat, bere jai-

terriko maparen antz handia hartzen diona. Heriotzaraino torturatu eta bere jaioterriaren mina duela esatera derrigortuko balute, ordea, hezetasun orban horretan ezein maparen ordezt emakume biluzi bat baino ez duela bereizten esango luke, ziur daki hori.

Albania, esaten du ahapeka, inork entzuten ez dion segurantziaekin.

Horma-garbitzaileek ez dute gaur lurpeko pasabideko pareta zurian esaldirik topatu. Pintura zuria besterik ez, haiek egun bi lehenago zuritutako horma zurbil berbera. Harritzekoa. Egunak gaizki zenbatu ote dituzte? Ez. Bat eta bi. Bi egun pasa dira.

Garbitzaileetan zaharrenak puruaren mutxikina zapaldu du lurrean, pentsakor. Ez du sorbaldak uzurtzekorik ere egin.

Elkarri begiratu diote biek. Laurel eta Hardy zer egin ez dakitela. Zer edo zer ments dute. Gero, bere ogibidea aspaldi menperatzen duenak bezala, diren profesionalak bezala ekitea erabaki dute, brotxa pintura zuritan blaitu, bere

zurdek pintura aski zurrupa dezaten utzi, eta horma zuria pintura geruza berriekin areago zuritzen hasi dira, zuria zuriaren gainean, ezereza ezabatzen.

# Ez zaie errazegi jarri behar

Bederatzi urte besterik ez nituen, baina ondo gogoan daukat urtegiaren kontua aurrera atera eta gure etxea urpean geratzera zihoala jakin genuen eguna. Ez zegoen atzera bueltarik. Helegite eta instantzia guztiak agorturik zeuden, eta ez genuen aita sukaldera sartu arte itxoin behar izan azken ebazpena ere urtegiaren aldekoa izan zela jakiteko. Euri jasa ari zuen kanpoan, eta aitaren zapata bustiek korridorean sartzean egin zuten zarata abailduak esan zigun, zaudete prest, hau guztiau ura izango da hemendik aste gutxitara, hemen oinez ibiltzea nekosoia izango da, koloreak eta ehundurak aldatuko dira, lanpara hau ez da gehiago piztuko, bonbillak ez baitira urpean pizten.

Denoi eragin zigun, ezinbestean. Baina aita, borroka osoa lehen lerroan bizi izan zuena, heldulekurik gabe geratu zen. Ezin esan ama eta bere artekoa aspaldi hartan ez gozotik ez leunetik zihoanik, eta urtegia betetzeko aginduaren debekua lortzea zen harrezkero, familian gerta-

tzear zen uholde bortitza nolabait saihesteko era bakarra. Aitak eta amak bazekiten hori, korridorean poliki zetozen zapata abaildu haiek garai baten amaiera zirela.

Uraren etorrerari aurreratuz, beste era bateko isurkinetan bere burua itotzen hasi zen aita. Zapata bustiak sukaldeko karboneran utzi eta, bekozko ilunarekin, errazegi jarri diegu, esan zuen. Errazegi jarri diegu, esan zuen berriz.

Sukaldera sartu zenean denok begira geratu gintzaizkion, eta nik baino bi urte gutxiago dituen arreba sukaldetik atera eta urtebetetze egunean oparitu zioten arrain-ontzia esku artean zuela bueltatu zen handik gutxira. Aingeru bat ematen zuen, bi arrain laranja ttiki bueltaka zebiltzan arrain-ontzi hura eskuetan zuela.

Zer gertatuko da Tom eta Jerryrekin?

Amak, arrebarengana inguratu eta ilea laztandu zion. Besarkatu egin zuen, irrist egin zion malko batek masailean behera. Eta nik pentsatu nuen, pertsona besarkatuak ikusten ez gaitueenez, besarkatzea izan litekeela une horretan pentsatzen edo sentitzen duguna ezkutatzeko era bat.

Haiek gera daitezke, Isabel. Haiek gera daitezke.

Eta halaxe izan zen. Aitak handik gutxira alde egin zuen. Ez dut geroztik ikusi. Guk aste batzuk gehiago behar izan genituen dena kartoizko kaxatan sartu eta izekoren etxera aldatzeko. Gure bizitza osoa kartoizko kaxatan gordeta egon zen urtetan, izekoren garajea pilatuta, gure etxeko koadro, altzari, lanpara eta bestelakoak, hantxe denak. Arrebak edo nik jostailu zaharren baten galde egiten genuenero, amak beti esaten zuen, kaxatan egongo da, laztana, hurrengoan jaisten naizenean bilatuko dut. Bitartean, ahaztu egiten ginen jostailu horretaz. Jostailuez ahaztea, beharrezko irakaspena. Kaxatan ez genuen den-dena eraman, ordea. Tom eta Jerry, bi arrain laranja haiek, han geratu ziren arrain-ontzian bueltaka, ur handiagoen zain.

Ez zen inor bere teilatura igo edo bere etxera kateatu. Isilik joan ginen denok herritik. Nik hala oroitzen dut behintzat.

Aspaldiko kontuak izan arren, gauza hauek nekez ahazten dira erabat. Bere etxea urpean duenak, bere zati bat ere urpean du betirako, eta edonon dagoela ere, ur ilunei begira gertatzen denean, behean zer altxor klase dagoen asmatzen saiatzen da.

Kostako herri batean bizi naiz orain, eta ez dakit zergatik, inoiz baino presenteago ditut egun hauetan kartoizko kaxak, arrain laranjak, aitaren zapata bustiak, gure urte urperatu haiek. Lauraren haserreak edukiko du ziur aski horretan zerikusirik. Nik neure maniak ditut: kartoizko kaxekiko obsesio gaixobera, goizeko hiruretan autoa hartu eta arrantzara joatea, horrelako gauzak. Berak ere baditu bereak: zinemarekiko bere zaletasun gehiegizko hori, adibidez. Eta orain ezkontzea sartu zaio kaskezurrean. Ondotxo daki zer pentsatzen dudan nik horretaz. Maitasuna zigilatzekeko paper eta instantzia beharrari alferrikako irizten diodala -ez zaio gustatzen entzutea, baina nire jaioterriko bake epaitegia eta eliza urpean daude: paper bustiak baino ez dira eta batez ere, buruan norberak bere irudi eta oroitzapenak dituela, eta nik gogoan dudala

aitak alde egin aurretik nola utzi zuen ezkon eraztuna erortzen arrebaren arrain-ontzira, eta nola Tom eta Jerry apartatu egin ziren izututa, eraztuna uztai inerte baten gisan uretan murgildu zenean.

Hiru egun daramatzagu elkarri hitz egin gabe. Arrantzara noala esan diot. Malekoian egongo naiz. Gero, danbateko bat eman ez zigilatu dut nire agurra. Laura kafea hartzen ari zen, eta danbatekoaren ondoren, bere katiluko isurkinen uhin txiki batzuk sortuko zirela pentsatu dut. Egunerokotasunaren naufragioa, zurezko gure etxe kaxkarretan.

Arrantzarako pita, amu, kanabera luzagarri eta bestelakoak autoaren atzealdean sartu eta irratia piztu dut, malekoira bidean. Hirurogeita hamar bat urteko gizona itota agertu omen da urtegian. Zirrara baten zimikoa. Ez dakit zergatik, itotakoak gure aita izan behar duela pentsatu dut. Burua horretan nuela, neskatila bat ikusi dut errepide erdian. Edo ez dut ikusi. Ia harrapatu dut. Neskatilak esne botila bat zeraman eskuetan eta mila zatitan hautsi da kristalezko botila. Balaztari sakatu eta autotik atera naiz, ziztu



bizian. Esne botila apurtuari begira, zartada arraro bat sentitu dut barruan. Neska seko izutu-ta dago. Eta nik badakit gure aita dela urtegiko hildakoa.

Jainkoarren! Ondo al zaude?

Neskak ez du ezer esaten. Errepidearen erdian apurtutako esne botilari begira dago. Esne-gain apurtua da asfaltoa. Dendara lagundu eta esne botila berri bat erosi diot.

Ziur ondo zaudela?

Nire arrebarekin akordatu naiz begira geratu zaidanean. Aspaldi ez diot telefonoz hots egin, kaixo zer moduz, kortesiazko agurrik ere ez. Laurarekin hitz egiteko premia latza sentitu dut. Kairaino poliki gidatu eta malekoiko kabinatik deitu diot. Etorri egin behar duzu Laura, malekoian nago. Ikusiko dut, esan du. Baina badakit etorri-ko dela. Amua prestatu eta zain geratu naiz.

Ordu erdi barru etorri da, aurpegi serioa, praka estuak. Malekoia-aren bukaeran jarri naiz gaur, gustatzen zaidalako oinez nola inguratzen den urrunetik. Nire parera iritsi denean, ez du ezer esan.

la-ia neska bat harrapatu dut autoarekin,  
Laura.

Konturatu da dardara batean nagoela. Berak ez daki zergatik, baina baietz uste du.

Ez, ez zaio ezer pasa. Sustoa baino ez. Eta kristalezko esne botila bat, mila zatitan apurtu dena.

Bere eskua nire garondotik pasa du. Batere arrainik ez duen saskiari begiratu dio gero. Irribarre egin du.

Gaur ez diote amuari heltzen, e?

Nireari ez, behintzat. Saiatu zerori, nahi baduzu...

Kanabera luzatu diot. Bera pitari begira geratu da. Pita motzegi dago. Ez da uretara heltzen. Bere begi miopeek ere antzeman diote horri. Bekokia zimurtu du, harrituta.

Baina... pita ez da-eta uretara heltzen...

Ez zaie arrainei errazegi jarri behar.

Irribarre egin du berriro.

Garagardo baten bila noa Ferren tabernara. Zer bait nahi?

Winston pakete bat, esan dit.

Fer lagunaren tabernarantz noa orain. Laurak zerbait arraroa susmatu du, ez da ergela. Oinez noan ahala, nire bizkarrean Laurak kanaberako pita txirrikara bildu eta amuaren ordeztari lotuta utzi dudana eratzuna topatzeko beharko duen denbora kalkulatzeko saiatzen naiz. Bost, lau, hiru, bi, bat. Gustuko dut pitak kanaberako txirrikan kiribiltzen denean sortzen duen soinua: antzinako tomabista haiekin akordatzeko naiz. Zinematografoarekin. Amak bazuen bat, garajea, kartoizko kaxa baten barruan. Eta Laurari zinema gustatzen zaio ikaragarri.

Garagardo bat eta Winston pakete bat, Fer.  
Zer, heltzen al diote gaur batera?

Tartean-tartean, Fer. Oso tartean-tartean.

# Oin hotsak goiko solairuan

Hilabete batzuk lehenago era guztiz bidegabean leporatu zidaten plagio afera zela medio nire liburu berria argitaletxe handi batekin ateraezin nuenez, gutxien gutxienez, argitaletxe alternatibo batekin ateratzeko aukera kontuan hartzeko iradoki zidaten lagun idazleek. Batek daki lagun dituen idazleak benetan lagun diren ala ez, aski zabaldua baitago lankideak propio despistatu eta haiek guk baino lan eskasagoak argitara ditzaten aholku erdipurdiko -eta areago, guztiz kaltegarriak- propio emateko ohitura, baina tira... Lagunik gabe, zeri helduko diogubada? Argitaletxe txiki bat zen adiskideek bizikien gomendatu zidatena, bere liburuengandik bainoago, Lydie Vidal idazlearen argitaletxea zelako ezaguna. Vidalek berak egiten bide zituen editore lanak, eta bere idazkari pertsonalak -Inez Orgaz izena zuen, oker ez banago- kudeatzen zuen argitaletxea. Lydie eta Inezen arteko harremana lotura profesionalaz haraindira ote zihoan zen zurrumurrua, baina gutxi axola zitzai-

dan niri txutxumutxua, liburu bakoitza argitaratzeko orduan argitaletxe ttipi hartan jartzen zuten kuttuntasun eta gustu on agerikoaren aldean. Geroago ikasi ahal izan nuenez, idazkaria zen berez ia erabat argitaletxeaz arduratzen zena, Lydie Vidalek ordu asko ematen baitzituen bere eleberri abangoardistak idazten. «Andereñoari ez zaio gustatzen molesta dezaten», (niri ere ez, hara bestea!); Inezek garbi jarri zituen gauzak atea zeharkatu nuen orduko. Lydie ez zen etxetik asko ateratzen, apenas egiten zuen bizitza sozialik. Argazkia ere, beti berbera zen prentsan agertzen zena, eguzkitako betaurrekoak eta pasmina soinean. Bazuen halako idazle distante eta helezinaren kutsu bat emakume hark. Literaturaz baino areago kontu pragmatikoan gorabeheraz arduratzen zen Inez idazkariak gonbidatuta joan nintzen beraz, euren etxera, baina baneukan Lydie Vidal handia ezagutzeko esperantzarik, eta harekin egokitzea zaila izango zela jakin banekien arren, horrek kitzikatzen ninduen bereziki.

Etxaldea handia zen eta zaila zen hormen kolorea zehaztea, hain zeuden hormetako apalak

liburuz mukuru. Liburuak etxeak hezetasunetik babesteko oso sistema egokia zirela esan nuen txantxetan, baina esan orduko damutu nintzen mihi-kolpe fribolo hartaz. Alferrik izan zen «beraien barruan aurki ditzakegun lerro zoragarri horiek ez aipatzeagatik, jakina» erantsitako esaldi inozo hura, postdata alferrikako eta aitzakia merkearen usaina zeriona, desenkusa barkaezina, Inezen denboratik eta umoretik ulertezina zen esaldi desegokia. Inezek mesfidantzaz begiratzen zidala iruditu zitzaidan. «Hau ote da hain biziki aholkatu didaten idazlea? Ez ote da inpostore bat?». Zalantzak uxatzeko edo, Benedictine botila atera zuen. Tragoxka bana edan genuen eta horrek apur bat hobetu zituen gauzak. Nik berak baino gehiago edan nuen, erabat justifikatuta zegoena, gutxiago hitz egin nuelako eta berari gauza gehienetan arrazoia eman niolako. Bakoitzari berea, aizue. Lydie Vidal zenbat miresten nuen eta bere liburuak zenbat gustatzen zitzaizkidan iragarri nion Inezi, irakurrita ez nuen libururen bat ere aipatuz, aitortzen dut. Ai, zer miserablea naizen lausenguak egiten hasten naitzanean! Zergatik esaten ote dugu irakurri ez di-

tugun liburuak irakurri ditugula? Auskalo. Beharbada, heriotzari beldurra diogulako eta liburu horiek maletan eramatea gustatuko litzaigukeelako. Hezetasunetik babestuko gaituzten liburuak, gure zerraldo barruan ere. Irakurri ditugula esanez gero, liburu haietako lerroren bat behintzat antzematen ahal dugulako esate hutsarekin, agian. Beharbada ez da hain bekatu larria irakurri ez ditugun liburuak irakurri ditugula esatea, baldin eta noizbait haiek irakurtzeko asmo zintzoa badugu eta haiek irakurriak izateko gaztegiak bagara. Orduan barkagarria da agian gezurtxo, nahiz eta liburu horiek irakurtzera sekula ez ailegatu eta gure zerraldo hezeetan martxan dauden metalezko eskumutur-erloju hotzekin soilik lurperatuak izan, batere libururik gabe. Eta ni ez nintzen jada hain gaztea, dena esan beharbada.

Etxeak zituen bi solairuetarik behekoan ginen Inez eta biok. Inezek ondoegi kalkulaten zuen aukeran edalontzietara isurtzen zuen Benedictinea, gehiegi ez botatzeko kontu handia izanez, eta hori ez zitzaidan larregi gustatu. Merkezurean aritze hori, likore botila hark noiz arte iraun

behar zuen buruan balu bezala uneoro. Argitale-  
txea txikia bada, alkohol txorrotadek handiak  
izan behar dute. Gustatu edo ez gustatu, horrela  
da legea. Inezek, zenbait idazleren hipokrisia ai-  
patu zidan, argitaletxe handiekiko goranahi eta  
grina hori. Gora egiten ez zuena nire Benedicti-  
ne edalontzia zen. Ez nuen ezer esan, jakina.  
Azken likore tanta hustu eta arrazoia eman nion.  
Beraiek ez zeuden aurrerapenen eta diru kopuru  
handien zirku horretan sartzeko prest. Saltzen  
zuenari ehuneko hamarra eta saltzen ez zuenari  
ere berdin. Gero -zinez gauza berezia balitz be-  
zala-, haiek idazleari gainerako argitaletxeek  
baino ale gehiago ematen zizkiotela azaldu  
zidan: «hamabost ale» esan zuen, eta aurpegia  
loratu egin zitzaion, grabitatearen legea desafia-  
tzen zuen keinu batekin. Nik dakidala, argitale-  
txeek hogeina ale ematen dizkiote idazleari libu-  
ruko, gutxien-gutxienik. Orduan ere ez nuen  
ezer esan, baina dezepzio txiki bat hartu nuen.  
Ez Inezek hori esan zuelako, baizik eta Lydie  
Vidal, emakumearen eskubideen alde borroka-  
tzeko burdinazko hesi batera bere burua katea-  
tzeagatik Aljeriatik egotzi zuten ekintzaile politi-



koaren idazkari pertsonalak -eta nork zekien, maitaleak- esan zuelako. Lydiek ez zuen horrela-ko idazkaririk -eta are gutxiago amoranterik- merezi, ebatzi nuen.

Zure hirugarren liburua da, orduan, jakin nahi izan zuen Inezek, interesatuta.

Halaxe zela esan nion, *Neguko zirkua* izena zuela eta autore gehienen hirugarren liburu gehienak bezala, nirea ere Groucho liburu bat izango zela adierazi nion, pozik. Ez zuen ondo ulertu. Azaldu egin behar izan nion idazle baten lehen liburua Harpo liburu izaten zela, Harpo Marxen gabardinaren parekoa, alegia, bizitza osoa erakutsi nahi izaten duzu hor, merke-on-ederrean salgaiak dituen paisak bezala, zenituen eta ez zenituen tatuaje eta orban guztiak, dena sartu, dena eskaini, gorputzeko azken malko eta odol tantaraino, azken gau-poluzioko azken espermatozoidea ere bai (hau pentsatu egin nuen, ez nintzen esatera ausartu), edozertarako prest zeunden lehen liburuan, gabardina barruko gailuekin mundu osoa ordezkatu nahi zenuen, hon- dar eta itsas ekaitzetarako prestatu, erantzun guztiak eman, dena kontatu, berez, esatekorik

gehiegi ez zenuenean, Harpo, jakina denez, mutua baita.

Ikuspuntu, nola esan?, ikuspuntu interesgarria da... Eta bigarrena?

Bigarrena Chico liburua zen, apur bat fartsa bat zena, lehenengoarekin mundua eta irakurle-goia ez konkistatu izanaren dezepzioaren ondoren apur bat gaiztotu eta seriotu egiten da idazlea, eta zinikoa bihurtu ere bai... Tranpa egiten saiatzen da, labur eta xuxen esanda: traszendente itxura eman nahi du, baina ezin.

Hirugarrena Groucho, orduan.

Adarra jotzen ari banintzaio bezala begiratzeko zidan. Baina inoiz ez nintzen hain serio aritu. Halaxe zen eta: hirugarren liburuan munduari barre egin behar zaio, irreberente izan beharra dago, errespetua galdu idazleei eta irakurleei, hirugarrenetik aurrera zilegi zen esatea «barkatu ez altxatzea» hilobitik, zilegi zen norbere pitzadurak erakutsi eta pitzadura horiek irakurlearen pitzadurarekin elkartzea, dena apurtzen zuen barre gaizto horrekin.

Hirugarren liburua da onena, Inez. Horregatik ekarri dizuet zuei.

Ez nauk ondo ari. Chico bezala ari nauk, pentzatu nuen.

Eta Zeppo? Ez al dago Zeppo libururik?

Txori-tranpei buruzko txiste errazari mihipean eutsi eta baietz esan nion. Zeppo, anaiarik gazteenak, film gutxi egin zituen bere anaiekin: 1935ean erretiratu zen. Zeppo, denetan argiena zen, idazteari uzten dioten idazle horietako bat, osoko Bartleby bat, Salinger bat, bere potentzialtasunean isiltzea erabakitzen duena, eskubide guztiarekin. Egin zitzakeen film gehiago, baina aukeran, nahiago izan zuen ez egin.

Baina ez hori bakarrik, beste bat ere bazegoen, bosgarren bat.

A bai? Lau zirela uste nuen.

Hala uste dute gehienek, Inez, baina bazen bosgarren anaia bat: Gummo. Bera ez zen sekula Marx anaien filmetan agertu, baina haiekin lan egin zuen beti, kameran atzean. Itzalean zuten gizona zen Gummo, Eztarri Sakona, Zeppo bezain interesgarria, honenbestez. Zeppo gorena izatera ailegatu ezean (Zeppo zen gainera planta onena zuena!), Groucho eta Gummoren arteko nahasketa litzateke idazle ideala.

Lantzean behin, elkarrizketatik belarria desbideratu eta goiko pisura lerratzen nuen, nahi gabe. Inezek esan zidanez, Lydie bere egunero-ko siesta egiten ari zen, goiko pisan. Arratsaldeko seietan ateratzen ei zen osteratxoa ematera, eta beharbada orduan izango nuen bera eza-gutzeko parada. Irrikaz itxaroten nion une horri.

Eta bai, nire belarriaren atezuak izan zuen bere saria: goiko pisan pausoak entzuten hasi nintzen, tarteka. Gero eta kasu gutxiago egiten nion Inezi. Ez nekien zertaz ari zen orain. Egiten zituen keinuen arabera, zinema mutuaz, ziur aski. Baina gortuta nengoen ni zinema mutuari buruzkoak entzuteko. Egia ote zen Lydie siestan zela? Han goian, gure buru gainean esnai asko zebilen Lydie Handia! Suma nezakeen. Bere pauso bakoitza buruan jasotzen saiatu nintzen, kantu bateko perkusionistaren baketa kolpea baltitz bezala. Bere ibilera neketsuan mezuren bat topatzen ahalegindu nintzen. Bitxia iruditu zitzaidan Inezek Lydie niri ez aurkeztea, hura hara ez agertzea. Idazleek elkar ezagutu behar zuten, begiradak eta hitzak elkar trukatu, elkarren konplize izateko aukerarik ez eskaintzeak mindu

egin ninduen apur bat, nahiz eta, ezagututa ere, Lydie Vidalekin ez nuen literaturaz partekatzeko gauza handirik edukiko; sinpleki, gorrotatzen genituen autoreei buruz funtsik gabe gaizki-esaka arituko ginen, hori egingo genuen, bi idazle elkartzen direnero bezala, elkarren lana gustuko ez dutela esateko barrenik ez dutenean. Baina nik gustuko nuen Lydieren lana. Minduta zegoen nire egoa. Beraien argitaletxean liburua ateratzeko maila ematen nuen beraz, baina ez Vidal andereñoa ezagutzeko maila, akaso? Ezin nituen Inez eta Lydie elkarrekin gosaltzen imajinatu; ziur aski, hara ailegatu nintzenean, Lydieren maitale izateko esperantza xalo eta aitorrezina nuelako subkontzientearen akuiferoren batean gordea. Baina idaztea *ariketa akuiferoa* duzue, eta orain aitor dezaket.

Lydiek bizitza paralelo bat egingo balu bezala zen. Egia esan, Inezek, haren maitalea edo idazkaria baino gehiago, neskamea balitz bezala hitz egiten zuen hari buruz. «Ez dezagun ozene-gi hitz egin, Lydie lo egongo da-eta». «Gortina hori ez dugu irekiko, Lydieri horrela gustatzen zaio». Lydie lo zegoela esan zuen berak, baina ni

ez nengoen hain seguru. Txori begiak zituen Lydiek, eta txoriek lo gutxi egiten dute.

Idazleen senar-emazteek eta haien idazkariak beti gezurra esaten zuten, baldin eta haiek ere idazleak ez baziren. Azken kasu horretan, *literatura* egiten zuten, sinpleki, gezurra esatea baino kaltegarriagoa izan daitekeena, zenbaite-tan.

Barkatu Inez, non dago komuna?

Bidea seinalatu zidan. Beheko pisuan badago bat, hortxe ezkerretan, esan zuen. Baina nik goiko pisurako bidea hartu nuen, bera ohartu gabe. Urduri nengoen, aingeru pausoekin nindotan, lapur bihurria bezala, harrapatuko ninduten beldur, ezker-eskuin terrenoa ikuskatuz, poliki nembilen egurrezko lur salatarietan. Lydieren kapeluetako bat begiz jo nuen gakoan zintzilik. Lydieren zetazko *foulard* dotorea hurrena. Lydieren tabako pakete hasia geroxeago. Lydieren bulegoa izan behar zuen hartaraino iritsi nintzen. Hau egunen batean nire memorieta kontatuko diat, esan dezatela gero plagiatzailea naizela, *helas!* Han zebilen, suma nezakeen bere presentzia. Pausoak gero eta gertuago. Musaren pauso-

ak! Hark bai, bazekien oinez ibiltzen. Bat bi; bat, bi, hiru, lau... Baketa hotsak, bonboa sartzen da orain, txastona gero, kontrabaxuaren soka-kolpe limurtzailea, orkestra sinkronizatu bat segidan. Ez al zen hura Duke zaharraren konposizio klasiko bat? Alajaina, arrazoia eman beharko diogu azkenean Woody Alleni, 40ko hamarkadaz geroztik musika onik ez dela egin esaten duenean!

Ez dakit ze arrazatakoa zen, baina mutur beltz-beltza zuen behintzat. Zakurra jauzi batez igo zen Lydieren buroko aulkira, mihia dilindan eta arnaska. Begira-begira geratu zitzaidan, galdetzaile, bere gaixoari oinazea non duen galde-tzen dion sendagilea bere idazmahaian nola. «Zuk esango duzu bada, zerk ekarri zaitu hona?». Ia eman zidan bihotzekoak. Zakur puska harenak ziren beraz, Lydieren pausotzat jo nituenak! Inozo hutsa nintzela pentsatu eta burua hormen kontra lehertzeko gogoia sortu zitzaidan, nire burua behar bezala zigortzeko apaletako liburuaren samurra aski ez zen jakitun, hala ere. Beheko solairura jaitsi nintzen osterera. Komunikatzen ez nintzenez, maskuria lehertu beharrean egon nintzen hortik aurrera arratsalde osoan.

Goiko pisuan, gero eta pauso gehiago entzuten ziren. Zakurraren pausoez gain, Lydierenak ere izan behar ditek horiek, nengoen nire artean. Baina zoriaren patrika zikoitzak ez zuen niretzat bigarren txanponik gordetzen. Liburua ateratzeko akordioa sinatu genuen. Aurrerapen bat ere eman zidan. Gutxienez bazen zerbeit.

Lydie ez zen inondik inora agertu. Inezek eta berak elkarrekin ez topo egiteko ordutegi taula eta mapa bereziak eduki behar zituztela pentsatu nuen. Etxea ederra zen, bai, nik ez nuen sekula halako etxerik izango, hezetasunetik hain ongi babestua, hainbeste akuarela orijinal eta hainbeste liburu bitxi leku guztietan; haien etxea ederra zen, baina bizitza, tristea. Gazteak ziren oraindik, baina igual-igualak izango ziren hogeitau urte barru. Gazte goizegi zahartuak.

Inez atarian agurtu eta zuhaitz diskretu bat bilatu nuen maskuria husteko. Arrano nabarra! Lydie eta Inezen zakurraren ohiturak kutsatzen ari ote zitzaizkidan? Hobeto idatziko al nuen zakurren ohiturei men eginez gero? Lotsakizunetan pentsatzen denborarik galdu gabe, kremailera jaso eta trena hartu nuen. Arratsaldeko plazerik



handiena maskuria hustea izan zen, horretaz ez dut orain inolako zalantzarik.

Ez nuen baina, etxera joateko gogorik, eta uko egin nion nire geltokian jaisteari. Azken geltokiraino iritsi eta errebaletako jolas-parkean landatuta nengoen derrepente. Panpina-tiro postu itxiak, lonetaz estalitako zaldi-feria geldiak, falta ziren bonbillak bonbilla itzaliekin tartekatzen ziren karruselak, beren paristar guran negargarriak denak. Ispilu itxura-aldarazleak iragartzen zituen iragarki apurtu bat haraxeago. Batere panpinarik ez, batere zaldi jauzirik ez, batere Paris arrastorik ez, batere ispilurik ez, hala ere.

Ez al zen hura leku egokia niretzat? Garai bateko munstroen geltokia, garai bateko emakume bizardunak babesten zireneko barraka, inguruko kresalak herdoildua?

Haize hotza zegoen eta handik lehenbailehen alde egitea izango zela onena nerabilen buruan. Gizaseme bat agertu zen orduan, ur baldekada bat aldean, trapua sorbaldan eta eskuila handi bat besapean. Zaldi-karuseleraino inguratu zen, niri mesfidantzaz begiratzen zidala. Magreb al-

dekoa zirudien. Zurda zurrunekeo eskuila eta baldea lurrean utzi eta soka bati tiraka altxatu zuen zaldi-karrusela estaltzen zuen loneta, antzoki biribil bateko erridaua bailitzan. Inguru desolatuan alaitasun printzen eran lehertu ziren zaldi kolore bizi haiek. Su-festak txatarregian. Makurtu eta lurra garbitzeari lotu zitzaion mutila. Bazirudien, jostailuzko zaldiari azpiak kentzen ari zela, han, zaldiaren pean makurtuta.

Gehiago inguratzea erabaki nuen.

Hemen lan egiten duzu?

Zuri zer iruditzen zaizu?

Erran gabe doa ez zitzaiola ni han begira geratzea gustatu. Zutitu eta trapuarekin zaldiaren bizkarra lustratzen hasi zen.

Ederra da zaldi hau.

Ez da zaldi bat: zakur dalmaziar bat da.

Kalekume hutsa nintzen, horratik: zakur handi bat zen zalditzat hartu nuena. Egun hartan topatzen nuen bigarren zakurra zen, bidenabar.

Desolagarri samarra da leku hau, ez zaizu iruditzen?

Nik hemen lan egiten dut, ez naiz egokiena esateko. Egonean egoteko lekurik onena ez da, horretan ados.

Ez dago inor.

Sasoiz kanpo gaude.

Sasoiz kanpo geunden, bai. Baina gure sasoiz kanpo egotea ez zegokion soilik jolas-parke hartan egoteari, munduan egoteari baizik. Animalia geldi haiek, jostailuzko tren geldi haiek, gabonetako mila-orriko tarten urre kolore *kitsch* hura.

Badakizu nola pizten den?

Harrituta begiratu zidan.

Karrusela, esan nahi dut.

Ez zidan erantzun.

Bazihoan jada, Inezek emandako diru aurre-rapena patrikan deika sentitu nuenean. Zakur dalmaziarraren gainean utzi nuen gutunazala, billeteak agerian zituela. Besotik heldu nion, seriotan ari nintzela azpimarratzeko.

Martxan jartzen baduzu, zuretzat. Buelta bat bakarrik izango da, egon lasai.

Gizasemeak izututa begiratzen zidan. Zoro bati bezala. «Dirua eskaini didazu lehenbizi. Zer ote da hurrena? Arma bat eta paretik kendu be-

harreko neska ile-horiaren argazkia emango dizkidazu helbide batekin batera?». Inguru mortua begiradarekin arakatu zuen, inor begira ez zuela ziurtatzeko. Gautzen ari zen, orbanka, zeruan mantxa koipetsu ilunak agertzen direnean bezala, eguzkiaren ezkutatze horizontalik gabe. Gautu, hotzetik gautzen ari zen: loneta astintzen zuen haizea zen han mugitzen zen bakarra. Ez zegoen arimarik. Eskainitako dirua patrikara sartu eta handik gertuko tranpatxo bat ireki zuen lurrean garbitzaileak. Tupustean, bonbillak piztu eta biraka hasi zen karrusela, organotxo musika eta guzti. Ez sinestekoak ziren inguru desolatu hartan zaldi eta zakurren gora-beherako mugimenduak, argi urre-likidoen kontrastea.

Aio, Silver!

Karruseletik atera eta urrunetik begiztatu nuen eszena. Bizipoza berreskuratu eta adrenalina jario jarri ninduen bihurrikeriak.

Garbiketako gizonak makina itzali zuenean, bikoiztu egin zen desolazioa. Jasanezina zen haizea eta isiltasuna, gauaren koipea. Karrusela berriro estali zuen lonetaren adabaki traketsak ez zuten ez erruki ez esperantzarik.

Etxera abiatu nintzen, sobera hoztu aurretik. Jolas-parkea uztean, pailazo erraldoi baten ahotik irten nintzen. Harrigarria bazen ere, sarrera-koan ez nintzen atea zuen ñabardura horretaz jabetu.

Jolas-parke hutseko esperientzia estonagarririk ez zuen Lydie ez ezagutu izanaren zaputza ezabatu. Sartuta neraman arantza hori. Existitzen ote zen benetan Lydie? Beharbada, zakurrazen eleberriak eskribitzen zizkiona. Beharbada, sotoan lurperatuta zegoen Lydie Vidal, eta zakurrak bere hezur bat desobiratzen zuen bakoitzean ipuin bat idatziko zuen, *Lydie Vidalen erara*.

Egun hura ahaztuxea ere izan dut denbora luzez. Baina aspaldi ez dela libelo itsusi bat aterada egunkarietan: Vidal andereñoa Aljeriatik egotzi duten arrazoiak ez omen ziren politikoak izan. Bere senarra eta hiru seme-alaba ttipi abandonatu bide zituen bertan. Ez zen erregimen zapaltzailearengandik ihesi atera, bere familiarengandik baizik. Ez dira paperetakoak denak sineste-koak, ez horixe. Idazlearen lagunak asmatutako faltsukeriak ere izan daitezke, hurrengo elebe-

rria idazteko haren kemena urritu asmoz. Auskalo. Ez dut Inezekin harreman gehiago izan, ezta agindutako hamabost aleak sekula iritsi ez ziztaizkidala esateko ere.

Egun hartatik irakaspén garrantzitsu bat atera nuen, behintzat: batzuei ahoko zuloa betetzen dien dena delako literatura hori, goiko solairuan oinez dabilen zakur baten pausoak besterik ez dira.

# Zingiretan

Goizeko seiak ziren. Desorduetan eta deslekuetan, halaxe ibiltzen dira maitaleak.

Hirira heldu aurretik urtegia inguratu nuen. Errepide berriari muzin egin eta biderik luzeena hautatu nuen, urtegia ikusteagatik bakarrik.

Ikuskizuna ez da makala, goizeko ordu hartan oraindik dena ilun zegoen arren. Lehorsteak eta azken hilabeteotako euri faltak agerian utzi zituen behiala urperatutako herriaren horma puskatuak, harrizko eskaileren zirriborro bihurtutako etxeak, elizako kanpandorrea bera. Egunkarietan irakurri nuenez, bertan bizi izandako jendea hara hurbildu zen azken asteetan, izpiritual edo nostalgiazko jo zitekeen jarrera harekin bere bizitza puska ahaztu eta erreskataezin hura, urtegia egin zenean galdutzat emandako bizitza puska hura berreskuratzerara. Eskonbro haiek ikustearekin batera galdutako beste zenbait gauza berreskuratzeko itxaropen konfesaezina-rekin, agian.

Ni ere halaxe nindoala otu zitzaidan, duela hamar urteko zerbait berpizteko itxaropenarekin. Duela hamar urte bezala, baina begietan neke handiagoarekin.

Nire bizitzari zentzua ematen zion gauza bakarra zen orduan, urduri telefonoz deitu eta bidea libre bazen han agertzea, erantzeko eta erauzteko erosoak ziren arrokekin beti. Bera ere halaxe egoten zen nire zain. Ez genuen galtzeko denborarik izaten, herio batean zihoakigun astia, larrualdiaren ondorengo elkarrizketak egiten zitzaizkigun labur. Berak lanera joan behar izaten zuen gero, edo senarra etorriko zen beldur izaten zen, edo nik utzitako arrastoak ezabatzeko denbora beharko zuen -beti itzultzen da kontzientzia krimenaren lekura-, edo, beharbada, egun hartan haize gutxi zebilen kanpoan eta beldur zen leihoak denbora gehiagoz zabalik izan beharko ote zituen baldin eta sexu usaina uxatuko bazuen hain haize gutxiko egun estanko batean.

Zoaz, zoaz. Ezin duzu gehiago geratu.



Hori esan ahal balie usainei eta grinari, ni aurretik egotzi ahal banindu, leihotik ustekabean sartu den txori galdu bat egozten den bezala.

Puskak batu eta hanka egiten nuen, zoriontsu hala ere, zorion mingots eta erdibideko batekin. Baina zein zorion ez da mingots eta erdibideko? Hain dago gertu zorion osoa inozokeriaren mugetatik, leloen kontua dela pentsatu izan baitut beti.

Eta gero amaitu zela erabaki zuen. Horrela, besterik gabe. Edo bai, izan zen beste zerbait. Kontua da ez nuela ondo ulertu *besterik* guztiak lehendik zeudela, ni bere bizitzan sartu aurretik. *Besterikez* beteriko zerbait izan zela gurea, bizitzeko eta ez itozteko leku oso gutxi zuen zerbait. Erabaki zuen arriskuak ez zuela gehiago merezi. Errotuegi zeukala beste harremana nirekin berri bat hasteko.

Esfortzu kontua da beraz, pragmatiko hutsa zara zu ere, azkenean.

Ez zidan ezer erantzun, ezpainei kosk egin eta kokotsa aurreratu zuen, penatuta. Zinez penatuta zegoen, hori benetan sinetsi nion.

Hamar urte ziren horretaz. Urteak azkar pasatzen dira. Azkar eta zure gaintetik beti.

Atea ireki zidanean, ezpainetan jarri zuen hatza. Umea lo egongo zela imajinatu nuen. Duela hamar urte bezalaxe zegoen bera, ez zen batere aldatu.

Besarkatu nuenean, bere bularrak erasokor sumatu nituen elastikoaren pean. Ni besarkatzea aski zuen, bular haiek nire defentsa lerroak zulatzen hasteko. Zulatzeko ez: urtegian ikusi berri nituen eraikin birrinduetako pareta-tarte haiek bezala behera botatzeko, esan beharko nuke. Lotsatu egin nintzen, eta nire zakil harrotuaren koska senti zezan baino lehen apartatu nintzen bere gorputzetik. Lotsa, hainbeste urte eta gero. Pasioa, hainbeste urte eta gero. Kontzientzia den hiltzaile erreinzidente txatxu hori, hainbeste urte eta gero.

Umea lo zegoen sehaskan. Baina ez zen hori kezkatzen ninduen.

Kanpoan dago, ez da astelehen arte itzuliko. Aspaldian maitaleak izan ginen. Maitale sutsuak. Ez diot sekula inori arroparik berari bezala tarratatu, ez dizkit inoiz botoiak inork halako

biolentzia samurrez kendu. Maite izan nuen eta gorroto izan nuen denboraldi batez, neure infernu zorientsu erdibidekotik. Baina berak beste aukera bat egin zuen. Nik ulertu egin nuen, onena zen biontzat. Bai behintzat bizi ginen garaietan, bai behintzat pragmatismoaren sasoian, «hartara gurea ez da inoiz endekatutako maitasun zimela izango» esaten zuen. Arrazoi zuen. Beti itzuli ahal izango genuen oroitzapenera, ezen ez, elkarren putre bihurturik, usteltzen doan haragi mingotsera.

Ulertzen nuen. Ulertzen nuen, baina ez zidan grazia zipitzik ere egiten.

Berarekin larrua jotzean ere zugar pentsatzen nuen, ordea.

Ez hitz egin niri horrela. Ez dut jakin nahi. Ez dut hori zertan jakin. Mingarria da. Ez zara konaturatzen?

Umea izatea erabaki genuenean, berdin. Orduan ere zugar pentsatzen abandonatzen nintzen. Ume horrek zure antza izan behar luke, ez berea.

Umeak ez zuen ordea, oraindik, inoren antzik. Sehaskan zegoen lo. Lo zeuden beste umeen antza zuen, inorena izatekotan.

Zuk ez duzu nigan pentsatzen, beste emakumeekin larrua jotzean? Esan egia: hainbeste urte eta gero, ez duzu nigan pentsatzen? Ziur nago baietz, batzuetan behintzat... beste emakumeen artean bat gehiago banaizela esan behintzat. Esadazu baietz, inportantea da niretzat.

Nahikoa da.

Sehaskara hurbildu nintzen. Etxea txikia zen. Sehaskaren ondoan bazen sofa bat. Hara bultzatu ninduen, praketako botoiak askatu eta zakila oratu zidan. Erruduntasun konplexu judeokristauak hor zirauen, guraso modernoek bataiatu ere egin ez gintuztenongan. Berehala puztu zen zakila, eskutik ihes egin nahi zion arraina lez. Ahora eraman eta masailaren barruko aldearen kontra igurtzi zuen. Nigan zuen ahalmen magnetiko menperatzaileak segurtasuna eman zion jarraitzeko. Irribarre egin eta mihi puntaz hura miazkatzen jarraitu zuen. Haurra lo zegoen. Hari begiratzen nion nik. Haurra han egoteak isuria atzeratuko zuela uste nuen, baina oker nengoen.

Hazia ahoan hartu eta musu eman zidan, neronen hazia ene kokotsean behera irrista zedin utziz, irribarretsu. Ez zait haziaren zaporea gustatzen: alkandora kendu eta titiak miazkatu nizkion, esperma likatsua bere titiburuen inguruan zabalduz.

Kentzeko geratzen zen arropa urria erantzion gero. Berehala harrotu zitzaidan berriro. Zakila heldu eta barrurantz sartu zuen, bi kolpetan. Aise egin zuen bidea.

Zingiran hago, oraindik gai haiz zingira eta hire harrokeria, zingira eta hire arkeria bereizteko, baina hemendik gutxira, husten haizenean, dena izango duk putzu, dena izango duk zingira, pentsatu nuen.

Apartatu egin nintzen beragandik. Harritu egin zen. Bi indibiduoren arteko borroka zen. Hirurena, nire harrotasuna zenbatuz gero. Bera ni baino zintzoago ari zen portatzen, onartzen dut, ez zuen duelora bere naturaltasun biluzia besterik ekarri. Lurrean zetzan galtza parean patrika bilatu eta azkar jantzi nuen lekatik atera nuen preserbatiboa. Berehala heldu zion berriro nire zakilari. Kolpe bakarrean sartu zuen. Barruraino.

Umeak lo jarraitzen zuen, baina gero eta deserosoagoa zitzaidan bera han ikustea. Ez dakit bere amak nola jasan zezakeen. Ume hura ere zingira halamoduzko batetik jaioa zen, ez zeukan inolako zentzurik.

Arnas hotsak ozenegiak izan ez zitezten saiatu nintzen. Berari ez zitzaion inporta, itxuraz, gero eta oihu erdiragarriagoak egiten zituen eta. Haurra esnatu eta negarrez hasi zen. Nik alde egin nahi nuen etxe hartatik, eta batez ere, zakila handik atera nahi nuen, baina ez zidan uzten, segi eta segi, gora eta behera zoratuta astintzen zituen aldakak. Azkenean lortu nuen gainetik kentzea. Zakarregi aukeran. Umeari arreta jarri beharrean, komunera joan zen, haserre. Kisketaz barrutik itxi zuen komuna. Umearengana hurbildu eta hura isilarazten saiatu nintzen. Oso txikia zen, apenas izango zituen sei hilabete. Ez nuen etorri behar. Nardagarria zen, ezer gutxi zen epela eta humanoa nire maitale izandako haren haur jaioberriaren eta nire arteko intimitate behartu hartan; auskalo nork erositako jostailuak zeuden lurrean, euren kolore ezinezkoak alfonbran iltzatuz.

Beste haur batzuekin gogoratu nintzen. Duela hamar urte guk larrua jotzen genuen etxe hartan -orain larrua jo genuen edo larrutan egi- ten saiatu berri ginen etxe hartan bertan- bazi- ren ume batzuk goiko pisuan, zalapartari ibiltzen zirenak beti jolasean. Bertigoa ematen zuen haiek orain zein adin izango zuten pentsatze hu- tsak. Sabairantz begiratu nuen. Ez zen haien ho- tsik sumatzen, eta behar nuen, behar nuen zinez haien zarata. Askotan sumatzen genituen garai hartan ohetik, bi neba-arreba alai haiek egurrez- ko eskailerak barrez eta arrapaladan jaisten. Hori zen zoriona: larrualdiaren ondorengo lazta- nak eta ikusi gabe ere argi entzuten genituen bi ume haiek kanpoan, zaratatsu eta barrez.

Haserretu ginen aldietako batean, etxetik jo- ateko esan zidan eta joan egin nintzen. Danbate- koa eman eta alde egin nuen. Telefonoz deitu nion gero berehala, bere etxe atariko kabina ba- tetik. Ezin nuen bera gabe bizi, horixe zen egia.

Serio ari zinen joateko esan didazunean?

Serio ari nintzen.

Ba ikusi duzu: serio eman diot nik ere ateari danbatekoa.

Ez nuen halakorik espero.

A, ez? Zer nahi zenuen egitea? Loradenda batera deitzea? Hildakoentzat enkargatzen den koroa horietako bat enkargatzea gure harremanaren jaiotze eta defuntzio datak jasotzen dituen xingola batekin?

Danbatekoa eman ondoren etxe *barruan* geratuko zinen esperantza neukan. Eta ez atearen *bestaldean*.

Baina ni joan egin naiz.

Bai. Altxatu eta korrika inguratu naiz kaleko atera. Zu han topatzea pentsatzen nuen. Etxe barruan. Seguru nengoen. Amorrua deskargatzeko danbatekoarekin nahikoa izango zenuela uste nuen. Baina gero hor geratuko zinela, ni ostera besarkatzeko. Danbatekoa eman ondoren etxe barruan geratuko zinen esperantza neukan.

Ez dituzu nire pausoak sentitu eskaileretan behera?

Bai, baina goiko umeak zirela uste nuen.

Eta ez ziren.

Ez, ez ziren. Baina batzuetan edozeri heltzen diozu.



Edozeri, eskaileretan behera doan ume bat izan arren.

Zergatik gogoratzen nintzen orain elkarrizketa harekin? Zergatik ez nuen elkarrizketa hura sekula ahaztu? Beharbada gai izan behar genuelako danbatekoaren ekintza eta alde egitearen ekintza bereizteko. Baina horretarako pertsona ikaragarri hotza izan behar da.

Zazpi t'erdiak ziren, desorduetan eta desleketan maitaleak beti. Desorduetan haien haserreak. Berak komunean giltzapetuta jarraitzen zuen. Sukaldeko harraska urez bete nuen, katilu zikinak urpean geratu ziren arte. Itogarria zen hura.

Berriz eseri nintzen sofan.

Sukaldeko iturriari tanta eternal bat zerion, segundo bakoitzari oihartzun egiten ziona: bi hots segundoko beraz, bata bestearen atzetik sinkronizatuta, segundoa erdibanatuz. Erlojuak eta segundoen frakzioak asmatu aurretik, norbaitek iturrietako tanta gogaikarri bakar eta errepikakor horren tortura nozitu ote zuen sekula? Desesperagarria zen segundoz segundoko jario hori harraskako metalaren kontra entzutea.

Berriz altxatu eta edalontzi bat jarri nuen azpian. Tanta ez zen jada hain gogaikarria kristalaren kontra lehertzean.

Tanta bat buru gainean, beti puntu beraren gainean erortzen uztea tortura sistema bat zela irakurri nuen behin, ez dakit non. Erdi Aroko su-frimendua eta epika bat-batean nire buruaren jabe egin ziren.

Ireki da komuneko kisketa. Berriro etorri da bera. «Maite zaitut» esan dit. «Merkea da hitz egitea», esan diot. «Betiko maiteko zaitut, nire erara. Baldin bait ere posible balitz... Alde egitea nahi nuke, eta duela hogeit hamar urte bueltatzea. Non zeunden duela hogeit hamar urte?».

Nahikoa da.

Absurdua da esaten ari naizena, eta ez da batera orijinala, gainera. Ez zait ezer bururatzen gaur: duela hamar urte lore-koroena bezalako inozokeria koloretsuak esateko adorea izaten nuen behintzat. Absurdua da egiten ari naizena. Absurdua izan da hona etorri izana. Ez nuen etorri behar. Sukaldeko irratia piztu dut nire urduritasuna ezkutatzeko. Berehala ohartu gara zer-

bait jazo dela. Sirena hotsak entzuten dira irrastian, usma liteke ezinegonan.

Atentatua itzela izan omen da. Hildakoak dozenaka. Sarraskiaren lekutik mintzo dira, sirena hotsek uzten dieten heinean mintzo. Pozo del Tío Raimundo izena du geltokietako batek. Horrekin geratu naiz ni batez ere. Pozo del Tío Raimundo. Hitz horiek oihartzun egiten dute nire buru barruan.

Pozo del Tío Raimundo. Elkarri begiratu diogu. Umea lo dago. Jostailuak barreiatuta, kolore ezinezkoak lurrian iltzatuz.

Eta orain Madrilgo errebalak dauden lekuan ikusi dut duela hainbat urte jendea ur bila joaten, ez dago espaloirik, ez dago porlanik. Jendea ur bila doa eta ur bila doan beste hainbat jenderekin solastatzen da bidean, besterik ez. Raimundo? Nor ote zen Raimundo delako hori? Norbait estimatua izango zen, ez dago dudarik. Deiturarik ere ez diote jarri, gertukoa eta estimatua zelako, osaba Tom bezala, Raimundo, berea zen putzu batetik uzten zien edaten, ez zuen deiturarik behar. Deiturarik gabe estimatzen zuten.

Eskutik heldu dit.

Zuk uste duzu ETakoak...

Ez. Ezin dute haiek izan. Nola izango ziren ba? Pozo del Tío Raimundo izena duen leku batean? Nola jarriko zuten lehergailu bat Pozo del Tío Raimundo izena duen leku batean? Nola ordu honetan? Nola errebaletako *tirau* guztiak lanera doazen bitartean? Burua galdua ere, ezinezkoa da, jode.

Sinetsi ote nuen esaten ari nintzena? Hitzetan bakarrik sinets nezakeen, eta hitz horien esanahia ezagutu eta nirekin konpartitzen zutenengan, agian. Pozo del Tío Raimundo. Dardarkanago. Bat-batean egarria daukat. Gerritik helitzen dit, atzetik. Estu besarkatzen nau. Estu besarkatzen dut.

Nire burua bere menera uzten dut. Geroko tristuran eta geroko uneetan ez pentsatzen saiatuz, duela hogeitun urte bueltatu izan banintz bezala, bera ezagutuko ez banu bezala.

Baina zerbait falta da. Malkoak ditut begietan. Katastrofeen abantaila: zertaz negar egiten zuten jakin gabe negar egiten zutenek badute orain negar egiteko arrazoi estandar, ulergarri,

psikiatria manualetako bat. Zerbait falta da, hala ere.

Eskaileratan ume batzuk zaratatsu eta irribarez, arren!

Isilunea jasanezina da. Malkotan gaude biok, negarrari eutsi nahian. Miazkatu egin dizkiogu elkarri malkoak, aurpegian behera gehiegi irris-tatu baino lehen. Elkar laztandu dugu ia elkar ukitu gabe, leialtasun erdibiturik gabe, denboratik kanpo.

Arratsberan, lo dago bera. Umea ere lo dago sehaskan. Alkandora botoiak lotu gabe gaisetrik jantzi eta sukaldera sartu naiz. Pertsiana bat erdi irekita. Bizilagunen batek gerritik behera biluzik nagoela ikusi izango duela otutzen zait. Naturaltasunez jokatu eta nire buruari inporta ez zaidala sinetsarazten saiatu naiz. Beldur diot irratia berriz pizteari. Umea ez esnatzeagatik, esaten diot nire buruari. Baina ez da egia, ez da horregatik.

Begiak itxi eta sarraila hotsa entzuten dut goiko pisuan. Dudan indar guztiarekin arrapalada zaratatsu bat eta ume barre bat eskatzen diot, ez jainkoari, ez inori, nire buruari baino.

Behar dut, premia daukat, bizia horretan doakit, zurezko eskaileran beherako umeteriaren arrapalada hori, jainkoarren. Diodana otoitz bat izan daitekeenik pentsatu gabe hasieran, nire buruari esaten diot: horretarako ahalegin berezia egin behar badut ere, poztuko naiz aurrerantzean hurkoaren zorionaz, bakarrik biziko naiz, eguzkia dagoen lekuen ondoan eseri eta betazalak itxita dastatuko ditut argia eta bizitza, ainguru guardako bat bezala izango naiz, disko-jogailuaren altabozak barruko patioetara aterako ditut bizilagunek nire bildumako kanturik leunenak entzun ditzaten, zoriontsu izango naiz aurrepeirik ikusten ez diodan horren eskaileratik beherako barre kezkarik gabeak entzutean.

Harraskan, iturriko tanta errepika eten da dagoeneko. Lehen azpian utzi dudan edalontzia beteta dago. Tantaz tanta bete da. Tanta bat eta gero beste bat. Eta gero beste bat eta beste bat, tanta guztiak berdin, tanta guztiak ezberdin. Egarrri naiz. Edalontzia hartu eta trago bakar batean hustu dut, tantaz tanta betetako edalontzi baten zaporeak arrastoren bat, jakinduria malutaren bat, zerbait berezia adieraziko didan espe-

rantzan. «Mila tanta badira, egon behar du baten bat jakintsua, baten bat interesgarria, besteak baino hobea, Darwinek tanten eboluzioaren historian tanta hobe bat lortzeko bidean aurrera jarraitzeko hautatzeko modukoa».

Galapago uharteak, dortokak eta erredentzio elurrak ditut buruan, ura eztarrian beheka kolpeka doala.

Nire zoritxarrerako eta pentsatzen nuenaren kontra, segidako txorrotada luze batean betetako uraren zapore berbera du, ordea, tantaz tanta betetako edalontziko urak ere.

# Camarillo brillo

Kore-Eda Hirokazuri esker

Izango ote nuen nahikoa denbora?

Hori zen eta ez beste bat nire kezka nagusia.

Bainuetxe kalamastra bat zirudien erorkin zahar hark. Zain jarrita ni bezalaxe, beste hainbat. Adin guztietakoak zeuden han, denak nire egoera berean. Tartean, eta hori zen beldurgarriena, baita umeak ere.

Hurrengoa!

Ni nintzen hurrengoa.

Torturatu egingo ote ninduten? Utikan, hobe horretan ez pentsatu.

Idazmakinak hautsa hartzen, kautxuzko tinta-zanpagailuak nonahi, funtzionario zurbila aurrez aurre, begiak tintaz zigilatuak balitu bezala, soraio.

Eguzkia itsugarri sartzen zen leihotik. Nire aurrean nuen bata zuriko petrikiloari ez zion, ordea, argiak enbarazurik egiten, berak leihoari



bizkarra ematen zion eta. Zerbaitegatik zen bere bulegoa eta ez nirea.

Gogorik gabeko berbeta zuen, ez zuen nire fixatik begirada altxatzen.

Jakinaren gainean egongo zara honezkero, baina atzo hil zinen, arratsaldeko zazpiak eta lau minututan hain justu, bihotzekoak jota.

Hori zen orduan borrarrena zirudien kolpe latz hura. Bihotzekoa, alajaina. Ze kategoria gutxi. Ezin al zuen zerbait orijinalagoa izan? Nire kolko-rako gorde nituen horiek denak, jakina.

Zergatik ez dituzue errezelak ixten?

Hasperen egin zuen funtzionarioak, nire erreakzioak apur bat harrituta, beharbada.

Ez dakit sinestuna zaren, baina hala bazara, niri dagokit jakinaraztea, horretarako ordaintzen didate eta, ez dagoela ez zeru eta ez infernurik, ez dela hemen bekatuekin zigorrik eta ongiarekin paradisuurik trukutzen.

Espero izatekoa zen, a zer nobedadea.

Linborik ere ez dago... Edo bai: hauxe da linboa. Paseko lekua duzu hau, behin-behinekoa. *Erabakia* hartu arte baino ez zara hemen geratuko. Zure esku dago.

Erabakia? Ze erabaki?

Erizainek azalduko dizute prozedura. Eta orain, barkatzen badidazu... Lan asko daukagu.

Tinta-zanpagailuarekin nire txostena zigilatu eta kanpora egotzi ninduen konturatu orduko.

Zoko usaina zuen gela batera eraman ninduten. Zororik gabeko zoroetxe abandonatu bat, drogamenpekotasuna gainditzeko rock izarrak hartzen dituen ospitale sotila, diktadore batek bere ihesean abandonatu eta sasiek hartutako udako etxalde dekadentea. Horiexen antza zuen lekuak. Diktadoreak abandonatutako etxearena gutxiago, agian. Diktadoreek ez zituzten beren etxeak hain erraz abandonatzen.

Zer gibelarraiotarako ote nengoen han?

Kontua erraza da, gaztigatu zidan erizainak, aukeratu egin behar duzu: literatura unibertsaleko pertsonaia bat aukeratu behar duzu, eta hemendik aurrera, fikziozko pertsonaia horren baitan biziko zara eternitate osoan, dela Emma Bovary edo dela Dorian Gray, dela Sherlock Holmes edo dela Robin Hood, eta berak bezala jokatu eta sentituko duzu engoitik, ez duzu zure aurreko bizitzaren arrastorik gogoratuko. Liburutegia be-

heko solairuan dago, behar dituzun bolumen guztiak kontsulta ditzakezu bertan. Poeren belea aukeratu zuen batek, joan zen hilean. Animaliak ere zilegi dira.

Adarjotzearen makurra eta amesgaiztoaren mikatza! Literatura unibertsaleko pertsonaia bihurtu behar al nuen? Nor, ordea? Ivan Ilitx? Sekula hizketan uzten ez zioten *Rayuelako* Maga koitadua? Hyde jauna? Ezta pentsatu ere! Eta bestalde, zentsuratutako liburuak ere bertan izango ote zituzten? Banituen nire zalantzak.

Ezin al dut kantu bat aukeratu?

Zur eta lur begiratu zidan erizainak. Nire fitxa zeukaten, xehetasun guztiekin: bazekiten idazlea nintzela, bazekiten zer idazten nuen, nire prentsa artikuluen berri zehatza zuten, jakiteagatik, bazuten azken bost urteetan unibertsitatean sinatu nituen manifestuen berri ere. *Unión Obrera* aldizkariko elkarrizketa batean esana nuen behin, «gustuko ditudan poetak behin eta berriz irakurtzen ditut, haiek azken juizioan nire defentsa presta dezaten», baina hortik eternitate osoa Aureliano Buendia edo Oliveira bihurturik pasa nahi izatera, ez zegoen ba aldea! Kalku-

lu erratua egin zuten nirekin. Gainera, lehen oroit-ahaleginean, ez zitzaidan pertsonaia zoriontsu bat bakarra ere bururatu. Ez ote nuen literatura alairik batere irakurri, alajaina? Zertan xahutu nuen orduan nire bizitza?

Pertsonaia baino, nahiago nuke kantu izan!

Sentitzen dut: mendebaldeko hegala literaturari dagokiona da. Kantuak, ekialdeko hegalean.

Hizketan hotza eta zimurra bezain afektiboki inguraezina zen hango langileria, erran gabe doa.

Atezain bat tabako rubioarekin sobornatuta lortu nuen lekualdaketari zegokion tinta-zanpagailluaren zigilua. Tabakoa baino nahiago omen zuen nailonezko panty pare bat, baina ez neukan horrelakorik eskura.

Alde ederrekoa zen ekialdeko partea. Jen-deak beste bizipoz bat zuen han, txistu egiten zuen txistu, eta tangoak hortz artean erabili ere bai; lurretik oinak altxa gabe dantza txikiren bat tarteka, begiraleak entretenituta zeudela probestuz, alaitasun erakustaldiak debekatuta baitzeuden. Baina onena, fonotekako bilduma: ika-ragarria zen.

Begi ondoan orezta zuen zapata zuridun gizon bat inguratu zitzaidan, binilo bat eskuetan.

Bob Dylan, ez zeukaat dudarik. Baina zalan-tzak ditiat oraindik kantuarekin.

*Like A Rolling Stone*, adibidez? Hemendik urte askora oraindik oroituko dute kantu hori...

*Like a Rolling Stone?* Hik uste? Eternitate osoa errekarriarena egiten? Okurritzea ere! Bar-kuei begira jartze hutsarekin zorabiatzen den horietakoa nauk ni. *Knockin' On Heaven's Door* ere ez, jakina, paradoxikoegia litzateke gure egoera linbotikoan... Beste zerbait neukaan buruan: *Just like a woman* edo, ez zakiat, ez diat garbi ikusten... Eta hi, zeren peskizan habil, asko galde-tzea ez baduk?

Zerbait alaia. Kantua oso ona ez izan arren, bizipoza sor dezala behintzat.

Hobe duk azkar ibili, epea ez duk betirakoa...

A, ez? Ez didate ezer esan.

Ez ditek esaten, zakur horiek, baina bazagok, bai, epe bat: astebete bakarrik zeukaagu, bestela, hemen geratzera derrigortzen haute.

Hemen? Betirako?

Nortzuk uste duk direla etxe honetan lan egiten duten mediku, funtzionario eta erizain xin-xangre horiek denak? Bere garaian kantu bat apartatzeko gai izan ez zirenak! Inkestetako NS/NC horiek! Hara, hator nirekin, zerbait erakutsiko diat.

Fonotekatik atera eta tabernara jaitsi ginen. Kamareroa seinalatu zidan, bide-erakusle ororen poz paternalistarekin.

Ez da posible! Nik uste dudana al da *Are You Lonesome Tonight* mihipean darabilena?

Erregea! Elvis berbera! Ez huen gai izan, gijajo hori. Musikariei askotan gertatzen zaiek. Blokeatu egiten dituk. Nola ba, kantu bat bakarra aukeratu? Krudela duk gero! Goiko karaokean lan egiten dik, egik kontu. Nahi baduk joango gaituk gauean, *Only The Strong Survive* edo holakoren bat abestera.

Frank Zapparen diskoak entzuten bota nuen arratsaldea. Gehiegi ez pentsatzea izango zen onena. Total, ez zen hainbesterako: eternitatea besterik ez zen. Poztu egin nintzen ataka estu hartan ere oraindik ironia erreserba agortu ez zitzaidalako. Zirt edo zart. Aukeratu nuen nirea:

*Camarillo brillo* izango zen kantua. Pontxo mexikarrei buruz eta estasian ahitu eta *un-concho* geratu arte larrua jotzeari buruz hitz egiten zuen kantu nahiko hippya, ate baten ondoan biluzik zegoen emakume baten eta Zappa beraren arteko harreman psikodelikoaren istorioa. Ingeleseko gure irakasleak atzerrira ihes egin aurretik esandakoaren arabera, *un-concho*, *unconscious*-en ahoskeraren aldaki umoretsu bat zen inondik ere, eta Concho, tribu indiar bat izateaz gain, Texas aldeko ibai baten izena ere bazen, Fort Concho fuerteari izena ematen ziona bidenabar. Fort Concho. Ederra. Betidanik grazia egin zidan hitza zen hori. Bazuen puntutxo esoterikoa kantuko emakumeak: tarota irakurtzeko abildadea ei zuen eta intzentsua jartzeko gakoan, kriskitin pare bat zeukan zintzilik ziri lurrintsuaren orde; ez hori bakarrik, nano bat ere bazuen etxean, eta baita suge bat ere, maskotatzat. Keinu ironikoz betetako kantua zen, Texas-Mexiko mugakoa, eta mugak gustuko nituen nik. Ez al nengoen, gainera, muga batean, mugaren mugan eta kinkaren kinka ezinago larrian?

Aukera ona, aixkide: ederra duk kantuaren arrankea!

«*She had a Camarillo brillo...*», saiatu nintzen abesten.

*Kamarilo-brilo*, ahoskatzen dik Zappak.

Eta zuk? Aukeratu al duzu zurea?

Lotsa ere ematen zidak, baina... asko eskatzea ez baduk... Konpartituko huke hire kantua nirekin?

Ezustean harrapatu ninduen erabat.

Ez dakit ba, horrela, derrepente, ez dugu ia elkar ezagutzen... Ez al doa hori arauen kontra?

Ahotsa jaitsi zuen, ahalkeak jota.

Kasualitatez, nork bere aldetik hartutako erabakia izanez gero, zilegi izaten duk. Bestela ez ditek onespelik ematen. Hobe gaurtik aurrera elkarrekin ikusten ez bagaituzte...

Pena hartu nuen. Jatorra zen Dylanzalea.

Hegazkinera denok, tximaluze horiek! Tira, tira! Denok barrura! Denok esan dut! Azkar, azkar! Ez daukagu egun osoa!



Ez dakit zertara zetorren hainbesteko presa eta zakarkeria, egia esan.

Paraxut bana eman ziguten bi-helizeko hegazkinera igo bezain pronto. Ez zen handia, berehala hartu zuen altuera. Imajinatu behar nuen: nola biziko nintzen bada eternitate osoan kantu baten barruan, paraxutarekin salto egin eta kantuaren adarretan zintzilik geratuta ez bazen? (*Well, I was born to have adventure*, zioen Zap-paren kantuak, eta horratx zinez zain nuena). Kantuaren izenburua bozgorailuetatik ozenki esan eta hegazkinetik salto egitera xaxatzen, akuilatzen gintuzten. Pena hartu nuen begi apur bat estrabikoa zuen neska beltzaranak, maskotatzat suge bat izateko itxura guztia zuenak, Dylanen *The Times They Are A-changin'* kantuaren deiarekin jauzi egin zuenean.

Orduan bereizi nuen jende artean kukuturik zapata zuridun morroia. Gogoia lauso, nire pentsamendu bertsua zerabilen hark ere buruan: Dylanekin joan zen neska estrabikoa.

Ez zinen damutuko, ezta?

Ezta batere, *Camarada Camarillo*.

Zapparen lurraldearen gainean egon behar genuen inondik ere: gu bakarrik geratzen ginen jauzi egiteko.

Arrazoia eman ziguten bozgorailuek.

*Camarillo brillo!*

Begia keinatu zidan zapata zuridunak jauzi egin aurretik.

Ondo egin diagu, gazte. Egin behar genuena egin diagu.

Haren atzetik akuilatu ninduten ni ere. Airearen zafrada askatzailea sentitu nuen aurpegian, eguzki izpien epela. Nahikoa denbora izan nuen, azkenik. Nahikoa denbora jaiotzen ikusi ninduen Hego Amerikako nire herriaren izena ahazteko; gauaren erdian ohetik arrastaka aterarazi ninduten diktadorearen gizonekin akordatuagatik ere, orezta zuen soldadu gaztearen militar bota sastarrak alegiazko zapata zuriekin ordezkatzeko, tinta-zanpagailuz betetako atxilo-etxea linbo bihurtzeko, borrararen kolpea baino, aukeran, bihotzekoa nahiago nuela erabakitzeko; denbora, muinean, Margak eta biok azken aldian diskojogailuan jartzen genituen kanten artetik Marga-

ren gustukoena aukeratzeko, gertaeren bertsio ez-ofiziala eraikitzeke, denbora doia.

Atsegina zen sentipena: behera eta behera, ni erori baino, airea gorantz ote zetorren iruditu zitzaidan.

Paraxut zurigorri mordoa ikusten nuen han, nire azpian. Baina lurra txikiegia izateaz gain, urrunegi zegoen, eta eskuburdinak askatzea lortuta ere, ez neukan nirea irekitzeko batere gogorik.